

Euskal Oinordetza Zuzenbideari buruzko azterketa

Araudi berri bat sortzeko oinarriak

Clara I. Asua González
Gorka Galicia Aizpurua
Jacinto Gil Rodríguez
José Javier Hualde Sánchez
Leire Imaz Zubiaur



eman la zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

EUSKAL
OINORDETZA-ZUZENBIDEARI
BURUZKO AZTERKETA

Araudi berri bat sortzeko oinarriak

EUSKAL OINORDETZA-ZUZENBIDEARI BURUZKO AZTERKETA

Araudi berri bat sortzeko oinarriak

Clara I. Asua González
Gorka Galicia Aizpurua
Jacinto Gil Rodríguez
José Javier Hualde Sánchez
Leire Imaz Zubiaur

Euskaratzea

Leire Imaz Zubiaur
Mikel Mari Karrera Egialde

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

Debekatuta dago liburu hau osorik edo partez kopiatzea, bai eta tratamendu informatikoa ematea edo liburua edozein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta copyrightaren jabeek ez badute horretarako baimena aldeztu aurretik eta idatziz eman.

UPV/EHUko Euskararen arloko Errektoreordetzak lagundutako lana.

Zuzentzailea: Amaia Apalauza Olló

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9082-298-2

Lege gordailua: BI - 418-2014

AURKIBIDEA

Laburdurak	9
Sarrera	11
Xedapen orokorrak	23
Testamentu bidezko oinordetza	25
I. kapitulua. Hilburuko testamentua	25
II. kapitulua. Testamentu mankomunatua edo ermandadekoa . . .	27
Oinordetza-itunak	41
Oinordetza-fiduzia edo komisario bidezko ordenazioa	53
Nahitaezko oinordetza	69
I. kapitulua. Erregimen orokorra	70
II. kapitulua. Nahitaezko oinordetza Bizkaiko Lur Luan, Laudion eta Aramaion	93
III. kapitulua. Xedatzeko askatasuna Aiaran	97
Legezko oinordetza	101
I. kapitulua. Erregimen orokorra	101
II. kapitulua. <i>Ab intestato</i> oinordetza Bizkaiko Lur Luan, Laudion eta Aramaion	104
Oinordetza moduei buruzko xedapen komunak	105
Aurreikuspen osagarriak	109

LABURDURAK

- ArOL** 1/1999 Legea, otsailaren 24koa, heriotzagatiko oinordetzari buruzkoa, Aragoi.
- BZZK** Balearretako zuzenbide zibilaren konpilazioa (testu bateratua, irailaren 6ko 79/1990 Dekretu Legegileak onartua).
- EHAE** Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua.
- EK** Espainiako Konstituzioa.
- EZAA** Euskal Zuzenbidearen Akademiaren foru-zuzenbide zibilari buruzko lege-aurreproiektuaren zirriborroa.
- FZZL** 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, euskal foru-zuzenbide zibilari buruzkoa (azaroaren 26ko 3/1999 Legeak aldatua Gipuzkoako foru zibilari dagokion atala).
- GZZL** 2/2006 Legea, ekainaren 14koa, Galiziako zuzenbide zibilari buruzkoa.
- KZ** Kode Zibila.
- KatKZ** Kataluniako Kode Zibila.
- NF** Nafarroako foru-zuzenbide zibilaren konpilazioa edo Foru Berria (1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa).
- OK** Oinordetza Kodea, Kataluniako zuzenbide zibilekoa, heriotzagatikoa (40/1991 Legea, abenduaren 30ekoa).
- PZL** 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, prozedura zibilari buruzkoa.

SARRERA

Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren leko 3/1992 Legeak argi utzi zuen, zioen adierazpenean, ez zela bere asmoa «zuzenbide zibil modernoa eta aurrerakoia» lortzeko helburu zilegia testu harekin amaitutzat ematea. Atzeratu besterik ez zuen egiten legegileak saiakera hura. Beste alde batetik, azaroaren 26ko 3/1999 Legeak, FZZL aldatu zuenak, Gipuzkoako Foru Zibilari dagokion atalean, hiru lurralde historikoen artean zegoen asimetria gainditi zuen, formalki bada ere; hiru foru zibilen berezitasunak *kontserbatzeko* lana jada burututa, berezitasun horiek erabiliz «Euskal Zuzenbide Zibilaren ezaugarri komunak» atera eta, 1992ko Legearen agindua betez, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.5 artikulua formulari jarraituz, agerian utzi zuen autonomia-erkidego mailako erregulazio moderno bat gauzatzeko erronka urgentea zela. Hala, irekia geratu zen orduan euskal zuzenbide zibila *aldatzeko* eta *garatzeko* aukera. Eta ezinbestekoa da, gaur, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztientzako zuzenbide zibil bateratu bat osatzea; estatutuak bere gain hartutako eskumena egikaritzeko eta zuzenbide pribatua herri-nortasunaren eta euskal lurraldeen arteko kohesioaren elementu gisa erabiltzeko.

Aurreko legegaldian, argi geratu zen, bigarren aldiz, jatorrizko foru-zuzenbideetatik euskal zuzenbide zibil moderno batera igarotzeko zubia eraikitzea oso lan zaila dela. Ez zen nahikoa izan alderdi politikoen artean adostasuna lortzea ponentzia berezi bat eratzeko. Ezta ponentzia hartara deitutako adituek bat egitea ere. Ponentziako saioak bukatzerako, ez zen lortu Euskal Autonomia Erkidegoko berezko zuzenbide zibila berritzeko ezinbestekoa den bat-etortzea.

Hori dela eta, azken urteotan metatutako esperientziak erakusten du komeni dela ibilbidea zatika egitea, antzeko eskumena

duten beste autonomia-erkidego batzuen jatorrizko zuzenbide zibilen egungo garapen-maila eredutzat hartuz. Euskal zuzenbide zibilaren garapen ideala zuhurtziaz eta lasaitasunez zatika egin beharrak errotzen du, hain zuzen, oinordetzari buruzko estatutua lantzeko proposamena lantzen hastea. Beste hiru arrazoi daude erabaki horren oinarrian. Lehenik, euskal biztanleak nabarmen zatituta daude arlo horretan, lau oinordetza-estatutu baitaude autonomia-erkidegoan, bizkaitar forugabeei dagokiena kontuan hartu gabe. Bigarrenik, Kode Zibilak arautzen duen oinordetza-sistemaren desoreka esanguratsua, kontuan izanik sistema hori oraindik ere aplikagarri zaiela arabar eta gipuzkoar gehienei zein bizkaitarren erdiei (1.494.966 biztanle, guztira; euskal erroldaren % 68,82). Azkenik, eskumen hori egikaritzen gu baino trebatuagoak diren legegile autonomikoen eredu, zuzenbide zibila gartzarakoan kuantitaboki eta kualitatiboki ezberdinak diren proposamenekin identifikatzen baitira (Katalunia, OK 40/1991 Legea; Aragoi, ArOL 1/1999, eta Galizia, GZZL 4/1995).

Euskal Autonomia Erkidegorako proposatzen den oinordetza-erregimen berria oinarri batzuen bitartez egituratu da. Formula hori aukeratu da behin betiko sistema gisa aurkezteko joera duen testu artikulatu bat baino zabalagoa eta malguagoa delako. Horrek ez du esan nahi, ordea, oinarriok ez direla arau bihurtzeko gai. Izatez, oinarri gehienek badute sendotasun hori: ez dira arau-azalpen soilak, eta erregulazioaren xehetasunak ere arautzen dituzte. Esposizio-eredu hori hautatu dugu zenbait arrazoiengatik. Lehenik, haren edukari eta onartu diren soluzio zehatzei buruzko eztabaida eskuragarriagoa egiteko. Gaia legeztatzea sustatuko balitz, eragile sozial eta juridikoek egin beharko lukete eztabaida hori, baita Euskal Legebiltzarreko kideek ere. Bigarrenik (helburua hori balitz), Eusko Jaurlaritzaren 7/1981 Legearen 52. artikulua aurreikusten duen legegintza-delegazioaren teknikari bidea irekita uzteko. Jakina denez, teknika hori *oinarri-lege* baten bidez (delegazioa egikaritzeko data jasoko duena) onar daiteke, baldin eta testu artikulatuak egitea helburu badu. Arauak egiteko prozedura berezi hori oso egokia da, batez ere, instituzioak eta kontzeptu konplexuak eta nabarmen teknikoak landu behar direnean; gure kasuan, esate baterako. Gainera, gure abiapuntuak —lau ordenamendu zibilen koexistentzia— adostasuna lortzeko legegintza-metodo egokiena aukeratzera garamatza. Izan ere, oinarri-lege batek asko erraztuko luke legebiltzarreko indar guztien artean ezinbesteko adostasuna lortzea araudi berriaren zutabeei buruz; batez ere, euskal senipartearen existentziari eta sendota-

sunari buruz, baita herritarrek hil aurretik beren hil osteko ondarezko eszenatokia ordenatzeko erabil ditzaketen tresnei buruz ere (itunak, testamentu mankomunatua eta komisario-usufruktudun-fiduziarioaren bidezko ordenazioa). Horrenbestez, oinordetza-egitura autonomikoaren oinarrizko printzipioak oinarri-legean bertan sintetikoki finkatu ondoren, pentsaera anitzeko adituen batzorde tekniko batek garatu egin beharko luke proposamena. Garapena bukatuta, testua (artikulatua jada) Jaurlaritzak aurkeztuko luke, eta Legebiltzarraren Osoko Bilkuran izapidetuko litzateke, 7/1981 Legearen 52.6. artikulua araber, irakurketa bakarreko prozesuari jarraituz (ikus 2008ko abenduaren 23ko Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 162. artikulua). Jakina, aurkezten ari garen lan honek badu halako legeei eskatzen zaien sakontasun- eta trinkotasun-maila; hots, legegintza-delegazioaren objektua eta irismena finkatuko ditugu, baita hura egikaritzeko bete beharreko printzipio eta irizpideak ere (52.3. artikulua).

Nahiz eta proposamen hau osatzen duten oinarriak azalpen labur batekin eta beste ordenamenduetako arauetikiko bat-etortzeekin lagundu, komeni da oinarrizko ildoak zein diren azaltzea. Lehenago, ordea, egoki da gauza zehatz bati buruz jardutea.

Irakurketa xume bat eginez ondoriozta daitekeen bezala, oinarrietan ez da izatezko bikotekideen erreferentziarik jasotzen, ezkontideenak besterik ez baitira bildu. Omisio hori ez da, hala-beharrez, bi elkarbitzita-ereduen arteko *asimilazioaren* kontrako jarreratzat hartu behar, baizik eta haren zentzuari, helburuari eta efektuei buruzko *hausnarketarako deitza*.

Ezkontza ez da jada bikote-eredu juridiko bakarra. Ezkondu gabeko bikotearen instituzionalizazioa, hasieran intentsitate gutxikoa bazen ere (jurisprudentziaren eta Estatuko zenbait arau sektorialen kariaz), autonomia-erkidegoen legegintza-jarduerak sustatu eta bizkortu egin dute. Azken hamar urteetan, lege autonomiko ugari onartu dira *izatezko bikoteei* buruz; nahiz eta, haien guztien artean, eskumen zibila duten autonomia-erkidegoek besterik ez duten arautzen *bikotearen estatutu pribatua*, beste guztiak zuzenbide publikoaren eremuko arloetara mugatu behar baitira.

Jarduera autonomikoak beharrian erreal bat eta eskaera zilegi bat hartu zituen aintzat: garai hartan oraindik ezkontzea debekatua zuten sexu bereko pertsonen marko instituzional bat eskaintzea, alegia. Lege horietariko batzuek, gainera, hasieratik ahalbidetu zuten adopzioaren bitartez seme-alabatasuna ere finkatuta geratzea sexu bereko bi pertsonen alde. Gerora, aukera

hura hasieratik jaso ez zuten legeek ere gauza bera egin zuten. Baina, egia esan, kideen sexuaz haratago bikoteari eredu instituzional bat eskaintzearekin batera, zera gertatu da: lege horiek bikote heterosexualei *eragin diete* (edo haiek *erabili dituzte*, aplikazioa aurretiazko borondate-adierazpen batek baldintzatzen duen kasuetan), batez ere. Izan ere, uztailaren 1eko 13/2005 Legeak Kode Zibilean gauzatutako erreformak ekarri du sexu bereko bikoteek ezkontza hautatzea instituzionalizazio bide gisa.

Baina, sexu bereko pertsonak elkarrekin ezkon daitezkeela kontuan izanik, komenigarria litzateke hausnartzea ea zer arrazoi dagoen beste bikote-eredu instituzionalizatu bati eusteko, ea zer betekizun dituen, eta ea baimen baten adierazpena eskatu beharko litzatekeen.

Lehenengo gaiari dagokionez —ezkondu gabeko bikote bat juridikoki marraztea justifikatzen duten arrazoiak—, bi ideia nagusitu dira: askatasuna eta nortasunaren garapen librea (EK-ko 10. art.), eta eredu tradizionala ez den beste bat eskaintzeko aukera. Hala ere, askatasunak eta nortasunaren garapen libreak eskatzen badu ere bikote bakoitzak eredu bat edo bestea aukeratu ahal izatea, helburua ez da hain antzekoak diren bi ereduren artean hautatu ahal izatea. Beste alde batetik, ezkontzaren bidezko instituzionalizazioari uko egiten dion eta *produktu juridiko berri bat* eskatzen duen jarrerari men egiteak adierazten du gaur egun ez dakigula ondo ezkontza zer den. Ezagutza falta horrek gizarte demokratiko baten lorpenen kontzientzia falta eta horri buruzko pedagogia falta dakar, baina, areago, bereziki larria izan daiteke botere publikoei gagozkiela. *Jarrera* horri garrantzia ematen bazaio, inplizituki onartzen da badaudela hura justifikatzen duten arrazoi objektiboak, hau da, ezkontza iraganekoa bezalakoxea dela gaur egun ere (ezberdintasunean oinarritua, erlijioan inspiratua, etab.) eta, horregatik, eredu hura gaitzestea nolabait babestu behar dela. Nabarmena da Konstituzioaren ondorengo araudiak ez duela eredu harekin zerikusirik, baina badirudi *izen-kontua* dela, besterik ez: ezkontza-estatutua lortu nahi da, baina izen hori erabili gabe.

Bigarren gaiak ere —ea baimena beharrezkoa den bikotetzat hartzeko— bi ereduen paradoxak azaleratzen ditu. Bikotearen estatusa egintza eraginkorregatik aplikatzeak, aurretiazko baimenik adierazi gabe, askatasuna kolokan jartzen du, eta zalan-tza pizten da Konstituzioaren aldeko emaitzak lortzen ote diren (ez ezkontzeko eskubidea, EK-ko 32. artikulutik eratoritzen dena, bikote bat ez eratzeko eskubide bilakatuko litzateke). Beste alde

batetik, baimena adierazi beharra errespetuzkoagoa da askatasunarekin eta nortasunaren garapen librearekin, baina are argiago uzten du ezkontzaren kopia bat dela hasieratik, eta horrek ere, Konstituzioaren ikuspuntutik, zer esana badu (Estatuak zer eskumen duen ezkontzaren formei dagokien harreman juridiko-zibilei buruz, eta, erregistro batean inskribatzeko eskatuz gero, baita erregistro publikoen eskumenari buruz ere —EK 149.1.8 art.—).

Euskal legegintzak ere ezin dio ordenazio logikorik gabeko *nahaspila* horri muzin egin. Izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen 3. artikulua erregistro batean inskribatzea galdatzen du *ad hoc*; beste alde batetik, lehenengo xedapen gehigarrian, bikote inskribatuei ere zabaltzen zaie lege horretan jasotzen den araudia, baita arlo zibilekoa ere, autonomia-erkidegoan onartua eta ezkontzari aplikagarria dena (9. artikuluan oinordetza-efektuekiko egiten den asimilazioa erraz *gainditzen* duena). Alegia, ez da zaila nolabaiteko ezkontza autonomiko bat ikustea. Ez dago argi gaur egun erabilgarria den ala ez; batez ere, kontuan hartuta norbanakoen askatasuna errespetatuz gero benetako *izatezko* bikoteak arauditik kanpo geratzen direla.

Eguno *statu quo*a mantentzeak ekarriko luke, beraz, *ezkontideari* eta *izatezko bikoteari* erreferentzia egitea, eta 2/2003 Legeak eskatzen dituen betekizunak betetzen dituzten bikoteak besterik ez hartzea bikotetzat. Hobetsi da *automatikoki* halakorik ez egitea, esandakoari buruz arreta emateko bada ere. Izan ere, azken emaitza nahasgarria da, eta egoera, berriz, koherentziarik gabekoa, bikotearen instituzionalizazioaren ikuspuntutik begiratuta.

Ezkondu gabeko bikoteen erregulazioa autonomia-erkidegoek egin izanak eskumenei buruzko alderdien eztabaida *desitxuratz*en du; aurreko lerroetan azpimarratu dira haietariko batzuk. Hala ere, ohartarazi behar da hausnarketa kritikoa sakonekoa dela eta, eskumenei lotutako kontuek garrantzia duten arren, hausnarketa hori ez dagoela, muinean, egitura autonomikoari atxikitako legegintza-dibertsitatearekin lotuta. Horregatik, gauza bera esango genuke Estatuak gaizki izendatu dituen *izatezko bikoteak* legeztatuko balitu edo (eta hau hipotesi bat besterik ez da, baketsua baita EK-ko 149.1.8. artikuluan Estatuari erreserbatzen zaion *ezkontza formei dagozkien harreman juridiko-zibilei* buruzko eskumen eksklusiboaren interpretazioa) autonomia-erkidego batek bikote ezkonduen eredu bat legeztatuko balu eta beste bikote-eredu pareko bat sortzeko betekizunak definituko balitu.

Ohartarazpen hori egin ostean, oinarriak lau talde handitan banatzen direla esan beharra dago, lau gai hartzen baitituzte kontuan: nahitaezko oinordetza, *mortis causa* ordenazio-tresnak (testamentu mankomunatua, hilburuko testamentua, oinordetza-itunak), oinordetza-fiduzia (edo komisario bidezko ordenazioa), eta, bukatzeko, legezko oinordetza. Gainera, oinordetzari buruzko araudi-proposamen hau indarrean sartuko bada, lau gai horiek ezinbesteko beste gai batzuk jorratzen dituzten aurreikuspen gehigarriekin osatu dira.

Lehenengo gaiari dagokionez (nahitaezko oinordetza), autonomia-erkidego osorako erregimen bateratu bat osatzea izan da helburua; gure tradizio juridikoaren sostenguarekin, gure gizartearen beharrezanean erantzun diezaien eta egungo errealitate egokitu dadin. Zehazki, nahitaezko oinordetzari buruzko diziplina berria bi zutaberen gainean eraikitzen da: 1. Seme-alabek eta beste ondorengoek zein gurasoek eta beste aurre-ahai-deek dute seniparte zati bat jabetza osoan jasotzeko eskubidea, nahiz eta kuota horiek egun EAEn aplikatzen direnak (Kode Zibila, Bizkaiko Forua) baino murriztagoak diren proposamen honetan. Murrizketa horren arrazoia datu soziologiko batek ematen digu: euskal biztanleek bizi-itxaropen altua dute, eta horrek iraganen seniparteak ondorengoekiko asetzen zuen asistentzia-funtzioa ezabatu egiten du. Ondorengo gehienek heldutasunera heltzean jaraunsten dutenez —bizitza jada konpondua dutenean—, ez dute baliabide hori behar beren etorkizuna lantzeko, duela urte batzuk gertatzen zen bezala. Antzeko zerbait esan daiteke aurre-ahai-deei buruz. Oso gutxitan hiltzen dira beren ondorengoen atzetik, eta, hala gertatuz gero, beren beharrak aurreikuspen-sistema publiko edo pribatuaren bitartez asetzen dira. Aitzitik, ez da arazorik ikusi ezkontide alargunaren alde gozamen-seniparterik ezartzeko, egun Bizkaiko Foruak jasotzen duenaren gisan. Halaber, hura zabaltzeko aukera ematen da kausatzaileak hala nahi badu —FZZLko 61. artikulua onartzen duen bezala—, lerro zuzeneko ahaideen senipartea kargatuz bada ere. Ohikoa da, berez, testamentugileak ezkontide alargunari, testamentu bidez eta legatu tituluz, jaraunspen osoaren gozamen unibertsala esleitzea. Bigarren ondorengoen eta aurre-ahai-deen alde aurreikusten den seniparteak izaera *orokorra* du, Bizkaiko ereduari jarraituz. Kausatzaileak nahi bezala banatu dezake seniparte zatia ahaide-taldea osatzen dutenen artean: ez dago, bada, senipartedun bakoitzarentzako gutxieneko zati bat. Erabaki hori hartu da bakarkako senipartearen sistema batek enpresa txiki eta ertainen (batez ere,

familiakoen) eskualdaketa zatietzinarri begira dakartzan arazoak ekiditeko. Arazo horiek arras ezagunak dira Gipuzkoan eta Araban, baita Bizkaiko eremu forugabeen ere, Kode Zibila aplikatzen baita han. Gogora dezagun arazo horrekin lotu behar dela, hain zuzen, azaroaren 26ko 3/1999 Euskal Legea, Gipuzkoako Foruari dagokionez 3/1992 Legea aldatu zuena. Senipartearen izaera orokor edo oso horrek ez du kentzen, belaualdien arteko elkartasun-printzipioa mantentzearen, oinordetza-mantenurako eskubidea (Bizkaiko ordenamenduan oinarritzen dena), banaketaren ondorioz beharizan-egoeran dauden senipartedunen alde. Ildo berean, mantenu-eskubide indartua aurreikusten da gaitasun urriko pertsonarentzat, baldin eta ondasun nahikoak utzi ez bazazkie beren beharizanak asetzeko.

Orain arte orokorki deskribatu den diziplina komunak ez ditu Bizkaiko Lur Lauaren eta Aiarako Foruaren berezko berezitasunak baztertzen; hain zuzen, 3/1992 Legearen 53.-66. eta 134.-139. artikuluetan jasotzen direnak, hurrenez hurren. Egun, arautuak dauden bezala mantentzen dira, eta ezinbestekotzat hartzen diren aldaketa batzuk sartu dira. Alegia, euskal oinordetza-sistema berria indarrean sartzeak ez luke araudi berezi horietan eraginik izango, ezta dagoeneko errotuta dauden instituzioetan ere, hala nola Bizkaiko tronkalitatean eta Aiarako xedapen-askatasun osoan. Beharrezko egokitzapenak egin eta gero, indarrean jarrai dezakete, Euskal Autonomia Erkidego osorako zuzenbide zibilari buruzko lege orokorra noiz aterako zain. Ohartu gaitezen, gainera, tronkalitateari dagokionez, nahitaezko oinordetza ukitzen duen eremu bat besterik ez dela. Tronkalitatearen eragina oinarri hauek ukitzen ez dituzten beste hainbat instituzioetara zabalitzen da: foru-saka, lehentasunez eskuratzeko familia-eskubideak eta foru-komunikazioko ezkontza-erregimen ekonomikoa. Hala, Bizkaiko Foruak arautzen duen nahitaezko oinordetzari buruzko erregimena FZZLtik ezabatzeak Lur Lauaren sistema osoa apurtzea ekarriko luke; horregatik, lege haren erreformak, luzaezina izan arren, orekatua eta era orokor batean landua behar du izan. Nolanahi ere, tronkalitatearen alderdi objektiboari dagokion garrantzia emateko saiakera egin da, eta baserrira mugatzeko erabakia hartu da; muga hori aplikatuko da orain jorratzen ari garen gaian zein beste foru-zuzenbideetan.

Testamentu mankomunatuak euskal oinordetzaren borondatezko delazioan garai modernoan merezi duen tokia aldarrikatzen dute oinarri hauek. Haren erregimenean azpimarratzen dira, bai foruetan oso errotua den askatasun zibilaren printzipioaren exi-

jentziak, bai figura hori eraginkortasunez erabiltzeko baldintzak, beste formulazio autonomikoetatik sendoenak eredutzat hartuz. Bi irizpide horiek uztartuz, lehen ondorio batera iritsi gara: tresnaren erabiltzailearen ikuspuntutik, ezkontza-loturak edo bikote inskribatuaren arteko loturak marrazten duen zirkulu estua gainditu beharra dago, testamentu mankomunatuaren euskal biztanle guztien eskura uzteko, baita lotura-eredu horietatik kanpo bizi direnen eskura ere. Oinarrizko beste erabaki bat da testamentu mankomunatuaren egiteko gutxieneko gaitasuna emantzipazioarekin lotzea, beste ordenamendu autonomikoetan hala jasotzen ez bada ere. Ez gatoz bat adingabeei ere testamentu mankomunatuaren erabiltzeko gaitasuna ematea hobesten dutenekin; izan ere, komeni da tresna honek, elkarrekikotasun-xedapenak izan ditzakeen neurrian, gutxieneko adina igotzea.

Bestalde, oinordetza-borondatea notario aurrean bideratu beharrak ez du autonomia-printzipioa urratzen: Gipuzkoako Foru Zibilean jasotzen den arauari jarraituz, exijentzia horrek segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen du, eta aditu bati aholkua emateko aukera eskaintzen dio.

Egiaz nabarmena da proposamen honek instituzioaren muina elkarrekikotasunarekin identifikatzen duela. Testamentu mankomunatuaren kontzeptua instrumentu-batasunera zabaldu behar bada ere, elkarrekikotasun-xedapenetan dago esleipen komunen eduki natural eta ezaugarritzkoena. Xedapen horiek galarazten dute testamentugile bat hil ondoren bestearen alde bakarreko errebokazioa egitea, baita aukera hori dosifikatzea ere, formari eta efektuei dagokienez, bi testamentugileak bizirik direnean. Horregatik, askatasun zibilaren printzipioaren oinarrian, beharrezkoa izan da elkarrekikotasunaren zentzu hertsia baten aldeko apustua egitea: bat datozen eta ondarezko edukia duten azken borondateak soilik hartuko dira elkarrekikotzat. Presuntzioek eragiten duten sasi-elkarrekikotasuna baztertu egiten da. Gure kasuan, testamentu mankomunatuari eragin diezaioketenen izaera askatasunaren aldean erortzen da, eta ez du galdatzen interkonexioa errituala edo esplizituki formulatua izatea.

Oinordetza-ituraren erregimenari gagozkiola, bi zutaberen gainean eraikitzen dela esan daiteke. Lehenik, araudia egungo gizartearen beharrezanetara egokitzea. Zehazki, tresnaren modernizazioaren aldeko apustua egin da: iraganeko sistema sozioekonomiko batean errotuta egoteagatik foruetan, konpilazioan eta, neurri apalago batean, 3/1992 Legean agertzea justifikatua zuten hondar batzuk behin betiko gainditzea, egungo legegintza-politi-

kako koordinadetan sobera daudelako, beste erregulazio autonomiko batzuek islatzen duten bezala. Horregatik, itungileen esku eta araudi zehatzik gabe utzi dira zenbait arlo: izendatzaileen eta izendatuen arteko bizitza-komunitatea, ituna ezkontza-kapitulazioetan egitea, izendatua ondorengorik utzi gabe hiltzen den kasuetan transmisio-eskubidearen eragina mugagabea izatea, transmisio geroratuarekin egindako itunean izendatuak bere eskubidea doako tituluz bere seme-alaben eta ondorengoan alde xedatzeko duen aukera, ezkontza-krisien eragina izendapena errebokatzeko orduan, eta, oro har, itunak orain arte izan duen familia-kutsu zorrotza eta ezkontza-oinarri nabarmena. Bigarren zutabeak aplikagarria den araudiaren garbiketa teknikoarekin bat egiten du. Aurreko hausnarketarekin lotuta, idazkera argiago, zuzenago eta zehatzago baten aldeko apustua egiteko beharra ikusi da, lege-erreforma batean inplikaturako agente juridikoei eska lekiekeena. Horrenbestez, alde batera utzi dira oinordetza-ituna eta dohaintza inongo beharrik gabe hurbiltzen dituzten presuntzioak, hala nola oinordetza-kontratua eta ezkontza-kapitulazioak (edo dohaintza-eskritura) funtsean identifikatzea. Halaber, proposamena gaur egun araudian ez dauden beste aurreikuspen batzuekin osatu da: itungileen gaitasunari buruzkoa, ituna sinatzearen izaera txit personalari buruzkoa, kontratuaren modalitate negatiboari eta xedatzaileari buruzkoa, elkarrekikotasun-izendapenari eta hirugarren baten alde egindakoari buruzkoa, izendatuaren onarpenak izendatzailea hil ostean eragiten dituen efektuei buruzkoa, inbentario-onura erabiltzeko aukerari buruzkoa, izendapenaren objektu diren gauzak xedatzeko bien baimena beharrezkoa izanik batena falta izanaren eraginari buruzkoa —transmisio geroratu itunean gauza zehatzak eta kausatzailearen jaraunspenaren zati bat bereizita—, kontratu bidezko ordenazioaren alde bakarreko errebokazioari buruzkoa, eta, azken finean, kontratu konektatu bidezko xedapenen arteko erlazioari buruzkoa. Horri guztiari gehitu behar zaio, batetik, tresna honen erregulazioak eskatzen duen zehaztasun teknikoarekin bat datozen euskarri terminologikoak erabiltzeko apustua, eta, bestetik, oinordetza-itunaren eta lan honetan jasotzen diren beste instituzioen artean halabeharrez egon behar duen koherentzia.

Bestalde, komisario bidezko ordenazioari edo oinordetza-fiduziari buruzko erregulazio-proposamenaren oinarrian, hiru arrazoi hauek daude: egun indarrean dauden erregimenek dituzten hutsuneak betetzea eta urritasun teknikoak zuzentzea, eta egungo komisario bidezko testamentuari buruz (Bizkaia), komisario bi-

dezeko ordenazioari buruz (Gipuzkoa) eta usufuktu ahalmendunari buruz (Aiaia) formulatu diren zenbait doktrina-iradokizun gehitzea. Horrek figura aberastea eta arrazionalizatzeta dakar, historikoki ase izan dituen helburuak oztopatu edo mugatu gabe.

Alderdi subjektiboei buruz, bi berrikuntza garrantzitsu: komisarioak bere jarduera eremu subjektibo mugatu batean aurrera eramateko exijentzia, eta oinordeko posibleak komisario izendatzeko debekua. Lehenengoari dagokionez, praktikan gertatzen dena lege-diseinura eramatean datza, eta kausatzaileak bere oinordetza ordenatzerakoan duen erantzukizunaren ondorio logikoa da. Bigarrenean, berriz, instituzioa justifikatzen eta sustatzen duten helburuekin bat egiten ez duen interes-gatazka baztertu da. Eremu subjektibo horretan bertan, halaber, kausatzaileari zein komisarioari galdatzen zaien gaitasuna zehaztu da, eta, delazioan, oinordetza-gaitasuna finkatzeko momentu egokia ezartzen da.

Komisarioari eginiko enkargua eskritura *simple* batean jasotzeko aukera eskaintzen da. Hala, kausatzaileari fiduzia ezartzeko modu egokiena ematen zaio, oinordetzari buruzko beste xedape-nik egingo ez badu. Beste alde batetik, eskritura publiko simplea —hau da, eskritura publikoan jasotako alde bakarreko borondate-adierazpena— enkargua exekutatzeko modu prototipiko bilakatzen da, eta, hala, ez da horretarako dohaintza erabili behar, tradizionalki egin den bezala, nahiz eta juridikoki zein teknikoki aukera ezegokia izan.

Arreta berezia jaso du komisarioak egin beharreko ordenazioa exekutatzeko epeak. Figura horrek duen helburuarekin koherentzia mantenduz eta Gipuzkoako Foruak ezartzen duen bezala, komisarioari mugarik gabeko epea emateko aukera murriztu da; hura bere enkarguaren oinarrian dagoen jaraunspenaren biziarteko usufukituduna den kasuetara, hain zuzen. Halaber, bi urteko legezko epea ezarri da, eta, arazoak konpontzeko zein abusuak ekiditeko tresna gisa, epaileak epea luzatzeko edo mugatzeko ahalmena ezarri da.

Azpitarratzekoa da, halaber, desegindako ezkontza-sozietate bat likidatzeko exijentzia ezarri izana hari dagozkion ondusun edo eskubide zehatzak esleitu ahal izateko, jaraunspen-ondarea zein den finkatzeta inbentarioa egiteko betebeharraren eta enkargua exekutatzearen *prius* logikoa baita.

Legezko oinordetzaren eremuan proposatzen den araudia-ren alderdi deigarriena da ezkontide alargunaren egoera hobetu izana: Bizkaiko Foruak eta Kode Zibilak diotenaren kontra, ezkontide alarguna aurre-ahaideen aurretik dago oinordetzan. Izan

ere, gure inguruan egin diren azken legegintza-erreformetan ikus daitekeen joera bat da hori (adibidez, Katalunian, 10/2008 Legea, uztailaren 10ekoa, Kataluniako Kode Zibilaren laugarren liburuari dagokiona), eta bi arrazoik justifikatzen dute: batetik, elkarbizitza-taldeak izan duen murrizketak, familia zabal bat izatetik familia hertsiki nuklear batera igaro baikara, eta, bestetik, kausatzaile arruntaren desireri hobeto egokitzen zaien irtenbidea izateak. Hala ere, lehentasun berri hori hainbat faktorek leuntzen dute. Haien artean, honako hau azpimarra daiteke: nahitaezko oinordetza-eskubide gisa, aurre-ahaideei dagokien heren baten senipartea legezko oinordetza ezkontide alargunaren alde ematen den kasuetan ere erreklamatu ahal izango dutena. Legezko oinordetzaren erregimen berria Bizkaiko Lur Laura ere zabaltzen da, lurralde horretan tronkalitateak duen eragina baztertu gabe.

Azkenik, oinarriek euskal oinordetza-erregimen berriari legokiokeen eremu subjektiboa finkatzen dute, baita hark uztailaren 1eko 3/1992 Euskal Foru Zuzenbide Zibilari buruzko legearekiko izango lukeen indargabetze-eragina ere. Halaber, oinarriek denbora arteko zuzenbideari eta zuzenbide iragankorrari dagozkien hainbat alderdi ebazten dituzte.

Xedapen orokorrak

1. Oinarria. **Oinordetza ordenatzeko moduak**

Oinordetza hiru modutara gauzatzen da: kausatzailearen borondatearen bidez, testamentuan edo oinordetza-itunean adierazita, edota legearen bidez adierazita.

Komisarioaren bidezko ordenazioan, enkargua exekutatu ahal izango da testamentuan, oinordetza-itunean edo eskritura publiko sinplean.

Delazio moduak elkarren artean bateragarriak dira.

Bat datoz: FZZL 27. art.; KZ 658. art.; ArOLko 2. art.; GZZL 181. art.; BZZK 6., 7. eta 69. art.; EZAA 18. art.

Oharrak: norberaren oinordetza diseinatzeko ardura beste pertsona bati emateko posibilitateak zehazten du oinordetza ez dela gauzatzen kausatzailearen borondatearen bidez edota legearen bidez soilik. Hori da, egiaz, erreferentzia kontzeptual klasikoa, borondatearen bidezko ordenazioan kausatzailearen borondatea soilik biltzen duena, baina oinordetza-fiduziak edo komisario bidezko ordenazioak gehitzen duen ikuspuntuarekin osatu behar dena. Ikuspuntu horrek dakar, batetik, azpimarratzea komisarioaren borondateak oinordetza antola dezakeela, eta, bestetik, kasu horretan, ordenazioa ohiko *mortis causa* tresnez gainera —hau da, testamentua eta oinordetza-ituna— beste tresna batzuk erabiliz ere egin daitekeela.

Testamentu bidezko oinordetza

I. kapitulua Hilburuko testamentua

2. Oinarria. **Erregimena**

Gaixotasun larri bat edo beste kausa bat dela-eta be-rehalako heriotza-arriskuan dagoenak testamentu bat egile-tsi ahal izango du, hiru lekuko egokiren aurrean, notarioa-ren parte-hartzerik gabe eta haren absentsia justifikatzeko beharrik gabe.

Ez da nahitaezkoa izango testamentua idaztea, ezta tes-tamentugileari irakurtzea ere, kasuaren urgentziak halako-rik ahalbidetzen ez duenean, baina, azken borondatea xeda-tze-hitzekin adieraziz gero, lehenbailehen idatziko da.

Testamentu hori eraginik gabe geratuko da testamentu-gilea heriotza-arriskutik irteten denetik bi hilabete igarotzen direnean. Testamentugilea denbora-tarte horretan hiltzen bada, testamentua eraginik gabe geratuko da testamentu hori egiaztatzen ez bada, prozedurazko legeek agindutako moduan, heriotzaren ondorengo hiru hilabeteetan.

Testamentugilea, heriotza-arriskutik atera arren beste testamentu bat egilesteko ezgaituta geratzen bada, egiazta-razte-epea hiru hilabetekoa izango da, testamentugilea he-riotza-arriskutik ateratzen denetik zenbatuta.

Bat datoz: FZZL 31. art.; NF 190. eta 191. legeak; EZAA 23. art.

Oharrak: Bizkaiko zuzenbidearen berezko testamentu mota bat Euskal Autonomia Erkidego osora zabaltzea du helburu oinarri honek: *hilburuko testamentua*. Izenak dioen bezala, testamentu forma hori berezia da, testamentugilea *berehalako heriotza-arriskuan* egonik ez baita beharrezkoa notarioak egilesteke egintzan parte hartzea: «Hitz elkartua da. *Il*, heriotza esan nahi duena, eta *buruco* edo *burucoa*, burkoa esan nahi duena, oheburua, heriotzaren hurbiltasuna adierazten duena» (JADO Y VENTAS, 1923, 264. or).

Komeni da gogoratzea, hala ere, Bizkaiko zuzenbidea ez dela mota horretako testamentu bat arautzen duen bakarra: *hilburuko* testamentuaren ia berdina da heriotza-arriskuan eginiko testamentua, Espainiako Kode Zibilaren 700. artikuluan aurreikusten dena, nahiz eta arau horrek bost lekuko galdatzen dituen testamentua baliozkotasunez egilesteke. Gainera, ezaguna da Gipuzkoako eta Arabako lurralde historikoetan ere, baita Bizkaiko eremu infantzoian ere.

Horregatik, hain zuzen ere, komeni da testamentu mota horren *ad hoc* erregulazioa autonomia-erkidego osora zabaltzea eta, bi araudiak uztartuz, bakoitzetik onena hartzea eta puntu ilunetako batzuk argitzea. Haietako batek testamentu mota hori egilesteke ezinbesteko betekizun batekin du zerikusia, hots, ea, hura erabiltzeko, beharrezkoa den frogatzea ezin izan dela garaiz lortu notario batek parte hartzea. Betekizun hori ez du Kode Zibilaren 700. artikulua espresuki galdatzen, baina Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak inposatu egin du ordenamendu horretan bertan: erregela orokorra izanik notarioaren aurrean egiletsitako testamentua, hilburukoa ezohiko eta aparteko modalitate bat da. Ondorioz, heriotza-arriskuan eginiko testamentua, Kode Zibilean arautzen dena eta bost lekukoren aurrean egiletsi behar dena, kasu hauetan bakarrik har daiteke perfektutzat, baliozkotzat eta eraginkortzat: notario bat etortzea lortzea ezinezkoa izan dela frogatuz gero, edota, behintzat, haren parte-hartzea borondatez ez baizik eta denbora-urritasunagatik, komunikatzeko zailtasunengatik edo urruntasunagatik ukatu dela egiaztatuz gero. Nabarmena da, beraz, hausnarketa hori dela medio, notario aurrean egilesten den testamentu irekiaren ordezeko tresna soil gisa konfiguratzen dela *mortis causa* egintza hori. Eta ez dirudi hori denik helburua. Ezohiko inguruabarrak izaten diren kasuetarako (be-

rehalako heriotza-arriskua), testamentua era arruntean egilestekeo zailtasunen aurrean testamentugileari erraztasun gehiago ematea da instituzio horren helmuga. Horregatik, gure oinarriaren ardura da esatea ez dagoela justifikatu beharrik notarioak ez parte hartzea. Testamentuaz hitz egiteko, beharrezkoa da egilesten duenak bere azken xedapena emateko desio serioa eta hausnartua adieraztea. Hala, ez da nahikoa izango egilesten duenak etorkizun batean testamentua nola egingo duen esatea. Ezinbestekoa da, modalitate hau aintzat har dadin, hark bere oinordetza orde-natzeko erabiltzea, *zalantzarik gabe* adieraziz testamentua egin nahi duela. Horixe esan nahi du, hain zuzen, testamentua idatziz jaso beharko dela testamentugileak bere azken borondatea hitz *xedagarriekin* adierazi ondoren.

FZZLko 31. artikulua Bizkaiko *hilburuko* testamentua idatziz zein ahoz egilets daitekeela badio ere, ahozko aldaera alde batera uztea erabaki da, testamentuzko xedapenaren edukia le-kukoero oromen soilaren esku ez uztearren, batez ere egiazta-razteko aurreikusten diren epeak zein zabalak diren ikusita. Gai horietan jarraitu beharreko prozedurazko izapidetzeak 1881eko PZLko 1943.-1955. artikuluetan jasotzen dira.

II. kapitulua

Testamentu mankomunatua edo ermandadekoa

3. Oinarria. **Kontzeptua**

Testamentu mankomunatua izango da betiere bi pertso-nak, ahaidetasun- edo bizikidetasun-harremana dela medio lotuta egon edo ez, instrumentu bakar batean xedatzen ba-dute hil osterako, haien ondasun guztiak edo ondarearen zati bat soilik. Mankomunatua izango da, halaber, elkarre-kin ematen den testamentua, baldin eta bi testamentugileek pertsona bera edo bera ez dena komisario izendatzen ba-dute, haiek hil ondoren beren oinordetza antola dezan.

Bat datoz: FZZL 49.I eta 172. art.; KZ 669. art.; NF 199.I legea; ArOL 91.3 art.; GZZL 187.1. art.; EZAA 24.1 art.

Oharrak: testamentu mankomunatuaren kontzeptua finka-tzeko orduan, doktrina-iritziak, baita euskal testuinguruan adie-razitakoak ere, testamentu mota horren ezohiko izaerari lotuta

agertzen dira oraindik. Testamentu mankomunatuak normalean biltzen dituen elkarrekikotasun-xedapenak gorai patzen dira, eta elkarrekikotasunik ez duten xedapenak gutxietsi. Hala ere, testamentu forma horrek askatasun zibilaren printzipioarekin bat egiten duela nabarmentzean —3/1992 Legeak zioen adierazpenean onartzen duen bezala—, eta, tresna-aniztasuna eskaintzeak duen barne-balioaz jabetzean (gero eta aldeko iritzi gehiago jasotzen dituen, baita Kode Zibilaren eremuan ere), ezerk ez du eragozten onartzea testamentuaren ezaugarri esanguratsuen delako forma-bateratzea, hau da, bi borondate instrumentu berean adieraztea *mere simultanea*.

Testamentu mankomunatu edo ermandadekoa, beraz, instrumentu-batasun horren inguruan eraiki behar da. Forma-bateratze hori adierazteko, egun Bizkaiko eta Gipuzkoako foruek erabiltzen duten esamolde bera aukeratu da, harekin nahikoa baita Bizkaiko Foru Berriaren XXI. tituluaren 1. legeak aurreikusitako atxikimendu bidezko testamentua baztertzeko, hots, pertsona bakar batek egile sitako testamentua eta beste batek onartutakoa. Horrenbestez, mankomunatu izateko, testamentu pluralak ez du eduki espezifikorik behar; eta, haren erregulazioa edo egile sita justifikatzeko, jada ez da beharrezkoa azpimarratzea, benetan mankomunatu izateko, testamentuak elkarrekikotasun-xedapenak bildu behar dituela edo, nolabait, egilesten dutenen arteko bateratzea adierazten duten xedapenak gorde behar dituela, orain arte, halabeharrez, ezkontideak edo bikotekide inskribatuak besterik izan ez daitezkeenak. Behin instituzioa normalizatu eta haien arteko bizikidetasunik edo ahaidetasunik gabeko testamentugileei ireki ondoren, *mortis causa* oinordetzaren eremuan askatasun zibilaren printzipioaren garapen natural gisa agertzen da testamentu mankomunatu.

Oinariaren bigarren zatiak beste hipotesi bat erantzun nahi du; alegia, testamentua egilesten dutenek testamentua erabili nahi izatea komisarioa izendatzeko, eskusiboki edo ez, edota jada izendatutako komisario bati argibideak emateko. Hala, ondarezko xedapenik jasotzen ez duen testamentu mankomunatu komisarioa izendatzeko nahikoa delako azpimarratu nahi izan da, eta, modu horretan, puntu honetan pertsona bakar batek egingadako testamentuarekin sortu izan diren zalantzak argitu dira; betiere, kontuan izanik komisarioaren izendapena ondarezko *mortis causa* xedapenetik urrun dagoela, benetan hark hori ahalbidetzen eta baldintzatzen duela jakinik ere. Hain zuzen, ondarezko xedapenarekin zerikusirik ez duen izaera teoriko hori berriz agertzen

da oinarri hauetan, testamentuaren elkarrekiko edukia zein den finkatzeko, eta, gainera, horrek erraztuko du komisarioaren izen-dapenarekin lotzen den alde bakarreko errebokazio-ahalmena. Horregatik guztiagatik, ez zaio trabarik jartzen batera egiletsitako testamentu batetik fiduzia sortzeari, nahiz eta testamentu horrek beste ondare-xedapenik izan ez. Fiduziak behar duena testamentuko forma da, ez testamentua bera adiera materialean.

4. Oinarria. **Gaitasuna**

Ermandadeko testamentua baliozkoa izateko, bi testamentugileek emantzipatuta egon behar dute egilesteke momentuan.

Bat datoz: ez dago bat-etortzerik.

Oharrak: ez dago aurrekaririk testamentu mankomunatu egilesteke adin zehatza adierazten duenik. Ondorioz, nahikotzat jotzen da KZko 663.1. artikulua testamentua egilesteke ezartzen duen beharrezko gaitasun orokorra; alegia, hamalau urtekoei onartzen diena, sexu batekoei zein bestekoei.

Hala ere, gogoratu behar da adin-muga horren eta aurretiazko dispensapean baliozko ezkontza ahalbidetzen duenaren artean dagoen sinkronizazioa (KZ 48.II. art.); lotura nabarmena da Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen ordenamenduan, testamentu mankomunatu egitea ezkontideei edo bikote inskribatuei besterik baimentzen ez diena. Beraz, testamentu bateratua testamentugileen arteko loturatik kanpo egiten bada, ez da beharrezkoa gaitasunari buruzko paralelismo zaharrari eustea.

Beste alde batetik, ezin daiteke ahaztu testamentua egilesteke adin-muga orokorra jaistearen aldeko doktrina-arrazoiak ez datozela bat testamentu mankomunatuarekin. Norberaren oinordetza ordenatzeko beste aukerarik ez dagoela argudiatzeak ez du baliorik: dudarik gabe, inork ezin du testamenturik egin testamentu mankomunatu egilesteke galdatzen den gaitasun gehigarria betetzen ez duenaren ordeztu, baina agerikoa da edonork egin dezakeela testamentua, pertsona bakarreko testamentuaren bidez, hamalau urte beteak baditu. Beste horrenbeste gertatzen da ustezko heldutasunik ez duenak egiletsitako testamentuko xedapenen izaera ez-kaltegarrian eta errebozagarrtasun librean eragiten duten hausnarketekin.

Testamentu mankomunatuari dagokionez, izaeraz errebokagarria dela jakinda, nabarmendu da errebokazioa pertsona bakarreko testamentuan baino zailagoa izango dela eta baztertua geratuko dela, elkarrekikotasunaren eremuan, testamentugilekidea hil ondoren. Horregatik, errebokatzeko ahalmena murriztua duen borondatea arduratsuki adierazteko, ez du nahikoa izan behar testamentua egiteko gaitasun orokorrak. Bi testamentugileen emantzipazioa galdatzea arrazoizkotzat jo da, testamentu mankomunatuaren edozein modalitatetan. Hala ere, nabarmena da emantzipazioari egiten zaion erreferentzia —fiduziario bidezko ordenazioa agintzeko ere beharrezkoa dena— oinordetza-ituna egilesteko galdatzen denaren azpitik kokatzen dela, errebokatzeko ezintasuna funtsezko elementua baita oinordetza-itunean.

5. Oinarria. **Egoera pertsonala**

Euskal auzotasun zibila dutenek testamentu mankomunatu egiletsi ahal izango dute, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo badaude ere.

Testamentu mankomunatu egin ahal izango dute, halaber, beren autonomia-erkidegoan edo handik kanpo, beste kausatzailer batekin batera, baldin eta haren lege pertsonalak halakorik debekatzen ez badio.

Bat datoz: NF 200. legea; ArOL 102. art.; GZZL 188. art.; EZAA 24.2 *in fine* art.

Oharrak: lurraldez kanpokotasuna testamentugilearen lege pertsonalak araututako jarduera izatearen ezinbesteko ondorioa da; baimena ematen duen beste estatutu pertsonal batekiko osagarritasuna, berriz, beste ordenamenduekiko berdintasunaren adierazle da, autonomia-erkidegokoak zein estatukoak izan, espainiarrak izan edo ez izan. Lehenengo zehaztapena komuna da testamentu mankomunatu arautzen duten ordenamendu autonomikoetan; lege pertsonal jakin batzuekin lotuta dauden testamentugileen bateratzea, aldiz, Aragoiko araudiak besterik ez du aurreikusten (ArOL 102.2. art.).

Testamentua egitea, bakarkakoa edo mankomunatu, ez da forma-kontu soila, *mortis causa* xedapenaren muinari baitagokio. Doktrina-iritzien gehiengoak eremu substantiboan kokatzen dute, bai testamentugilearen gaitasunari eragiten diolako, bai norbera-

ren oinordetza ordenatzeko tresnei dagokielako. Azken ildo hori gailentzen da, ez baita posible testamentua egitea bera gaitasun-kontu batera mugatzea. Abiapuntua finkatuta (sakoneko kontua edo elementu substantiboa), kokapen horrek nahitaez garamatza parte-hartzaileen lege pertsonala aukeratzera, bien bateratzeak sorrarazten dituen planteamendu gatazkatsuak konpontzeko, eta, gai horretan, testamentugileen lege nazionala eta auzotasun zibila kontuan hartzeko beharra dago (KZ 9.8 eta 16.1 art.); alegia, kontuan hartu behar dira beste oinordetza-estatutu baten pean dagoen norbaitekin testamentu mankomunatua egitea ahalbidetzen edo debekatzen duten elementu baldintzatzaileak.

Erregulazio autonomiko berriaren arabera, euskal auzotasun zibila duenak testamentu mankomunatua egin ahal izango du aukera hori jasotzen duten lurraldeetako auzokideekin (nazionalak izan edo ez izan). Egilesteko aukerak ez ditu konpontzen baliozkotasuna finkatzen duten beste hainbat kontu, testamentuaren formari edo edukiari buruz. Hala, eta, hurbiletik begiratuz, oinarri hauetan ez da finkatzen —eta, ziur asko, ezingo litzateke halakorik egin Konstituzioa errespetatuz— ea Euskal Autonomia Erkidegorako aurreikusten den testamentu forma bete behar den nahitaez —notario aurreko testamentu irekia—, testamentu mankomunatua Nafarroako, Aragoiko edo Galiziako auzotasun zibila duen batekin eginez gero. Izan ere, ezin da ordezkatu Nafarroako eta Aragoiko araudiek ezartzen dutenarekin (Galiziakoak bat egiten du). Lurralde arteko aldibereko testamentua zer araudiren arabera errebokatatu ahal izango den ere zehazteko kezkarik ez da ageri.

Egia esan, negozioia arautuko duen erregulazioa zein izango den argitzeko, Kode Zibilak eskaintzen dituen irizpideak gainditu eta baztertu egin dira 1961eko abenduaren 5eko Hagako Itunaz geroztik (testamentuzko formei buruzko ituna, EAO 1988-08-17). Itun horretan, *favor testamenti* printzipioa gailentzen da, zeinetatik eratortzen den ia baldintzarik gabeko baliozkotasuna duela auzotasun bat baino gehiago tartean dituen testamentuak; betiere, nahikoa izango baita kausatzaileetako batekin loturaren bat duen barne-araudiak ezartzen dituen formaltasunak betetzea (1. eta 4. art.). Ideia horrek berak indarririk gabe utzi behar litzuke aldaketari eta errebokazio bateratuari jarri zaizkion formazko trabak; eta, alde bakarreko errebokazioari dagokionez, nahikotzat eman behar lirateke errebokazioa aurrera daraman testamentugilearen lege pertsonalak ezartzen duen araudia edota egilestea bera arautu zuen erregulazioa (2. art.).

6. Oinarria. **Forma**

Testamentu mankomunatuak forma irekia jaso beharko du, eta notarioaren aurrean egiletsi beharko da nahitaez.

Bat datoz: FZZL 49.II eta 173. art.; NF 199.II Legea; ArOL 94., 95. eta 96. art.; GZZL 189. art.; EZAA 24.2 hasiera art.

Oharrak: Gipuzkoako Foruak dioena hitzez hitz jasoz, testamentu mankomunatuaren baliozkotasun-betekizuntzat hartzen da notario aurrean egilestea, forma irekiarekin. Ermandadeko testamentuaren tinkotasuna eta egiatasuna koherentea da ondorengo errebotkatze-ahalmen zabalarekin; alde bakarrekoa deanean, notarioaren bidez jakinarazi behar zaio testamentugilekideari.

Testamentu mankomunatu egilesteko bete beharreko formari dagokionez, askatasun maximoa eskaintzen duten irizpideak lehenestea da aukera bat, testamentugileen eskura uzteraino testamentua bakarka egiteko aurreikusitako forma oro. Horixe da Nafarroako ordenamenduaren hautua, forma olografoa bakarrik baztertzen duena (NF 199. legea), eta Aragoikoarena, legeak onartutako edozein forma baimentzen duena —arrunta, berezia edo ezohikoa—. Aragoikoak, betiere, borondate-aniztasunaren adierazpenarekin bateragarria izatea galdatzen du, eta ohartzatzen du, Nafarroako legeak bezala, nahikoa izango dela testamentugilekideetako batek betetzea formari buruz galdatzen diren betekizun bereziak (ArOL 94. art.). Egun indarrean dagoen euskal legeak bestelako soluziobideak eskaintzen ditu, nabarmen tinkoak: guztiz edo partzialki Bizkaiko Foruaren pean daudenek testamentu irekia edo itxia aukeratu dezakete, notario aurrean eginez gero (FZZLko 49.II. art.); Gipuzkoako Foruan, berriz —Galiziako erregulazioan bezala—, notario aurreko forma irekia aukeratu behar da nahitaez (GZZLko 189. art. eta FZZLko 173. art.).

7. Oinarria. **Edukia**

Batera egiletsitako testamentuak bil ditzake elkarri egitako liberaltasunak, bakarrik ala hirugarren baten aldeko xedapenekin batera. Hirugarrenak izenda daitezke aurrez hiltzen denaren oinordeko eta bizirik denaren ordeko.

Bat datoz: NF 203 *in fine* legea; ArOL 91.3 eta 104. art.; GZZL 187.2 art.; EAAZ 25. art.

Oharrak: edukiari dagokionez, ohartarazi behar da testamengtugilearen xedapenerako eremu materiala ez dela aldatzen beraren azken borondatea bakarrik edo beste norbaitekin adierazteagatik. Beraz, puntu horretan, kausatzaileak egin dezakeen testamentu mankomunatua eta bakarkakoa berdinak dira. Hala ere, bi borondatek bat egitearekin, garrantzia irabaz dezakete zenbait elkartzek edo korrelaziok, eta sailkapen-irizpide erabilgarriak eskain ditzakete; betiere, mankomunitatearen muinera itzultzeko erabiltzen ez badira edukia zehazteko aitzakiapean, gai horri buruzko lehenengo oinarrian finkatutako instrumentu-batasun soila gaindituz.

Beraz, testamentu mankomunatua bakarkako xedapen isolatuz jositako daiteke, pertsona bakarreko testamentua balitz bezala. Kasu horretan, aldibereko testamentu mankomunatu soil baten aurrean geundeko, egilesten dutenen arteko elkarrekikotasuna falta izango litzatekeelako. Hala ere, oro har, testamentu mankomunatuak elkarrekikotasun-xedapenak izaten ditu bere baitan. Hala gertatzen denean, testamentu mankomunatua izan daiteke: *elkarrekikoa*, egilesten dutenek elkarrekiko mesedetan xedatu nahi dutenean; *bateratua*, egilesten dutenen xedapenek onuradun gisa hirugarren jakin batzuk aukeratzen dituztenean, eta *mistoa*, bi motetako xedapenak biltzen dituztenean.

Horregatik, 7. oinarriak jakintzat ematen du mankomunitatea instrumentu-batasun soila dela, eta oinordetzaren ordenazioari dagokion *eduki naturalari* egiten dio erreferentzia. Bestalde, nabarmentzen du testamentu mankomunatua elkarri egindako libe-raltasunekin edota hirugarrenaren aldeko atribuzioekin osa daitekeela, bi motetako xedapenak batera agertzeko aukera baztertu gabe, bai ondasunak xedatzeko, bai ondasun berberei *ordo successivus* bat zehazteko.

8. Oinarria. **Elkarrekikotasuna**

Bata bestearekiko elkarrekikoak izango dira testamengtugilekidearen xedapenetan kausa duten ondarezko testamentu bidezko klausulak, egileari nahiz hirugarren bati mesede egiteko helburua badute ere. Elkarrekiko loturarik dagoenik ez da uste, baina egiaztatu ahal izango da testamengtugileek inplizituki ezarri zutela.

Testamentu bidezko xedapen mankomunatu baten deuseztasunak edo deuseztatzeak testamentu berean elkarrekikoa den beste edozein xedapenen eraginkortasun eza dakar. Hala ere, hasieratik baliozkoa den xedapen batetik eratorritako eraginkortasun ezak ez dakar elkarrekikoaren eraginkortasun eza; nolana ere, elkarrekikoak elkarrekiko izateari utziko dio.

Bat datoz: FFZL 176. eta 177. art.; NF 201., 202. eta 204. *in fine* legeak; ArOL 105. art.; GZZL 187.2.II art.

Oharrak: jakina denez eta komeni denez azpimarratzea, aurrez arrotzei irekitako testamentu mankomunatua dakarren testuinguru batean, elkarrekikotasuna —testamentugile bakoitzak eginiko atribuzioen arteko konexio gisa ulertua— instituzioaren muina da; oinordetza-itunarekin mugan dagoen testamentuzko eremua, alegia.

Elkarrekikotasun-xedapenetan datzanez errebokatzeko ahalmen askearen oztopoa, haien eremua murriztea komeni dela iritziz da. Hori da jarraikako murrizketaren arrazoia. Lehenik, lotura ondarezko edukia besterik ez duten xedapenetara mugatu da; atzera egite horrek loturarik gabe uzten ditu beste oinordetza- edo familia-izendapenak; tutorearena eta komisarioarena, kasurako. Gero, xedapenezko eremu horretan elkarrekikotasunaren aldeko presuntzio orokorrari uko egin zaio, alde bakarreko errebokazioa gauzatzearen kausatzailearen autonomiari joko gehiago ematen dion bariazioa.

Ez da heltzen, ordea, Aragoiko ordenamenduak ezartzen duen exijentziara, hots, «bi testamentugileek adieraztea borondatea testamentu edo oinordetza-itun berean»; lege horretatik hurbil dagoen doktrinaren arabera, elkarrekiko esanbidezko adierazpena eskatzen ez duen araua nahikoa da, esaten den bezala, interkonexio hori testamentugileen borondateari dagokiola *deduzitza*. Horrenbestez, gure oinarrian, batetik, presuntzioa baztertu da, errebokatzeko ahalmen orekatu bati kalte egiten baitio, eta, bestetik, klausula bakoitzaren elkarrekikotasuna bi elementuren mende jarri da: bi testamentugileek, oinordetza ordenatzeko egintza berean edo ondorengo batean, zuzenean adierazitako borondatearen mende, edo elkarrekikotasuna alegatzen duenak zentzu horretan borondate komuna eta inplizitua dagoela frogatzearen mende.

Aragoiko legeak bigarren atal bat gehitu dio aruari, klausula baten eraginkortasun ezak bere elkarrekikoan izan dezakeen

ondorioa jorrazteko. Aurreikuspen hori oinarri honetan jasotzea komeni dela iritzi da. Aurrekari horri jarraituz, nahitaezkoa da klausuletako bati eragiten dion deuseztasuna edo deuseztatzea jakinaraztea, haren konfigurazioan bertan baldin badago hartarako arrazoia. Aldiz, ez dira aipatu xedatzeko borondatearen porrota lekarketen beste kausa batzuk. Zehazki, hasieratik baliozkoak eta gerora eraginik gabekoak diren xedapenetan, elkarrekikoaren deskonexioa hobetsi da, baita baldintza betetzen ez denean, hirugarren onuraduna aurrez hiltzen denean, edo hirugarren onuradunak uko egiten duenean ere.

9. Oinarria. **Egileetako bat hiltzea**

Testamentugileetako bat hiltzean, haren oinordetzari ekingo zaio, eta haren ordenazioari dagozkion xedapenak eraginkorrak izango dira. Notarioak hila den kausatzaileak egindako testamentu mankomunatuaren kopia helaraziko dio oinordetza horretan interesa duela egiaztatzen duenari; beste testamentugilearen oinordetzari bakarrik eragiten dioten xedapenak salbuetsi dira.

Bat datoz: ArOL 103. art.; GZZL 195. art.; EZAA 29. art.

Oharrak: indarrean dauden euskal foruetan ez dago halako araurik, ezta beste ordenamendu autonomikoetan ere. Pertsona bakarreko testamentuan zaintzea beharrezkoa ez den alderdi bati erreparatzen dio: testamentugilearen erreserba edo diskrezioa. Testamentu mankomunatuan, berriz, bizirik denaren *mortis causa* borondatearen diskrezioa arriskuan dago, horri buruzko publizitatea aurreratu baitaiteke. Arauak bitartekari-lana egin nahi du, irekitako oinordetzan interes zilegia duenaren eta bizirik den testamentugilearen borondatearen erreserbaren artean. Orekagunea lor daiteke hildakoaren oinordetzan interesa duenari *ad hoc* ziurtagiri bat edo kopia partzial bat jasotzeko aukera eskainita, Notario Erregelamenduaren 237. artikulua aurreikusten duen bezala, zeinetan aukera ematen den «bizirik den egilearen xedapen berezi oro ezkutatzeko».

10. Oinarria. **Errebokazio edo aldaketa bateratua**

Testamentu mankomunatua elkarrekin errebokatu edo aldatu ahal izango dute egileek, hori egiteko galdatzen diren formaltasunak betez gero edota biek oinordetza-itun bat sinatuz gero.

Bat datoz: FZZL 50. eta 175. art.; NF 201. legea; ArOL 106.1 art.; GZZL 190. art., EZAA 26. art.

Oharrak: testamentuaren errebokagarritasun naturaletik abiatuta —baita mankomunatua bada ere—, indargabetu nahi den bi egileen borondate berbera eskatzen du arauak, subjektiboki eta formalki. Aurrekoa errebokatzeko, beraz, beharrezkoa da notario aurreko testamentu irekia eta bateratua. Bestalde, kontuan hartuta bi testamentugileak gerora oinordetza-itun baten egile izan daitezkeela, logikoa da testamentu mankomunatua errebokatu ahal izatea itunaren bidez; bide tinkoa hori ere. Ikus daitekeenez, araua ez da asko aldentzen FZZLko 50. artikulua dioenetik, testamentu itxiaren bazterketa alde batera utzita, eta Gipuzkoako Foruan ezarritakoarekin bat dator, hitzez hitz (FZZL 175.1 art.).

11. Oinarria. **Alde bakarreko errebokazioa**

Alde bakarreko aldaketa edo errebokazioa, beste testamentugilea bizi bada, notario aurreko testamentu irekiaren edo oinordetza-itunaren bidez egin beharko da, eta hari modu fede-emailean jakinarazi behar zaio. Jakinarazpena notarioak egingo du, errebokazioa egin eta hurrengo hamar egunetan, errebokatzaileak esandako helbidean, eta, beste helbide bat balitz, baita errebokatutako edo aldatutako testamentuan adierazitako helbidean ere. Hala ere, eragin ditzakeen erantzukizunak kendu gabe, errebokatzaren duen egileak beste egilearen kokapena ezkutatzek edo faltsutzeak, eta galdatutako jakinarazpenik ez egiteak ez dute eraginik izango tinkotasunez egindako errebokazioaren edo aldaketaren efektuetan.

Bat datoz: FZZL 51.I eta 175.2 art.; NF 201. legea; ArOL 106.2, 3. eta 4. art.; GZZL 192.2 eta 3. art.; EZAA 27. art.

Oharrak: oinarriaren lehenengo partean, formazko exigentziak errepikatu dira; bi egileak bizi diren bitartean posible den alde bakarreko jarduerak ere bete behar ditu exigentzia horiek. Itungile baten errebokatzeko nahia eta beste itungileak nahi hori ezagutzeko aukera lotu nahi izan dira. Lotura hori egiteko aukera edo formula guztietatik errebokatzailaren zintzotasuna eta notaritzako profesionalen eraginkortasuna ontzat hartzen dituen aukeratu da, jakinarazpena alde bakarreko aldaketaren edo errebokazioaren efikaziarako baldintza izan gabe. Borondate hori osotzat eta efikaztatzat hartzen da tinkotasunez adierazten denetik. Hortik aurrera, errebokatzen duen egileak beste egilea aurkitzeko ematen duen laguntzak eta notarioak ituna edo testamentua egin direla legez jakinarazteko egin behar duen diligentziak ondorio bakarra ekarriko du: beste egileak ia berehala izatea errebokazioaren edo aldaketaren berri.

Argi dago errebokazioaren edo aldaketaren efikazia eta hura beste egileak ezagutzea lotuta ez agertzeko erabakia ez datorrela bat 3/1992 Legeak ezartzen duenarekin, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foruek argi uzten baitute borondate horren adierazpenak beste egileari jakinaraztea eskatzen duela efikaza izateko (FZZL 51. eta 175.2 art.). Horretarako, ezin ahaztu daiteke oinarri hauek sustatzen duten eskema mankomunatu berria. Pentsa dezagun egungo zurruntasuna ezkontideen (edo bikote inskribatuen) arteko testamentu mankomunatuarekin koherentea dela, baita testamentuaren edukia bertan behera uzteko errebokazio batekin ere, ez baititu aintzat hartzen arauak biltzen dituen klausulen arteko ezberdintasunak (51. art.), eta ondarezko klausula guztietara zabaltzen baitu ustezko elkarrekikotasuna (176. art.). Argi dago blindatze hori gehiegizkoa izango litzatekeela loturarik eta bizikidetasunik gabeko egileak onartzen dituen testamentu mankomunatuan, zeinetan alde bakarreko errebokazioak soilik ezabatzen dituen elkarrekikoak direla adierazi edo frogatu diren klausulak. Bestalde, logikoa da oinarri honek Nafarroako Foruaren 201. legeak ezartzen duenarekin bat ez egitea; izan ere, jakinarazpena efikazia-betekizuntzat hartzen badu ere, bukaeran «ediktu bidezko jakinarazpen» batera murrizten du lege horrek. Kontuan hartu behar da, gainera, Nafarroako errebokazioak beharbada bi pertsonak baino gehiagok egingako testamentu mankomunatu baten gainean jardun dezakeela, eta egileetariko batek aurrera eramandakoa nahikoa izan daitekeela testamentuko xedapen guztiak suntsitzeko.

Horregatik guztiagatik, Aragoiko errebokazio-ereduan bilatu da eredia —gai horretan, Galiziakoaren antzekoa da—, uste

baita borondatearen —baita mankomunatuki adierazitakoaren— izaera anbulatorioari mesede egiten dion hautua dela; alegia, egileen arteko interes-gatazka konpontzeko soluziobidea, autonomia pertsonala berreskuratzean oinarritua.

Oinarri honetatik ez da urruntzen *ex lege* errebokazio bat ez arautzeko erabakia, testamentu mankomunatua ezkontideek edo bikote inskribatuek egin eta gerora haien arteko lotura hautsia denean. Hipotesi hori ez da Bizkaiko Foru Zibilean jasotzen, baina bai Gipuzkoako Foru Zibilean (FZZL 174. art.). Proposamenean alde bakarreko errebokazio-ahalmena malgutzen denez, garrantzia galtzen du egileen ezkontza- edo bizikidetasun-krisialdi bati automatikoki lotutako errebokaziorik ez egoteak. Gainera, testamentugileen ezkontza- edo bizikidetasun-egoerak garrantzirik ez duenez, ez testamentua egiteko unean, ez hura errebokatzera-koan, diskriminazioz jokatzeko ekiditen da, zaila izango bailitzateke ezkontideen eta bikoteen hausturen arteko paraleloa marraztea. Ikus dezagun izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen 18. artikulua, iraungipen erreal horri buruz ari dena, zeinak, aldi berean, beharko lukeen «kausa» zehatza finkatzea (adostasuna, alde bakarreko erabakia, heriotza eta ezkontza), hura aurretiazko testamentu mankomunatuaren efikazia eza eta ondorengo inskripzioaren indargabetzea (IBAL 19. art.) gauzatzeko nahikoa den jakiteko. Agian, ondoriozta daiteke 2003ko legegileak norberaren autonomiaren ahalmena azpimarratu zuela, inongo beharrik gabe errepikatu baitzuen bikotekideek testamentu mankomunatua erreboka dezaketela (IBAL 9.2 art.), Gipuzkoako ezkontzetarako araututakoa bikote inskribatuetara zabaltzeak duen zailtasuna aintzat hartuta (FZZL 174. art.).

12. Oinarria. **Elkarrekikotasun-xedapenen efikazia eza**

Alde bakarreko errebokazioak edo aldaketak beste egileak emandako xedapen batean kausa duen xedapen bati eragiten badio, efikaziarik gabekoak izango dira harekiko elkarrekikoak diren guztiak.

Bat datoz: FZZL 176.I art.; NF 201.IV. legea; ArOL 106.3 art.; EZAA 27. art.

Oharrak: aurreko oinarrian ezarritako errebokazio-askatasunaren oinarri logikoa ateratzea bilatzen da orain. Testamentua

oinarritu zuten zutabeak desagertzean edo aldatzean, eszenatoki zehatz hartan formulatutako xedapenak desaktibatu egiten dira. Gogoratu, hala ere, interkonexioa badagoela frogatzea errebokatzaillea ez den beste egilearen kontura jarri dela, ulertzen delako aukera horrek, ikuspuntu batetik, zalantzasako eremu guztia berreskuratzen duela eta atzera egin nahi duen egilearen errebokatzee-autonomiaren mende jartzen duela. Beste ikuspuntu batetik, alde bakarreko errebokazioak testamentuaren efikaziak orokorrean duen pisua beheratzen du; izan ere, elkarrekikotasuna konprimitua egonik, errebokatzaillea ez den egilearen beste xedapen guztien iraupena zabaltzen da.

13. Oinarria. **Elkarrekikotasun-xedapenak ezin dira aldatu**

Egile bat hiltzen denean, besteak ezingo ditu ez aldatu ez errebokatu bere oinordetzari dagozkion xedapenak, hildakoak emandako xedapenetan balute haien kausa.

Bat datoz: FZZL 177.I art.; NF 202. legea; ArOL 106.3; GZZL 191. art.

Oharrak: oinarri honek eta hurrengoak zehazten dute bizirik den egileari testamentu mankomunatu egin izanak eragin dion loturaren momentua eta irismena. Egile baten heriotzarekin eskuratzen du benetako garrantzia aldi berean eginiko testamentu motak eta haren edukiak. Aldi bereko testamentu soila baldin bada, egile baten heriotzak ez dakarkio behin betiko loturarik besteari; aldiz, lokarria adierazten da elkarrekikoak diren xedapenen guztietan.

Hain zuzen ere, elkarrekikotasunaren eremuan neur daiteke hoberen testamentu mankomunatuak sortzen duen lotura, bai hari kontra egiteari dagokionez (errebokazioa edo aldaketa), bai haren klausulen edukia, albotik eta islaz, gutxitzeari dagokionez (doako xedapena); eta, testuinguru horretan, legezko erregimenak oreka bilatu behar du ondasunen jabe izaten jarraitzen duenaren askatasunaren —haren *post mortem* konpromisoaren izaera anbulatorioa eta sendotasun falta dela eta— eta beste egilearen —eta, batzuetan, onuradunaren— interes zilegiaren artean.

Beste egilearen xedapenekin konektatuak dauden norberaren xedapenak aldatzeko ezintasuna testamentua batera egitearen ondorio orekatua da, eta aldarrikatzen du bi egileek beren xeda-

tzeko boterea eta askatasuna baldintzatu zutela leunki eta inplizituki.

14. Oinarria. **Inplikaturako ondasunak ezin dira doan xedatu**

Testamentuak beste zerbaiz ezartzen ez badu, bizirik denak ezingo ditu doan xedatu elkarrekikotasun-xedapenen objektutzat jo diren ondasunak, ez bada testamentu mankomunatuaren bertan ondasun horien onuradun izendatu den pertsonaren edo pertsonen alde. Bestela, kaltetuak bi urteko epean —xedatzailearen heriotzatik zenbatzen hasita— erreklamatu ahal izango die dohaintza-hartzaileei ondasun horien balio eguneratua.

Bat datoz: FZZL 178. art.; NF 204. legea; ArOL 107. art.; GZZL 194.2 art.; EZAA 29.2 art.

Oharrak: hona hemen testamentu mankomunatuak era naturalean sortzen duen lotura egileetako bat hiltzen denean: bizirik denak gutxitua du bere xedatzeko gaitasuna. Egileetako bat hiltzen denean, besteak elkarrekikotasun-xedapenen eraginetik kanpo dauden ondasunak bakarrik xedatu ahal izango ditu askatasunez, doako tituluz zein kostu bidez. Aldiz, klausula horietan jasotako ondasunei dagokienez, kostu bidez eginiko eskualdaketa subrogazio errealearen printzipioa dela medio konpentsa daiteke, baina, aitzitik, doako tituluz egindakoak norberaren konpromisoa hustea ekarriko luke, eskualdaketa hori testamentuak dioenaren exekuzio aurreratua denean izan ezik, oinarriak ohar-tarazten duen bezala.

Argi dago oinarria Gipuzkoako Foru Zibilak ezartzen duen erregimenarekin bat datorrela (FZZL 178. art.). Hartatik dator erreserbaren izaera xedagarria: bai han, bai hemen, egileen borondatepean geratzen da jarduteko beste aukera batzuk ituntzea. Arau horretatik dator, halaber, bizirik denak egindako doako egintzek iraun dezaketela baldin eta elkarrekikotasun-xedapen baten exekuzioaren aurrerapena badira soilik. Araututakoari kontra egiteak jasotzen duen zigorra eta onuradunek erreklamatzeko duten epea berrikuntzak dira euskal ordenamenduan, eta bat datoz parte batean Aragoiko eta Galiziako erregulazioarekin —lehenago aipatuak—.

Oinordetza-itunak

15. Oinarria. **Kontzeptua**

Kausatzailea bizirik dela, oinordetza-itunaren bidez haren oinordetzari dagozkion eskubideak ezarri, aldatu, iraungi edo uka daitezke. Itungileek beren artean eskubide horiek xeda ditzakete, kausatzailearen baimenarekin.

Bat datoz: FZZL 74. eta 179. art.; NF 172. legea; ArOL 62. art.; KatKZ 431-1; EZAA 100.1 eta 100.2 art.

Oharrak: oinordetza-itunaren kontzeptua bere funtzionaltasunetik abiatuta eraikitzea hobetsi da, ez baita komeni lege-testu batean definizio dogmatikoak jartzea. Orain arte oinordetza-ituna dohaintza-formula batzuekin lotzen zuten presuntzioak alde batera uzteko erabakia ere hartu da, bi figuren arteko nahasmena sortzen dutela kontuan hartuta.

16. Oinarria. **Gaitasuna**

Oinordetza-ituna baliozkoa izan dadin, itungile guztiek adinez nagusiak izan beharko dute.

Bat datoz: NF 173.I legea; ArOL 63. art.; KatKZ 431-4. art.; GZZL 201. art.; EZAA 100.3 art.

Oharrak: kausatzailearen oinordetzaren itun-ordenazioaren dimentsio juridikoarekiko eta oinordetza-ituna arautzen duten ia ordenamendu zibil autonomiko guztien aurreikuspenekiko koherentziari eutsi nahian, erabaki da itungile guztien jarduteko gaitasun osoa eskatzea. Halaber, ez da bereizketarik egin ituna ezkontza-kapitulazioetan egiten den ala ez kontuan hartuta. Kontratuzko izaera duen oinordetza-xedapen baten onuraduna den hirugarrena ez da oinarri honen arauan sartzen, ez baita itungilea, eta beraren aldeko izendapenak testamentu-bokazioaren izaera baitu.

17. Oinarria. **Izaera guztiz pertsonala**

Oinordetza-ituna ezin izango da egin ordezkari baten bidez. Alderdiak ahalorde berezi bat erabili ahal izango dute, baldin eta beren borondatearen eduki osoa jasotzen badu.

Bat datoz: NF 173.II legea; ArOL 64. art.; KatKZ 431-7.3 art.; GZZL 212. art.

Oharrak: kontratuen eremuan, ordezkartzaren fenomenoak erraz onartzen da (KZ 1259. art.); oinordetza-negozioen esparruan, aldiz, debeku orokor bat gailentzen da (KZ 670. art.). Erdibidean dago oinordetza-ituna, eta *nuntiusaren* figura onartzea erabaki da, itungileen borondatearen mezulari edo bozeramaile hutsa baita. Hark parte hartu ahal izateko, aurretiaz ahalorde berezi batek egon behar du, ituna sinatzera etorriko ez den itungilearen borondatea argi jasoko duena.

18. Oinarria. **Forma**

Oinordetza-ituna baliozkoa izateko, eskritura publiko bidez egiletsi behar da.

Bat datoz: FZZL 74. eta 179. art.; NF 174. legea; ArOL 62. art.; KatKZ 431-7.1 art.; GZZL 211. art.; BZZK 72. art.; EZAA 100.4 art.

Oharrak: gure arau-aurrekari guztiek eta oinordetza-ituna erregulatzen duten ordenamendu zibil autonomikoek diotenare-

kin koherentzia mantenduz, erabaki da ituna egilesteko forma publikoa hautatzea, *ad solemnitatem* betekizun gisa. Ezkontza-kapitulazioei dagokienez, ez da beharrezkoa zehaztapenik egitea, galdatzen den forma betetzen baitute.

19. Oinarria. **Edukia**

Oinordetza-itunek itungileen aldeko edonolako mortis causa xedapenak jaso ahal izango dituzte, haietariko baten edo hirugarren baten onuran, titulu unibertsalez edo partikularrez, baita xedapen horien errenuntzia ere; bi kasuetan adosten dituzten baldintza, ordezpen, obligazio eta kargak kontuan hartuta.

Bat datoz: FZZL 74. art.; NF 177.I legea; ArOL 66.1 art.; KatKZ 431-5.1 art.; BZZK 72.2 art.; EZAA 103. art.

Oharrak: beste ordenamendu zibil autonomikoen ildotik eta indarrean dagoen euskal erregulazioarekin bat, arau hau sartzearabaki da, adibide gisa eta oinordetza-itun abstraktu baten ezinbesteko edukia osatzearren, kausatzailearen oinordetzari dagozkion eskubideen izendapenari, uko egiteari edo xedapenari lagundu diezaioketen elementu osagarri batzuk zerrendatu ditzan. Hala, testamentua arautzerakoan eskaintzen den ordenatzeko zabaltasun bera ematen zaie itungileei.

20. Oinarria. **Motak**

Oinordetza-ituna edo itun positiboa deritzo oinordetza-eskubideak itungile baten edo biren alde —elkarrekikoak izan edo ez— edota eskubideok hirugarren baten alde xedatzen dituenari.

Uko egiteko ituna edo itun negatiboa izango da itungile batek kausatzailearen oinordetzan legezkiekeen eskubideei ukatzea adosten duena.

Ituna xedagarria edo hirugarren baten jaraunspenari buruzkoa izango da kausatzailearen oinordetzari dagozkion eskubideak itungileek xedatzea adosten duena, haren baime-narekin.

Bat datoz: ArOL 65. art.; GZZL 209. art.

Oharrak: Beste erregulazio zibil batzuetan aurreikuspen hau arrunta ez bada ere, komeni da zerrendatzea, *ad hoc* arau batean, oinordetza-itun motak, argitze aldera. Oinordetza-itunei dagokienez, gogoratu beharra dago jaraunsearen izendapenak ez duela haien eremu osoa agortzen, posible baita oinordekoa legatu-hartzaile tituluz izendatzea.

21. Oinarria. **Oinordetza-ituna. Kontzeptua**

Oinordetza-ituna izango da oinordetza-izendapen bat biltzen duena, titulu unibertsalez edo partikularrez, bai izendapenak itungile bati edo batzuei mesede egiten dienean, bai izendapenak itungileen artean elkarrekiko izaera duenean, bai hirugarren bati onura dakarkionean.

Izendatuaren baimenak jaraunspena edo legatua onartzea dakar, eta ez dago aukerarik hari uko egiteko, kausatzailea hil ondoren. Hala ere, jaraunse izendatuak inbentario-onura erabili ahal izango du oinordetza irekitakoan.

Hirugarren baten aldeko izendapenari dagokionez, egin-dako xedapenak onartzeak edo haiei uko egiteak testamentuzko bokazioaren izaera izango du, eta hirugarrenaren alde gauzatzen direnean egin beharko da.

Bat datoz: NF 177.I legea; ArOL 65., 70. eta 82. art.; KatKZ 431-18 eta 431-28 art.; GZZL 214. art.

Oharrak: Oinordetza-itun motak zerrendatzen dituen oinarriaren ildotik, erabaki da xedapen orokor honetan jasotzea oinordetza-itunaren muina eta berezitasun subjektiboak. Hura oinordetza-izendapen batera zuzendutako kontratu gisa konfiguratzeko da (jaraunse edo legatutun tituluz), itungile baten edo batzuen aldekoa, edo oinordekoen elkarrekikoa. Kontratuaren egiturari dagozkion *eskaintzak* eta *onarpenak* ordezkatzeko dituzte, testamentuzko eta legezko oinordetzaren dinamikan, *post mortem* delazioa eta onartzea, hirugarren onuraduna itunaren parte ez denean izan ezik, kasu horretan hark jasotako eskubideek testamentuzko bokazioaren izaera izango baitute, eta kausatzaileak hil arte ez baitira gauzatuko. Bestalde, kausatzailea hil eta gero izendatuak inbentario-onura erabiltzeko aukera ezartzen da, ja-

raunspen-ondarea osatzen duten zorren aurrean duen erantzukizuna mugatzeko tresna gisa.

22. Oinarria. **Modalitateak**

Oinordetza-itunek edo itun positiboek izendatuaren alde presenteko ondasunen eskualdaketa jaso dezakete, edota atribuzio hori oinordetza irekitzeko momentura geroratu. Zalantza izanez gero, ondasunen eskualdaketa kausatzailearen heriotzara geroratu dela ulertuko da.

Bat dato: FZZL 181.I art.; NF 177.III, legea; ArOL 71. art.; KatKZ 431-19 art.; GZZL 215. art.; BZZK 73.II art.

Oharrak: itun motak sailkatzeko helburuarekin, halaber, oinordetza-itunaren bi modalitateak oinarri bereizi batean aipatzea erabaki da: presenteko ondare-eskualdaketaekin egiten den ituna, eta ondare-eskualdaketa geroratuarekin egiten den ituna. Bi kasuetan, izendatuak kausatzailearen oinordeko-izendapena jasotzen du, kausatzailea hiltzean irmotasuna lortu arte behin-behineko izaera izango duena. Bi modalitateen arteko ezberdintasuna zera da: izendapen horri dagokion ondasun kopurua eskualdatzea ala geroratzea. Eskualdaketa egiten bada, oinordekoak oinordetza-atribuzioari dagozkion ondasunen titulartasuna ere jasoko du. Itungileek zein modalitate aukeratu duten zalantza egiten bada, geroratutakoaren alde egingo da hautua, ez baitu hainbesteko kargarik izendatzailearentzat.

23. Oinarria. **Izendatua aurrez hiltzea**

Itunak kontrakorik ezartzen ez badu, izendatua izendatzailea baino aurrez hiltzen bada eta ondorengoak utzi baditu, haien alde transmitituko dira itunetik eratorritako eskubide eta betebeharrak, eta, hala badagokio, izendatuak presentez jasotako ondasunak.

Ondorengoak bat baino gehiago badira eta izendatuak lehenago oinordekorik izendatu ez badu, izendatzaileak oinordeko izendatu ahal izango du haietako bat, edota fiduziarioei enkargatu izendapen hori egitea. Izendapen berria eskritura publikoan jaso beharko da nahitaez.

Izendatua izendatzailea baino aurrez hiltzen bada ondorengorik utzi gabe, itunean jasotako oinordetza-izendapena efekturik gabe geratuko da. Hildako onuradunaren ondorean presentez transmitituta dauden ondasunak edo haietan subrogatutakoak izendatzaileari itzuliko zaizkio.

Bat dato: FZZL 83. art.; NF 180. legea; ArOL 72. art.; KatKZ 431-24.1 art.; EZAA 106. art.

Oharrak: ituna perfektionatu ondoren, gerta daiteke izendatua hiltzea, ondorengoak utzita edo utzi gabe. Bi hipotesiak arautzea beharrezkoa dela jo da. Lehenengo kasuan, iritzi da komeni dela kontserbatzea, izendatzailearen lerro zuzeneko ahaideei mugatua bada ere, itunetik eratorritako eskubideen transmisioa, izendatzailea baino lehenago hiltzen den izendatuaren ondorengotzaren alde. Transmisio hori gauzatzen bada eta ondorengo bat baino gehiago badago, izendatuak, izendatzaileak edo fiduziarioak bakarrik aukeratu dezakete onuradun izan daitezkeen guztietatik bat, ondare osoa eta zatiezina transmiti dadin izendatzailearen familian. Izendapen berri hori eskritura publikoan jaso beharko da, halabeharrez. Bigarren hipotesian, oinordetza-ituna arautzen duten beste ordenamendu zibilen ildotik, ondorengorik utzi gabe izendatutakoa aurrez hiltzea ituna suntsitzeko kausatzat hartzen da, eta izendatzaileari itzultzen zaizkio presentez transmititutako ondasunak.

24. Oinarria. **Presenteko eskualdaketarekin batera egindako ituna**

Presenteko ondare-eskualdaketarekin batera egiten den oinordetza-izendapenak jasotako ondasunen behin-behineko titulartasuna ematen dio oinordekoari. Besterik esan ezean, ondasun horiek xedatzeko eta kargatzeko egintza guztiek beharko dute, baliozkoak izateko, izendatzailearen eta izendatuaren baimena. Baimen hori gabe eginiko xedapena deuseztagarria izango da.

Bat dato: FZZL 77. eta 181. art.; NF 179.II legea; ArOL 74. eta 75. art.; KatKZ 431-25 art.; EZAA 107.1 art.

Oharrak: ituna presenteko ondare-eskualdaketarekin batera egitean, izendatuak, behin-behineko oinordekoaren izaera esku-ratzeaz gain, jaraunspen-ondarearen kontura kausatzailea bizirik dela transmititutako ondasunen titulartasuna jasotzen du. Hain zuzen ere, besterik esan ezean, xedapenaren oinordetzazko izaera dela eta, ondasun horiek xedatzeko edo kargatzeko edozein egintzak izendatzailearen eta izendatuaren baimena beharko du — ez du izan behar batera igorria—, deuseztasunaren zigorpean. Erregimen orokorrean ondo azaltzen diren heinean, zorrengatik erantzukizuna ez aipatzea hobetsi da.

25. Oinarria. *Post mortem* ondare-eskualdaketarekin batera egindako ituna

Ituna ondare-eskualdaketa geroratuarekin batera egiten bada, izendatzailea hiltzen denean jasoko du izendatuak bere izendapenari dagokion ondarezko edukia, behin-behineko oinordekoaren izaera ituna egiten denetik eskuratzen duela kendu gabe. Izendatzaileak ondasunen titulartasunari eutsiko dio.

Oinordetza-atribuzioak ondasun zehatzak baditu objektutzat, ondasun horiek xedatzeko egintza orok beharko du izendatzailearen eta izendatuaren baimena. Baimen horiek gabe egindako xedapen egintzak deuseztagarriak izango dira.

Izendatuaren alde eginiko oinordetza-atribuzioak kausatzailearen jaraunspen osoa edo haren zati bat badu objektutzat, hark egiten dituen xedapenak ituna suntsitzeko kausa izango dira, atribuzioaren edukia husten badute.

Bat datoz: FZZL 78. eta 182. art.; NF 179.I legea; ArOL 77. eta 78. art.; KatKZ 431-25 art.; EZAA 105. art.

Oharrak: terminologia-ikuspuntutik, itun positiboaren modalitate hau definitzen da izendatuaren ondarezko asignazioa kausatzailearen heriotzara geroratzen duen akordio gisa, eta ez geroratutako efikazia duen itun gisa — izan ere, itunaren efektuak hura egiten denetik sortzen dira beti (adostua izan bada, epea edo eteteko baldintza betetakoan), nahiz eta presenteko ondare-eskualdaketarik ez gauzatu—. Horixe geroratzen da; ez kontratuaren efikazia bera. *Post mortem* modalitate honetan, izendatzaileak bere ondasunen titulartasunari eusten dio. Izendatuaren

alde eginiko oinordetza-atribuzioak ondasun zehatzak baditu objektutzat, izendatzailearen eta izendatuaren baimena beharrezkoa izango da ondasun horiek xedatzeko, balio gutxiko usuzko opariak egiteko izan ezik. Neurri horrekin, izendatuaren oinordetza izaezari lotutako eskubideen ondarezko osotasuna babestu nahi da, eta haren baimenik ez duten egintzak deuseztagarritzat jo. Aldiz, oinordetza-atribuzioak kausatzailearen jaraunspenaren zati bat badu objektutzat, ez da beharrezkotzat jotzen *inter vivos* xedatzeko askatasuna murriztea, baina ituna suntsitzeko kausa izango dira izendatuaren atribuzioa edukiz husten duten xedapenak. Erregimen orokorrean ondo azaltzen diren heinean, zorren-gatiko erantzukizuna ez aipatzea hobetsi da.

26. Oinarria. **Uko egiteko ituna. Kontzeptua**

Uko egiteko itunaren edo itun negatiboaren bidez, izendatzailearen eta izendatuaren artean adostuko da azken horri kausatzailearen oinordetzatik legezkiokkeen eskubideen ukazioa. Itun horiek oinordetza-eskubide guztiei buruzkoak edo haietariko batzuei buruzkoak izan daitezke; kostu bidez edo doan ezar daitezke, eta baldintzapean jar daitezke.

Bat datoz: NF 172. legea; ArOL 84. eta 177. art.; KatKZ 451-26 art.; GZZL 224. art.; BZZK 50. eta 77. art.

Oharrak: formulazio zabal batekin, itun negatiboak etorkizuneko senipartearen ukoa jasotzeko balio duela adierazi nahi da, oinordetza-itun baten osagarri gisa jardun ala ez. Doan edo kostu bidez, baldintzapean edo ez, euskal erregimenak nahitaezko oinordetzari buruz duen zurruntasuna ezabatzeke edo malgutzeko beharrari erantzuten dio oinordetza-itxaropenei uko egiteko aukerak, nahiz eta hark izaera kolektiboa eduki, batez ere kausatzailearen ondarearen eskualdaketa osoa eta zatiezina bermatzearen, helburu horri begira oinordetza-ituna arautzen duten beste ordenamendu zibil autonomikoen ildotik.

27. Oinarria. **Itunaren errebokazio-efektua**

Kontratuzko oinordetza-xedapenak efekturik gabe uzten du kontrajartzen den testamentuzko xedapena.

Bat datoz: FZZL 75.I eta 183. art.; EZAA 101.1 art.

Oharrak: itunaren alde biko egitura dela medio, itungile bakar batek ezin dezakeenez adostutakoa bertan behera utzi bere borondate soilean oinarrituz, itundutako xedapen orok uzten du efekturik gabe testamentuzko edozein xedapen, bateragarriak ez diren alderdietan.

28. Oinarria. **Aldaketa adostua, errebokazioa eta suntsitzea**

Itunean jasotako oinordetza-izendapena adostasunez aldatzeko edo suntsitzeko, beharrezkoa izango da itungileek beste akordio bat egitea, edo, hala dagokion kasuan, haien oinordekoek beste akordio bat egitea.

Hirugarrenaren aldeko oinordetza-xedapena errebokatu geratuko da, izendatzaile biek eginiko ondorengo testamentu mankomunatu dela medio.

Bat datoz: FZZL 75.II eta 184. art.; NF 182. legea; ArOL 85. art.; KatKZ 431-12 art.; BZZK 74.1 art.; EZAA 101.2 art.

Oharrak: oinordetza-itunaren funtsezko alde bikotasunari erreparatuta, xedapen hau eskaintzen da, halaber, zera zehazteko: adostutakoa aldatzeko edo suntsitzeko (suntsiarazteari buruzko hipotesian, legezko kausak ez diren beste batzuegatik eragin nahi denean), itungileen edo haien oinordekoen artean beste akordio bat egitea galdatuko da. Era berean, komeni da azpimarratzea itungileek badutela ahalmena ondoren egindako testamentu mankomunatuak itunean jasotako hirugarrenaren aldeko oinordetza-izendapena bertan behera uzteko.

29. Oinarria. **Alde bakarreko errebokazioa**

Izendatzaileak itunaren bidez egin den oinordetza-izendapena errebokatu ahal izango du, bere kabuz: a) Espresuki adostutako kausak direla medio; b) Izendatuari ezarritako kargak eta prestazioak ez betetzeagatik, baita hark, bere jarraitzaileekin, itundutako familia-bizikidetasuna oztopatuko balu ere; c) Izendatuak duintasun ezaren edo jaraungabetzearen kausa betetzen badu.

Alde bakarreo errebokazioa dokumentu publikoan jaso beharko da nahitaez, eta beste itungileei era fede-emailean jakinarazi. Jakinarazpena notarioak egingo du, errebokazioa egin eta hurrengo hamar egunetan, egileak esandako helbidean, eta, desberdina bada, baita errebokaturako edo aldatutako itunean jarritako helbidean ere. Hala ere, eragin ditzakeen erantzukizunak kendu gabe, errebokatzeko duen egileak beste egilearen kokapena ezkutatzeko edo faltsutzeko, eta aldatutako jakinarazpenik ez egiteak ez diete eragingo tinkotasunez egindako errebokazioaren efektuei. Errebokazio-eskritura Jabetza Erregistroan sar daiteke, aurretiazko kontratuzko izendapena, ukoa edo xedapena inskribatuak badaude.

Bat datoz: FZZL 79. eta 185. art.; NF 118. legea; ArOL 86. art.; KatKZ 431-13 eta 431-14 art.; EZAA 108. art.

Oharrak: adostutako aldaketaz eta suntsitzeaz aparte, eta euskal arau-aurrekarien zein oinordetza-ituna arautzen duten beste ordenamendu zibil autonomikoen ildotik, erabaki da izendatzailearen eskutik itundutakoaren alde bakarreo errebokazioa ahalbidetuko duten legezko kausa batzuk zerrendatzea, kontratugileek beren beharrianak betetzeko errebokazio-kausa gisa jaso ditzaketenez gain. Hiru dira legezko errebokazio-kausak: izendatuak ezarri zaizkion kargak ez betetzea, izendatuak familia-bizikidetasun normala oztokatzen duen jarrera izatea (hala itundu bada), eta izendatuak duintasun ezaren edo jaraungabetzearen kausa betetzea. Errebokazioa dokumentu publikoan jaso behar da, eta beste itungileei jakinarazi behar zaie. Logikoki, errebokazio hori Jabetza Erregistroan ager daiteke, aurretik kontratuzko izendapena inskribatu bada.

30. Oinarria. **Suntsiaraztea**

Ituna legez suntsiarazteko kausak izango dira: a) Izendapena, ukoa edo xedapena lotzen duen suntsiarazte-baldintza betetzea; b) Izendatua izendatzailea baino lehenago hiltzea ondorengorik utzi gabe edo, utzita ere, haien alde gauzatzen ez bada 23. oinarrrian aurreikusitako transmisioa; c) Izendatzailearen xedapenak, izendatuaren alde eginiko atribuzioa husten dutenak, haien objektua kausatzailearen jaraungaberen zati bat denean eta post mortem ondare-transmisioarekin batera egindako ituna bada.

Bat datoz: FZZL 80. eta 186. art.; NF 182.II legea; ArOL 89. art.; KatKZ 431-17 art.; EZAA 109. art.

Oharrak: Aurreko oinarriaren ildotik, eta suntsiarazte itunduaz aparte, komeni da jasotzea ituna suntsiarazteko zenbait legezko kausa, funtsezko izaera dutela aurreikusten baita: oinordetza-izendapena lotzen duen suntsiarazte-baldintza betetzea; izendatua aurrez hiltzea ondorengorik utzi gabe edo, utzita ere, haien alde transmisio-eskubidea gauzaten ez bada; eta, azkenik, ondare-transmisio geroratuarekin batera egiten den itunaren testuinguruan, izendatuaren alde eginiko oinordetza-izendapena husteko asmoa duten izendatzailearen xedapenak, beren objektua kausatzailearen jaraunspenaren zati bat denean.

31. Oinarria. **Atzera-itzultzea**

Itunean jasotako oinordetza-izendapenak efikazia gal-tzen duen kasu guztietan, izendatzaileari itzuliko zaizkio izendatuari presentez transmititutako ondasunak, izendatua kontserbatzen baditu edo, bestela, subrogatuak itzuliko zaizkio.

Bat datoz: FZZL 83.II art.; NF 116. legea; ArOL 87. art.; KatKZ 431-16 eta 431-27 art.

Oharrak: itunaren efikazia ezaren ondorioz, hura sorrazten duen kausa zein izan den kontuan hartu gabe, izendatua presenteko ondare-transmisio bat jaso badu, izendatzaileari itzuli beharko zaio. Izendatuari izendatzailearen jaraunspenaren kontura eginiko eskualdaketa bere alde eginiko oinordetza-izendapenaren mende dago erabat. Izendapenak efikazia galtzen badu, atribuzioak ere efikazia galduko du.

32. Oinarria. **Kontratuzko oinordetza-xedapenekin lotutako efektuak**

Kontratuzko oinordetza-xedapen baten efikazia ezak dokumentu berean dauden eta xedapen horretan kausa dutenen efikazia eza dakar.

Bat datoz: ArOL 88. art.

Oharrak: ikuspuntu sistematiko batetik begiratuta eta itunean adostutakoaren barne-koherentzia gordetzarren, ituna osatzen duten klausulak *osotasun* gisa hartuta, komeni da zehaztea kontratuzko xedapen baten efikazia ezak kontratu berean dauden efikazia eza ekarriko duela; betiere, elkarrekiko baldintzatuak badaude. Kontrakorik esan ezean, autonomoki mantentzekin klausulek itunean iraungo dute.

Oinordetza-fiduzia edo komisario bidezko ordenazioa

33. Oinarria. **Kontzeptua**

Kausatzaileak fiduziario edo komisario bati edo gehiagori egin diezaieke, bera hiltzean, bere oinordetza ordenatzeko enkargua. Enkargu horren betekizuna izango da kausatzaileak adieraztea zer pertsona taldetan egin beharko den ordenazioa edo, adierazpen horren faltan, hark nahitaez oinordekoak uztea.

Ezin izango da komisario izendatu ordenazioaren objektu izango den pertsona taldeko inor.

Figura horren kontzeptua sortzean ez zaio testamentuari erreferentziarik egingo.

Bat datoz: FZZL 32., 164., 140. eta 141. art.; KZ 831. art.; ArOL 124. art.; KatKZ 424-1 eta 424-5 art.; GZZL 196. eta 197. art.; BZZK 18. eta 71. art.; EZAA 30. art.

Oharrak: norberaren oinordetzaren ordenazioa beste pertsona batzuen ardurapean uzteko aukera onartuta, eta, kontuan hartuta adierazpen orokor horrek ez duela behartzen komisarioari utzitako beste zeregin zehatz posibleak aipatzea, Gipuzkoako erregimenak ezartzen duen moduan, inposatzen da aurretik mugatutako eremu batean egitea enkargua komisarioak. Mugatze horrek ez du zailtzen figura horrekin lortu nahi diren helburuak lortzea, eta kausatzaileak bere oinordetza ordenatzean duen eran-

tzukizunaren ondorio logikoa da. Muga hori ez ezartzea posible da kausatzaileak nahitaezko oinordekoak utzi baditu soilik, kasu horretan legea baita isilbidezko borondatea esplizitu bihurtzen duena.

Instituzioaren iturria eta haren ohiko praktika familiartekoa bada ere, figuraren kontzeptua sortzerakoan ez da ezaugarri hori kontuan hartu, Bizkaiko zuzenbidean egin den moduan. Horrenbestez, edozein pertsona izenda daiteke komisario, eta, seniparteei zein tronkalitateari buruzko arauak errespetatuz gero, kausatzaileak izendatutako subjektuen arteko edozeinen alde egin ahal izango da ordenazioa.

Aspalditik eztabaidatu izan da oinordeko bat komisario izateko aukera. Gai horretan, hiru egoera aipatu behar dira: ea komisario izan daitekeen jada kausatzaileak jaraunsle edo legatutun izendatu duen pertsona bat; ea posiblea den kausatzaileak komisarioari baimena ematea hark *bere burua oinordeko izendatzeko*; edota ea aukerarik badagoen horretarako baimenik ez duen komisarioak bere burua oinordeko izendatzeko. Lehenengo galderak baiezko erantzuna jasotzen du, baina beste biek kontrakoa gertatzen da. Taldea zehaztua geratzeko exijentziak oztopatzen du komisarioak muga falta hori erabiltzea bere buruari mesede egiteko. Komeni da, halaber, baztertzea kausatzaileak komisarioa oinordeko posibleen taldean sartzea; hala, bere buruaren aldeko izendapena egitea errazten da, modu horretan sorrarazitako interes-gatazka ez bailitzateke bateragarria instituzioaren helburuekin.

Instituzio horri Bizkaiko zuzenbidean *komisario bidezko testamentua* esan bazaio ere, izendapen hori ekidin egin beharko litzateke.

Horretarako arrazoi nabarmena: oinordetza-zikloa testamentu-fenomenoak parte hartu gabe garatu daiteke. Baina, gainera, aipatutako izendapen horrek ordezkartzaren ideia dakarkigunez, ez da egokia komisarioak ordenazioa testamentuan egiten duela adierazteko ere (ikus 47. oinarriari eginiko oharrak).

34. Oinarria. **Gaitasuna**

Enkargua baliozkoa izateko, kausatzaileak emantzipatua egon beharko du hura egiteko orduan.

Bestalde, komisarioak adinez nagusia izan beharko du oinordetza irekitzen denean.

Bat datoz: FZZL 34. art.; ArOL 124. eta 125. art.; NF 284. legea; KatKZ 424-6.1.b art.; EZAA 32.1 art.

Oharrak: beharrezkoa da arau zehatz bat ezartzea oinordetzaren ordenazioa delegatzeko gaitasunari buruz, ekidin nahi baita gaitasun hori finkatzea komisarioa izendatzeko erabiltzen den negozioak eskatzen duen gaitasuna erabiliz (izan ere, ahalordea eskritura publikoan jasotako alde bakarreko adierazpenaren bidez ematen den kasuetan ez litzateke halako eredurik egongo). Emantzipazioaren irizpideak erdibideko hautua dakar, *bere oinordetza ordenatzen duen kausatzaileari* testamentua egiteko eskatzen zaion gaitasunaren eta adin-nagusitasunaren artekoa. Emantzipazioa justifikatzen duen heldutasun gehigarri hori ziurtatuta, adin nagusiaren marratik jaisteak ahalbidetuko luke, ordea, etorkizuneko datuen falta nabaritu eta ordenazioa beste norbaiten ardurapean utzi nahiago duten pertsonen interesa jasotzea, beren gaztetasuna dela eta.

Komisarioaren gaitasunari dagokionez, karguaren ezaugarri bereziak direla-eta adin-nagusitasuna galdatzea inposatzen da. Exijentzia hori oinordetza irekitakoan gauzatuko da. Adingabeak komisario izendatu ahal izango dira; betiere, adin-nagusitasuna eskuratzen badute kausatzailea hiltzean. Modu horretan ziurtatzen da komisarioa karguari atxikitako betebeharrak betetzeko prest dagoela oinordetza irekitakoan, eta ziurgabetasunezko *tarte hilak* ekiditen dira. Bestalde, gaitasunaren betekizuna ahalordea egikaritzeko momentura ez eramatea irizpide logikoena da konfiantzan oinarritutako instituzio batean.

35. Oinarria. **Enkargua formalizatzea**

Komisarioaren izendapena, batetik, eta oinordetzaren ordenazioari, ondarearen administrazioari edo hura osatzen duten ondasun zein eskubideak xedatzeari buruz kausatzaileak eman ditzakeen argibideak, bestetik, mortis causa egintza batean edo eskritura publiko sinplean jaso beharko dira.

Bat datoz: FZZL 33. eta 165. art.; KZ 831. art.; ArOL 127. art.; NF 281. legea; GZZL 197. art.; BZZK 71. art.; EZAA 31. art.

Oharrak: zentzu zabalean oinordetza ordenatzeko egintza bat dela esan daitekeenez, egokia suertatzen da enkargua testamentuan edo oinordetza-itunean jasota egon ahal izatea. Baina posible da enkargua eskritura publikoan jasotako adierazpen bidez egitea; tresna egokiena da hori, kausatzaileak bere oinordetzari buruz beste xedapenik egiten ez duen kasuetan. Eskritura publiko *sinplean* egindako izendapen horri ez zaio egintza *inter vivos* izena eman. Kalifikazio hori erabili ahal izango litzateke testamentua ez den egintza bat dela adierazteko (jakina, oinordetza-ituna izan gabe), baina, beharrezkoa ez denez, nahiago izan da benetan *mortis causa* den egintza bati *inter vivos* kalifikazioa ez ematea.

36. Oinarria. **Enkargua errebokatzea**

Enkargua errebokatu ahal izango da hura formalizatzeko erabili den tresna zein den kontuan hartu gabe. Errebokazioa mortis causa egintza batean edo eskritura publiko sinplean egin ahal izango da.

Beste komisario bat izendatzeak errebokazio-efektuak izango ditu, komisario berriaren izendapena ez bada lehenengo izendatuari egindako enkarguan sartu ez den jaraunspen-ondarearen zatitari buruzkoa edota kausatzaileak nahi ez badu biek elkarrekin jardutea, era mankomunatuan, solidarioan edo elkarren jarraian.

Kausatzaileak mortis causa xedatzen badu jaraunspen-ondarearen zati bat, zati horrekiko enkarguak ez du efekturik izango, kausatzaileak prebentzioz egin ez badu.

Bat datoz: FZZL 48.8 eta 171.8 art.; KZ 737., 739. eta 740. art.; ArOL 128. art.; GZZL 202.2 art.

Oharrak: komisarioa izendatzea beti da alde bakarreko egintza bat; horregatik, alde bakarreko *mortis causa* xedapenen errebokagarritasuna oinarrizten duten arrazoiak —konfiantzan errotutako instituzioa izatea ere gehituta— aplikagarriak dira hemen ere. Aldebakarrekotasun horrek errebokazio-efektuetarako garrantzirik gabe uzten du enkargua egitea aldebiko egitura duten negozioak erabiliz; oinordetza-ituna edo ezkontza-kapitulazioak, esaterako.

37. Oinarria. **Karguaren ezaugarriak**

Komisarioaren karguari uko egin ahalko zaio, hura onartu edo zati batean egikaritu bada ere. Baina arrazoi bidezko bat adierazi gabe kargua ez onartzeak kausatzaileak hari, kargua dela eta, utzitako guztia galtzea ekarriko du.

Ulertuko da izendatuak karguari uko egiten diola, edozein oinordeko posiblek, administratzaileak edo beste komisario batzuek notario edo judizio bidez eginiko errekerimendua jaso eta bi hilabetera onartzen ez badu.

Kausatzaileak besterik esaten ez badu, kargua doakoa izango da.

Nolanahi ere, komisarioaren kargua guztiz pertsonala izango da.

Bat datoz: FZZL 39., 48.5, 142. eta 171.5 art.; KZ 898., 899. eta 900. art.; ArOL 125.3 eta 147.d art.; NF 282. legea; KatKZ 424-6.1.c. art.; BZZK 19.I art.; EZAA 36. art.

Oharrak: uko egitean arrazoi bidezko bat ez adierazteak ez dio ukazio horri efekturik kentzen; karguarengatik izendatu denari emandako oinordetza-irabaziak galtzea besterik ez dakar. Bestalde, kargua errenuntziatzeko modukoa izateak ez du kentzen komisarioaren jarrera erruduntzat hartzea, hari objektiboki egotzi badakizkioko eragin diren kalteak.

Onarpenarekin zalantza egin bada, edota halakorik egon ez eta ondorengo uko egiteari buruzko zalantza sortzen bada, komeni da errekerimendu-sistema bat eskaintzea, Aragoiko zuzenbidean egiten den bezala, ukotzat joko baita hari ez erantzutea. Erantzuna positiboa bada, onarpentzat joko da, edota jada adierazitako onarpena berretsia dela ebatziko da (aurreko onarpena garrantzitsua izan daiteke betebeharr juridiko baten existentzia finkatzeko orduan, horrek edonolako pisurik balu).

Egungo FZZLko 39. artikuluaaren literaltasunak eragiten dituen zalantzak gaindituz, argi ezartzen da komisarioaren kargua doakoa dela naturalki, baina ez esentzialki. Bestalde, aurrekariekin eta irizpide orokorrekarekin koherentzia mantenduz, karguaren ukaezintasun guztiz pertsonala adierazten da. Pertsonalismo horrek komisarioak oinordetza-izendapenak egiteko duen ahalmena ukitzen du, baina albacea eta kontatzaile-partitzailea izenda daitetzeke.

38. Oinarria. **Komisario-aniztasuna**

Komisario bat baino gehiago izendatu ahal izango da, bakarka, era mankomunatuan, era solidarioan edo batako bestearen ondoren jarduteko.

Jarduera mankomunatuan, besterik ezarri ezean, erabakiak gehiengoz hartuko dira; berdinketa izanez gero, lehenengo izendatutako komisarioak bozka erabakigarria izango du. Gehiengoa kalkulatzeko, uko egin ez duten komisarioak hartuko dira aintzat.

Komisario bat baino gehiago izendatu bada era mankomunatuan edo solidarioan aritzeko, eta kargua haietariko batekiko efikazia gabea bada edo iraingitzen bada, bizirik iraugo du, besteekiko kausatzaileak kontrakorik ezarri ez badu.

Bat datoz: FZZL 32. eta 39.I art.; KZ 894. eta 895. art.; ArOL 145. eta 148.2 art.; NF 281. eta 283. legeak; EZAA 40. art.

Oharrak: komisario-aniztasuna badago, uste da aldi berean jardun behar dutela, kausatzaileak adierazpenik egin ez badu ezin baitaiteke deduzitu haien arteko banaketarik, ezta izendapen batzuen efikazia geroratzea ere. Bestalde, mankomunitatearen eta solidaritatearen artean aukeratu behar izatekotan, bigarren hautua izango da ordezeko irizpide, eta kausatzaileak ezarritakoa errespetatuko da.

Funtzionamendu mankomunatuarekin erlazionatutako arazoak ez dira araudiaren ikuspuntutik konpontzen errazak. Gehiengoaren bidezko erabakien irizpidea onartuta, Bizkaiko Foruari jarraituz, gehiengo hori kalkulatzeko erreferentzia jasotzen da.

39. Oinarria. **Epea**

Enkargua betetzeko epea kausatzaileak ezarritakoa izango da. Mugagabea izan daiteke epe hori, komisarioak enkarguaren objektu den jaraunspen-ondarearen bihurtzeko usufektua ere baldin badu.

Kausatzaileak eperik zehazten ez badu, enkargua oinordetza ireki eta bi urteko epean exekutatu behar da, orduan izendatu posible guztiak adinez nagusiak edo emantzipatuak

*badira. Hala ez bada, guztiek adin-nagusitasuna edo eman-
tzipazioa eskuratzen dutenetik aurrera kontatuko da epea.
Irizpide berari jarraituko zaio kausatzaileak ezarritako epea
kontatzen hasteko.*

*Epearen luzapen judiziala eskatu ahal izango da. Luza-
pena, gehienez jota, aurreko epea iraungitzen denetik konta-
tzen hasita, beste bi urtekoa izango da, eta, gainera, kausa
bidezko bat izan beharko du oinarrian.*

*Interes zilegia duen edozein pertsonak eskatu ahalko
dio aginte judizialari ezarritako epea murriztea. Murrizketa
onartuko da murrizketa justifikatzen duen kausa bidezkorik
badago soilik.*

Bat datoz: FZZL 44. eta 169. art.; KZ 831.1.II art.; ArOL 129., 130., 131. eta 132. art.; KatKZ 424-9 art.; GZZL 199. art.; EZAA 32.3 *in fine*, 41. eta 44. art.

Oharrak: kontuan hartuta hipotesi arruntena dela kausatzai-
leak berak epea ezartzea, adierazten da komisarioak biziarteko
usufruktua izatearekin lotzen dela epe hori mugagabea izatea;
izan ere, oinordetzaren ordenazioan halako atzerapena justi-
fika dezakeen arrazoi bakarra izan daitekeela uste da. Hala ere,
egungo Bizkaiko erregimenean ez bezala, epea mugagabea izate-
a ez da komisarioa ezkontidea izatearekin lotzen. Muga ho-
rrek zentzua izango du komisarioa izenda badaiteke nahitaezko
oinordekoak daudenean bakarrik, baina ez da hori figuraren di-
seinu instituzionala. Beste kontu bat da, nahitaezko oinordekoak
badaude eta komisarioa ezkontidea ez bada, epe mugagabeak
(egiazki, gehiegizko edozein epek, justifikatua ez badago) nahi-
taezko oinordetza-eskubideen ukiezintasun kualitatiboa urratzea.

Oinarrian ez da jorratzen, ezta indarrean dagoen araudian ere,
mugagabeak izan gabe gehiegizkoak diren epeen afera. Arestian
azpimarratu den bezala, arazoaren erpin bat seniparte-eskubideen
ukiezintasun kualitatiboak osatzen du, eta gai horri dagokion
araudiak konpondu beharko du. Baina gaiaren beste ikuspuntu
bat da komisarioak usufruktua izan gabe ere gehiegizko epea
ezartzea (oinarrian, atribuzio hori epe mugagabearen betekizuna
da), eta, finean, funtsezko interesik gabe oinordetza-ordenazioa
egiteke uzteak izan dezakeen zentzua. Horregatik, Aragoiko zu-
zenbideak egiten duen bezala, egokia ikusten da epea laburtzeko
aukera eskaintzea kausa bidezkorik badago. Kausa bidezkoa ba-
dagoela erabakitzeko, jokoan dauden interesak balioetsi beharko

dira, eta baita, bereziki, komisarioaren bidezko ordenazioaren zentzu instituzionala ere.

Aragoiko legegilearen irizpideari jarraituz, beste aurreikuspen bat sartzea erabaki da: kausa bidezkorik badago —berriz ere beharrezkoa litzateke kasuaren inguruabarrak eta figuraren helburua aztertzea— aukera egongo da epea bi urtez luzatzeko, kausatzaileak eperik jarri ez duenean aplikatzen den legezko epea iraungitzen denetik kontatuta.

Kausatzaileak eperik ezartzen ez duen kasuetarako bi urteko epea jartzeak indarrean dagoen araua zabaltzea dakar, agian laburregia den urtebeteko epea zehazten baitu. Epea kontatzeko abiapuntua zein den zehazteko, euskal legegilearen azken irizpidea hartu da kontuan, hau da, izenda daitezkeen pertsona guztien emantzipazioa edo adin-nagusitasuna.

40. Oinarria. **Delazioa eta oinordetza-gaitasuna**

Jaraunspenaren delazioa gauzatuko da oinordetza-izen-dapena ematen denean edota enkargua iraungitzean. Oinordetza izan daitezkeen pertsonen gaitasuna delazioaren arabera zehaztuko da.

Araudi zibil orokorrean ezartzen diren kausak baztertu gabe, duintasun ezaren kausa bete dela ulertuko da kasu hauetan: komisarioa behartua denean —mehatxuz, engainuz edo indarkeriaz— oinordetza-xedapenak egitera, errebotatzera edo aldatzera; edota, bitarteko horiek erabilita, komisarioari enkargua betetzea, jada burututako egintzak errebotatzea edo aldatzea galarazten zaionean; edota komisarioaren ondorengo egintzak ordezkatzeko, ezkutatzeko edo aldatzeko direnean.

Bat datoz: FZZL 34.II art.; KZ 756. art.; ArOL 13. eta 133. art.; KatKZ 424-1.2.c eta 424-6.1.f art.; BZZK 18.IV eta 19.II art.; EZAA 32.2 art.

Oharrak: oinarrian adierazten denak argi uzten du komisarioaren bidezko ordenazioak oinordetza-prozesuari ematen dion logika. Ez dago aldaketarik oinordetza irekitzeari buruz, hori beti gertatzen baita kausatzailea hiltzean edota haren heriotza-adierrazpena ematean; baina delazioa gauzatuko da komisarioak oinordetza-izendapena egiten duenean edota haren kargua iraungi-

tzean. Oinordetza-dogmatikari dagozkion oinarrizko printzipioak dira horiek, baina komenigarria izan daiteke aipatzea, kontzeptu-erreferentzia gisa, zibila ez den araudiari begira. Gainera, jaraunspenaren delazioaren momentua aipatzeak izendatuena gaitasun-betekizunak betetzeko unea zehazteko balio du. Une hori delazioaren unearekin lotzea oinarrizko oinordetza-printzipio horien exigentzia ere bada, baina beharbada komeni da hori argi uztea, egun Bizkaian indarrean dagoen araudiak beste irizpide bat erabiltzen duela kontuan hartuta.

Bestalde, oinordekoaren gaitasunari dagokionez, duintasun ezaren kausatzat hartzen dira komisarioak xedatzeko duen askatasunaren kontrako jarrerak, ordezko zuzenbideak —logikoki— kausatzaileari dagozkionak bakarrik kontuan hartzen dituenak.

41. Oinarria. **Ezkontza-sozietatearen likidazioa**

Kausatzailea komunitatezko ezkontza-erregimen ekonomiko baten mende badago, deuseztatutako komunitateari dagozkion ondasun eta eskubideen gaineko atribuzioak egin ahal izango dira, baina hura likidatu ondoren soilik. Bestela, xedapena deuseztatzeko eskatu ahal izango da, atribuzioa egin eta hurrengo lau urteetan.

Hala ere, ez da likidazioa egiteko eskatuko ezkontide-komisarioak enkargua testamentuan egikaritzen badu, eta, horrekin batera, oinordetza ordenatzen badu eta ondorengo komunen alde soilik xedatzen badu.

Likidazioa komisarioak eskatu ahal izango du, baita administratzaileak eta oinordeko izan daitezkeen edonork ere, eta bizirik denaren eta oinordeko izan daitezkeen pertsonen artean egin beharko da, edo, hala badagokio, kontatzaile-partitzailearekin.

Bat datoz: FZZL 105. eta 106. art.; KZ 831.1 art.; ArOL 142.3 art.; GZZL 200.2 art.

Oharrak: likidazioa *prius* bat da nahitaezko inbentarioa egiteko eta, horrenbestez, jaraunspen-ondarea zenbatekoa den finkatzeko. Printzipio orokorra hau da: komisarioa nor den kontuan hartu gabe, likidazioa eskatzen da ondasun zehatzak xedatu direnean. Printzipio horren salbuespen bakarra hau da: komisarioak

testamentua erabiliz enkargua betetzea eta, aldi berean, beraren oinordetza ordenatzea eta ondorengo komun en alde soilik xedatzea — nabarmentzekoa da, testamentuan enkargua exekutatzeko, ezkontideak biziarteko usufuktua izan behar duela—. Izan ere, horrela bakarrik justifika daiteke komunitatea osatzen duten elementu guztien *patu-batasuna*.

Hala ere, kontuan hartu behar da, kasu honetan, ez dela ezkontideak likidazioa egiteari uko egiteko ahalmena konfiguratzeko; alde batetik, hura eskatzeko legitimazioa ukiezin mantentzen delako, eta, bestetik, esana dagoen bezala, inbentarioa osatzeko beharrezkoa delako. Horregatik, ezkontza-erregimen ekonomikoari dagokion arauditik kendu beharko lirarteke FZZLko 105.I araua eta halakoak (*Kausatzaileak komisarioa izendatzen badu, ondasunak komunitatean geratuko dira, hark oinordekoa izendatu arte*). Arau horrek, komunitatea ez likidatzea babesten duena (kasu honetan, *komunikazio ondorengoa*), egoera konplexua dakar komisario *arrotzak* ondasunak esleitu nahi baditu, ez baita ulertzen nola egin dezakeen halakorik jaraunspen-ondasunaren konposizioa ezagutu gabe.

42. Oinarria. **Inbentarioa**

Sei hilabeteko epean, kausatzailea hil denetik edota haren heriotza-adierazpena eman denetik kontatzen hasita, administratzaileak jaraunspenaren ondasun, eskubide, karga eta betebeharrak guztien inbentarioa egin beharko du, eta oinordeko izan daitezkeen pertsonak aipatu beharko ditu, eta, hala badagokio, baita komisarioa ere. Epearen luzapen juridiziala eskatu ahal izango da, eta hura justifikatzen duen arrazoiren bat egotea eskatuko da.

Inbentarioa epearen barruan egiten ez bada, aginte juridizialari eska dakiok administratzaileari eska diezaion inbentarioa egiteko, eta beste epe bat ezarriko da. Epe hori bukatzean, inbentarioa haren kontura egingo da.

Oinordeko izan daitezkeen pertsona batek edo komisarioak eskatzen badu, inbentarioa eskritura publikoan jasoko da.

Bat datoz: FZZL 36. eta 167. art.; ArOL 135. art.; EZAA 34. art.

Oharrak: komisarioaren bidezko ordenazioak jaraunspena banatu gabe egotea luzatzea dakarrenez, beharrezkoa da ezartzea nahitaezkoa dela inbentarioa egitea. Betebehar hori administratzailearen esku geratzen da, hura komisarioa izan ala ez.

Ez da egokitzat jotzen kausatzaileak betebehar hori baztertzeko ahalmena izatea, eta hori ezinezkoa izango litzateke, gainera, oinordeko izan daitezkeen pertsonak senipartedunak balira. Argi dago betebeharra administratzaile guztientzat ezartzen dela, baita hura ezkontidea bada ere.

43. Oinarria. **Mantenua jaraunspen-ondarearen kontura**

Enkarguaren exekuzioa egiteke egonik, lehentasunezko nahitaezko oinordekoak diren ondorengoek mantenua eskatu ahal izango dute jaraunspenaren kontura, beharriana badute, eta, araudi zibil orokorraren arabera, hura ematera behartutako beste inor ez badago.

Lehentasunezko nahitaezko oinordekoak diren ondorengoak ahalmen-urritasuna duten pertsonak badira, haien beharriaz bereziak asetzeko irismen nahikoa duen mantenu-pentsioa eskatu ahal izango dute.

Bat datoz: FZZL 41. art.; ArOL 136. art.; EZAA 21.1 art.

Oharrak: jaraunspena banatu gabe dagoenean mantenu-eskubide bat ezartzea ondarearen onuradunak babesteko helburuaren ondorio da; oinarrian, ordea, lehentasunezko senipartedunak ez diren oinordekoak baztertu egiten dira, senipartedunak ez izateak legitimazioa duen beste norbait egon daitekeela baitakar.

Ahalmen-urritasuna duten pertsonen aldeko mantenu indartuari dagokionez, ulertuko da azaroaren 18ko ahalmen-urritasuna duten pertsonen ondarezko babesari buruzko, eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta Zerga Araudia helburu horrekin aldatzeari buruzko 41/2003 Legeak definitutako egoeran daudentzat dela.

44. Oinarria. **Administratzea eta ordezkatzea. Haren edukia**

Jaraunspena esleitu gabe dagoen bitartean, hura administratzea eta ordezkatzea dagokio kausatzaileak eginkizun

horietarako izendatutakoari. Inor izendatu ezean, funtzio horiek komisarioak izango ditu, ondasuntza osoa edo zati bat usufriktuan duenari hura administratzeko dagozkion ahalmenak alde batera utzi gabe.

Administratzaileak zertuko ditu hildakoak utzitako ondasuntza kontserbatzeko eta ustiatzeko beharrezkoak diren egintzak, jaraunspenaren obligazioak eta zamak ordainduko ditu, eta bere funtzioari dagokion egintza oro gauzatuko du. Jaraunspenarekin zerikusirik duen edozein egintza baliatzeko legitimazio aktiboa zein pasiboa ere izango du.

Karguaren lepora egindako gastuen ordaina jasotzeko eskubidea ere badu administratzaileak.

Bat dato: FZZL 40. eta 168. art.; KZ 831.2 art.; PZL 801. art.; ArOL 134. eta 137. art.; NF 287. legea; KatKZ 424-4 eta 424-10 art.; GZZL 201. art.; EZAA 37. eta 43.3 art.

Oharrak: jaraunspenaa komisario bidez ordenatzeak hura esleitu gabe denboraldi luzeagoan egotea dakar, eta, horregatik, ezinbestekoa da arau bidez aurreikustea nola administratuko den ondasuntza. Administratzailearen egoerari dagokionez, kausatzaileak ezer adierazi ez badu, Bizkaiko zuzenbideko irizpidearen arabera ezkontideari ematen zaio lehentasuna, eta, halakorik ezean, komisarioari esleitzen zaio administratzeko funtzioa. Ondasuntzaren usufriktua ezkontideak izatea eredutzat hartuz ezarritako irizpidea dirudi, komunikazio ondorengo erkidegoaren administratzaile bihurtzen dena. Aragoiko legelariak argi utzi du usufriktuaren eta administrazioaren arteko lotura, administrazioa ezkontideari esleitzen baitio, ondasuntzaren usufriktua duen heinean (eta, beste kasuetan, alarguntzako usufriktuan dauden ondasunak bakarrik administratuko ditu). Hala ere, esandakoaren arabera, ezkontide izateak ez du besterik gabe lehentasunik ematen administratzaile izateko. Hemen adierazitakoarekin bat, komisarioa badagoen kasuetan ondasuntzaren administrazioa ezkontideari esleitzea foru-komunikazioko erregimen ekonomikotik kendu beharko litzateke (FZZLko 105.1 art.; ikusi 41. oinarriari egindako iruzkinak ere).

45. Oinarria. Xedatze-egintzak

Kausatzaileak besterik aurreikusi ezean, jaraunspen-ondareaz xedatzeko ahalmenak administratzaileari dagozkio.

Administratzaileak kostuzko tituluz xeda ditzake jaraunspeneko ondasunak edo eskubideak, baita haien gainean kargak eratu ere; betiere, kausatzaileak horretarako baimena eman badio edo beharrezkoak badira jaraunspenaren obligazioak eta zama ordaintzeko, eta ondarea kontserbatzeko eta ustiatzeko. Jaraunspenaren obligazioak eta kargak ordaintzeko erabilitakoa alde batera utziz, modu horretan lortutako kontraprestazioa ondasuntzan txertatuko da. Ondasun higiezinak, ustiategiak, balio higigarriak eta jaraunspen-ondareaz aparteko balioa duten ondasunak besterentzeko eta zamatzeko, oinordeko izan daitezkeen adostasuna edo epailearen baimena beharko da, eta kausatzaileak ezin du haiei buruzko dispentsarik ezarri, haiek izatez senipartedunak baldin badira. Aurrez eman beharreko adostasunik edo baimenik gabe egindako besterentzeak, berriz, egin osteko lau urteren buruan deusezta daitezke.

Bat datoz: ArOL 138. eta 139. art.; PZL 803. art.; KatKZ 424-4 eta 424-10 art.; EZAA 43.4 art.

Oharrak: egun indarrean den araudiak ezer esaten ez duen arren, aukera bat sortu da eztabaidatzeko ea ondareko ondasunak eta eskubideak kostuzko tituluz egiteko aukerarik baden eta ea haien arau-oinarririk baden; horregatik, zalantzarik ez uzteko, eta, aurreikusitako zuhurtziarekin, aukera hori aintzat hartzen da, aipatze bidez. Adierazitako kasuak irakurtzearekin ulertzen da zergatik, eta, berez, administrazioa *dinamikoa* izatearekin bat dator.

Kausatzaileak besterik adierazten ez badu, egokiena xedatzeko ahalmenak administratzaileari ematea dela jo da. Egia esan, pentsa zitekeen, kausatzailearen oinordetza ordenatuz komisarioak ondareaz xeda dezakeen heinean, kostuzko tituluz xedatzeko ahalmena ere berari esleitu beharko litzaiokeela. Baina xedatzeko egintza horiek zeinek bere logikari erantzuten dio, eta orain eskuartean ditugun hauek ondarea kontzertatzeko, iraurazteko eta optimizatzeko egiten dira. Egiaz, jadanik aipatu denez, uler daiteke aurreko oinarrian administrazioari emandako egituraren barruan daudela kausatzaileak ezer esaten ez duenerako hemen aurreikusten direnak ere.

46. Oinarria. **Komisarioaren ahalmenak**

Komisarioak bere kargua baliatuko du kausatzaileak ezarritakoaren arabera. Bestela, komisarioari berez dagozkion ahalmen guztiak izango ditu, araudi honetatik eratorritako salbuespenak kontuan hartuta. Aipatze bidezko baimenik izan ezean, komisarioak ezin izango du errebokatu kausatzaileak prebentziozko erabakiak ezarri emandako testamentua, ez osorik, ez zati bat bakarrik.

Bat datoz: FZZL 35. eta 166. art.; ArOL 126. art.; EZAA 33. art.

Oharrak: oinarrian bertan adierazten denez, kausatzaileak emandako testamentu-xedapenak errebokatzeko debekuak kasu honetan soilik du zentzua: komisarioak bere enkargua osorik edo haren zati bat exekutatzen ez duenean. Izan ere, kausatzaileak bere ondarearen zati batez xedatu badu testamentuan, prebentziozko erabakirik izan gabe, xedapen horiek eraginak sortuko dituzte oinordetza irekitzen den momentutik, eta, orduan, errebokaezinak dira berez.

47. Oinarria. **Enkargua exekutatzea**

Kausatzaileak kontrakorik esan ezean, komisarioak enkargua exekuta dezake egintza batean edo gehiagotan, eta, egindakoa efikaza suertatzen ez bada, beste ordenazio berri bat egin. Ondarearen usufruktua duena balitz hil arte, ordenazioa egin ahal izango du notarioaren aurreko testamentu irekian edo oinordetza-kontratuan. Beste kasu guztietan, eskritura publiko soilean egin beharko da.

Testamentuan egindako ordenazioak komisarioa hiltzen denetik aurrera bakarrik izango du eragina; beraz, badago errebokatzeko askatasuna.

Komisarioak aipatze bidez adierazi behar du ea titulu unibertsalez edo partikularrez izendatu den oinordekoa.

Bat datoz: FZZL 45., 46. eta 170. art.; KZ 831.III art.; ArOL 141. art.; NF 285.II eta 286. legeak; KatKZ 424-2 eta 424.7.1 art.; BZZK 19. eta 71.II art.; EZAA 42. eta 43.1 eta 2 art.

Oharrak: komisarioak kausatzailearen oinordetza ordenatzen du, baina, grafikoa izan arren, enkargua exekutatzeko ohiko modua —hau da, *inter vivos* edo *mortis causa* diren egintzen bidez— ez da egokia. Horregatik, *inter vivos* egintzaz hitz egin ordez, eskritura publiko soilean ordenatzeaz hitz egiten da. Horrenbestez, izendapena egin daiteke alde bakarreko egintza bidez, hori baita arrazoizkoena oinordetza ordenatzeaz aritzean, eta alde batera utz daiteke ohikoa baina zalantzazkoa den dohaintzaren bidea: dohaintzak, aldebiko egintza denez, baliozkoa izateko, bi adostasun batera etortzea eskatzen du; baina, kontua bada oinordetza ordenatzea, eta hala da, oinordekoaren adostasuna ezin bihur daiteke egintza ordenatzailea baliozkoa izateko betekizun; bai, ordea, oinordetza-eskubidea eskuratzeko betekizun.

Izendapena testamentuaren bidez egiteko aukera hil arteko usufruktua duen komisarioari bakarrik ematen zaio, eta horrek badu azalpena: komisarioa hiltzen den momentura arte ordenazioak eraginik ez izatea kasu horretan bakarrik da zentzuzkoa. Izan ere, komisarioaren testamentua, enkargua bertan betetzen bada ere, baliogabetu egin daiteke beti. Komisario bidez ordenatutako oinordetzan, ez dago *post mortem* ordezkariarik, hildakoek ez baitute ordezkariarik. Bizkaiko zuzenbidearen tradizioan egon arren gaur egungo ideia juridikoekin bat ez datorren ikuskera hori gaingitu egin behar da: komisarioaren testamentua, kausatzailearen oinordetza ordenatzen duena, harena dela ulertzea, eta, oro har, hura eman denetik eraginak sortu dituela onartzea.

48. Oinarria. **Enkargua iraungitzea eta eraginik ez izatea**

Enkargua iraungiko da edo enkarguak ez du eraginik izango: 1. Kausatzaileak aurreikusitako kausarik baldin badago. 2. Errebokazioa egiten bada. 3. Epea amaitzen bada. 4. Komisarioa hiltzen bada, hiltzat edo ezgaitzat deklaritzen bada, edo hari ezinezkoa bazaio enkargua betetzea. 5. Komisario ezkontidea izanez gero, eta, kausatzaileak bestelakorik xedatu ez badu, banantzeko, dibortziatzeko edo deuseztatzeko demanda aurkeztzen bada izendapen hori egin ostean. 6. Komisarioa bizirik den ezkontidea izanez gero, berri ezkontzen bada edo ezkontza-erlazioaren antzekoren bat baldin badu, kausatzaileak bestelakorik adierazi ezean. 7. Komisarioak beraj errenuntzia aurkeztzen badu. 8. Oi-

nordegabetzearen edo duintasun ezaren kausaren eraginez, kausatzaileari edo haren ondorengoei dagokienez.

Enkargua iraingitzeak ez du eraginik komisarioak eskritura publiko soilean edo oinordetza-kontratuan egindako ordenatze-egintzetan. Hala ere, testamentuan egindako ordenazioak ez du efikaziarik lortuko.

Enkarguak efikaziarik lortzen ez badu edo hura iraingitzen bada, ondasuntzaren jasotzaile izango dira ordenazioan parte izan behar zuten pertsonak. Iraungiz gero, iraingitze-unean zehaztuko da haien gaitasuna.

Bat datoz: FZLL 48. eta 171 art.; KZ 831.5 art.; ArOL 147. eta 148. art.; NF 284 I-II eta 288. legeak; GZZL 202. art.; BZZK 22. art.; EZAA 45. art.

Oharrak: Euskal zuzenbidearen tradizioan, ohikoa izan da botere ordenatzailea *iraungitzeko* kausak aipatzea. Baina FZZLko 48. eta 171. artikuluetan jasotako inguruabar guztiak ez dira, izaeraz, iraingitzekoak, horretarako beharrezkoa bailitzateke egindako izendapenak efikazia izatea. Alegia, egindako izendapenak eraginik ez izatea dakarte kausa batzuek; beste batzuek, berriz, enkargua iraingitzea eragiten dute. Zenbait kausak, dena den, efektu bat edo bestea eragingo dute, noiz gertatzen diren.

Boterea iraingitzeak, jakina, ez du eraginik izango efikaziarik izan duten xedapenen gain. Eta ez du eraginik izango lotura bat sorrarazi eta libreki baliogabetu ezin diren haien gain ere, hala nola oinordetza-kontratuen gain. Aldiz, eragina izango du komisarioa hiltzen den momentuan efektuak sortzen dituzten izendapen edo esleipenetan ordura arte errebokatu zitezkeen horietan. Askotan adierazten da fiduziak eraginik ez izatearen edo iraingitzaileen ondorioz legeko oinordetza ireki egingo litzatekeela esleitzeko geratzen den ondasuntzarentzat, baina zentzukoagoa da kausatzailearen iritzia errespetatzea, eta ulertzea ondasuntzaren jasotzaile izango direla ordenazioan parte izan behar zuten pertsonak.

Nahitaezko oinordetza

49. Oinarria. Erregimen orokorra eta berezitasunak

Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko 3/1992 Legeak, uztailaren Iekoak, Bizkaian Lur Lauarentzat eta Arabako lurralde historikoan Laudio, Aramaio eta Aiarako lurraldearentzat ezarritako berezitasunak salbu, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan nahitaezko oinordetzaari buruzko erregimen bakarra izango da indarrean.

Bat datoz: ezerekin ez.

Oharrak: zuzenbide zibilaren esparruan Euskal Herrian gaur egun dagoen lege-zatiketak sortutako arazoek bereziki alor honetan dute indar berezia: nahitaezko oinordetzan. Izan ere, autonomia-erkidegoan, seniparteei buruzko lau erregimen mota daude; hain zuzen, Bizkaiko Foru Zibilekoa, Aiarako Forukoa, Gipuzkoako Forukoa eta Kode Zibilekoa. Ezinbestekoa eta gero-ratu ezineko erabakia suertatzen da, beraz, gai horri buruz erregimen bateratu bat ezartzea, gaur egun euskal gizarteak dituen beharrak asetzeko eta, batik bat, zentzurik ez duen eta kostu handia duen zatiketa hori, ahal den heinean behintzat, gainditzeko. Hala eta guztiz ere, horrek ez du eragozten, berezitasun modura, hainbat eraketari eustea —behar bezala eguneratu eta egokitu ostean—, gure lurralde batzuetan sendo txertaturik daudelako, hala nola tronkalekotasuna Bizkaian, eta testamentua mugarik gabe askatasunez egiteko aukera Aiaran.

I. kapitulua Erregimen orokorra

50. Oinarria. **Subjektuak**

Nahitaezko oinordeko edo senipartedun izango dira seme-alabak eta gainerako ondorengoak, eta, halakorik ezean, gurasoak eta aurrekoak. Halaber, ezkontide alargunak, le-ro zuzeneko ahaideek oinordetzan parte hartzen duten ala ez kontuan izan gabe, senipartea izango du usufuktuan; be-tiere, oinordetza irekitzeko momentuan ezkontidearengandik judizioz edo egitatez bananduta ez badago.

Seniparteduna izango da ondorengoan edo, hala bada-gokio, aurre-ahaideen taldearen barruan dagoen subjektu orok. Hala ere, kausatzailearekiko graduan hurbilago dau-denak nahitaezko oinordeko izango dira lehentasunez, edo berehala, urrunagokoak direnen aurretik.

Lehentasunez nahitaezko oinordeko den ondorengo ba-ten ondorengoek hura ordezkatu dute, senipartedun-kon-dizioan kausatzailea baino lehenago hil bada, legezko kausa baten ondorioz jaraunsgabetu bada edo oinorde izateko duina ez dela jo bada.

Bat datoz: FZZL 53. eta 134.2 art.; KZ 807. eta 834. art.; EZAA 47. art.

Oharrak: oinordetza-gaietan azkenaldian izan diren legerreformatan, joera hau agertzen da: aurre-ahaideak senipartea-z gabetzen dira. Horixe gertatu da, esate baterako, Frantzian (2006-728 Legea, 2006ko ekainaren 23koa, *Code* delakoaren lehengo 914. eta 916. artikulua-), edo, gertuago, Galizian (2/2006 Legea, ekainaren 14koa, zuzenbide zibilar buruzkoa; 4/1995 Legea (in-dargabetua), maiatzaren 24koa, 146.2 art.). Joera horren arrazoia da, bereziki, gaur egungo gizarte garatuenetan herritarrek duten bizi-itxaropen luzea. Ikusi besterik ez da, halabeharrez, inguru-a-bar horretan aurre-ahaideek aukera urria dutela senipartedun iza-teko, eta salbuespenezko kasuetan bakarrik gertatu eta aplikatu ohi dela; gehienetan, kausatzailea hiltzean, haren aurre-ahaideak hilak baitira. Ideia horrek eta, horrekin batera, aurreikuspen-sis-tema publikoak (erretiro-pentsioak) eta pribatuak (pentsio-fun-tsak eta planak) hedatuta egoteak bideratzen dute aurre-ahaideek beren beharrak ase izatea; hartara, seniparterako eskubidearen

beharrrik ez izatea suertatzen zaie aurre-ahaideei. Hala ere, kon-tuan hartuta, batetik, belaunaldien arteko solidaritatea, eta, beste-tik, administrazio publikoek diru-behar larriak dituztela geroz eta zaharkituagoa den biztanleriaren premia garestiei aurre egiteko eta behar horiek arintzen lagundu behar dela, seniparte horri eus-tea eskatzen dute, haren garrantzia egokitu eta oraindano izan dituen maila eta edukia apaldu behar bada ere.

Nahitaezko oinordekoen artean lehenasunezkoak edo be-rehalakoak eta atzeratuak edo urrunagokoak bereizteak badu zio bat: haiek oinordetza jasotzeko duten itxaropena orokorra da, eta, ondorioz, komeni da bereiztea zer eskubide duen haietako ba-koitzak harekiko; sendoagoa da lehenengo kasuan, eta, noski, ahulagoa bigarren kasuan. Beste modu batera esanda: ondo-rengo guzti-guztiak edo, hala badagokio, aurre-ahaide guztiak nahitaezko oinordekoak badira ere, guztiek ez dute posizio bera senipartearen aurrean. Bereizketa hori behar-beharrezkoa da in-tentziorik gabeko preterizioaren erregimena zehazteko; bestalde, bereizketa hori erabat logikoa da ahaideek parte hartzen duten le-gezko kasu orotan ezein eskubide eta itxaropen antolatzeke eta ordenatzeko (esate baterako, testamenturik gabeko oinordetzan).

51. Oinarria. **Zenbatekoa**

Ondorengo seniparte 52. oinarriko irizpideen ara-bera zehaztutako ondasuntzaren erdia izango da, baldin eta ondorengoa bakarra ez bada, haren laurdena izango baita orduan.

Aurre-ahaideen seniparte, berri, 52. oinarriko irizpi-deen arabera zehaztutako ondasuntzaren herena izango da, baldin eta aurrekoa bakarra ez bada, haren laurdena izango baita orduan.

Ezkontide alargunaren seniparte 52. oinarriko iriz-pideen arabera zehaztutako ondasuntzaren erdiaren gai-neko usufruktua izango da; betiere, ondorengoekin edo au-rre-ahaideekin batera badago oinordetzan. Lerro zuzeneko ahaiderik ez badago, ondasuntza horren bi herenen gain izango da usufruktua.

Bat datoz: FZZL 55., 56. eta 58. art.; KZ 808. eta 809. art.; BZZK 42. eta 79. art.; EZAA 49. eta 52. art.

Oharrak: oinarri honek proposatzen duenez, seniparte komun bat ezartzen da, baina neurritz txikiagoa, Kode Zibilean (bi heren ondorengoentzat, eta erdia aurre-ahaideentzat) eta Bizkaiko Foruan (lau bosten ondorengoentzat, eta erdia aurre-ahai-deentzat) aurreikusten denarekin alderatuz. Murrizketa horren arrazoia da, hain zuzen ere, gaur egun euskal autonomia-erki-degoan indarrean diren seniparteek, oso zabalak, erabat galdu dutela hasieran zuten zentzua: alde batetik, bizi-itxaropena oso txikia den gizarte baten beharrak asetzen dituztelako (Kode Zibilaren kasuan, XIX. mendeko gizartea, eta, Bizkaiaren kasuan, XVI. mendekoa, hau da, Foru Berria, 1526koa), seniparteak testuinguru horretan bakarrik betetzen baitu benetako funtzioa, hau da, gurasoak hil, eta, haien umeak oraindik adingabeak izanik, ondasunak eman beharra mantenua izateko; gaur egungo gizartean, ordea, bizi-itxaropena asko luzatu denez, gehienetan, umeak beren gurasoen oinorde bihurtzen dira jadanik oso helduak direnean; hain zuzen ere, dagoeneko beren bizitza erabat bideratua eta sendotua duten momentuan. Beste alde batetik, jadanik adierazi denez, aurre-ahaideen seniparteak, arrazoi berberengatik (bizi-itxaropena oso altua delako), arras gutxitan aplikatzen den figura bat da, hau da, izaeraz hondar-kutsua duen zerbait bihurtu da; gainera, ezin da esan laguntza-funtziorik betetzen duenik ere, kontuan izanda pertsona zaharrek badituztela beren beharrak asetzeko baliabideak, aurreikuspen-sistema publikoan (erretiro-pentsioak) edo pribatuan (pentsio-funtsak eta planak). Azken batean, seniparteak murriztearen alde egiten da; izan ere, horren ondorioz, askatasunez xedatzeko zatia areagotzen da, horixe baita hiriaren testuingurutik behin eta berriz eskatzen den zerbait: hain zuzen ere, kausatzaileak aukera zabalgoak izatea ezkontide alargunari ondasunak utzi ahal izateko.

Bestalde, finkoa ez baina aldagarrria den seniparteak proposatzen da; seniparte hori urritu egingo da ondorengo edo aurreko bakarra dagoen kasuetan. Irtenbide hori ulertzeko, kontuan izan behar da kausatzaileak gauzak banatzeko askatasuna galtzen duela hipotesi horietan. Horrenbestez, seniparteduna baztertu ezin duenez, eta, duintasun ezik edo jaraungabetzeko kausarik egon ezean, hura gaizki etorri bada kausatzailearekin edo haren familiarekin, egokia dirudi, prebentzio modura, xedatzeko askatasuna areagotzea kanpokoen alde egiteko; hartara, askatasun hori balia dezake, ala ez, bere interesa edo familiaren interesa babesteko.

Bestalde, alargunari dagokion seniparteari buruz, berriz, Bizkaiko Foruan ezarritako proportzioak errespetatzen dira, arra-

zoizkoak baitira, baina, orain azalduko denez, senipartedunak egon arren seniparte hori zabaltzeko aukera ematen zaio kausatzaileari.

52. Oinarria. **Ondasuntza zenbatzea**

Senipartea finkatzeko, kausatzailea hiltzen denean geratu diren ondasunen balioari erreparatuko zaio, zorrak eta azken gaixotasunaren nahiz ehorzketaren edo errausketaren gastuak kenduta. Jaraunspeneko ondasunen balio likidoari batuko zaio kausatzaileak hil aurreko hogeitun barruan dohaintzan eman edo edozein doako tituluz besterendutako ondasunen balioa, ohiko opariak kenduta. Salbuespen gisa, senipartera egotzi beharreko esleipenen objektu diren ondasunen balioa zehazteko, ez da kontuan izango esleipen hura zer datatan egin zen.

Senipartea kalkulatzeko kontuan izango diren jaraunspeneko ondasunen balioa zehaztuko da kontuan izanda haiek zer duten senipartea kitatzeko momentuan. Doako tituluz besterendu diren ondasunei dagokienez, besterendu ziren momentuan zuten balioa hartuko da kontuan, baina senipartea kitatzeko garaia kontuan hartuta eguneratuko da zenbatekoa.

Bat datoz: FZZL 62. art.; KZ 818. art.; ArOL 174. art.; KatKZ 451-5 art.; EZAA 58., 59. eta 60. art.

Oharrak: senipartea zenbatzeko kontuan izan behar diren dohaintzak denboraldi batera murrizteak badu arrazoi bat: hala egiten bada, errazago kalkulatzeko da senipartea, eta aspaldi egindako egintzak eta haien balioa frogatzeko arazo neketsuak saihesten dira. Horretaz gainera, 10/2008 Legeak, uztailaren 8koak, zeinak berrikuntza berbera jasotzen baitu, hau dio zioen azalpenean: denbora horrela mugatuz gero, «senipartedunen eskubideak murrizten dira, eta gaur egungo gizartearen errealitate egokitzen, balio handiagoa ematen baitzaio umeei heziketa osatua emateko interesari, gurasoak falta direnean ondarearen balioan parte hartzea bermatzeko interesari baino». Hogeitun muga —Katalunian, hamar urterena aurreikusi da— ez da besterik gabe aukeratu eta ezarri: horren azalpena da, hain zuzen ere, euskal herritarrak adinean oso aurrera joanda hiltzen

direla. Hogei urte horietan —oinordetza ireki aurretik— egindako dohaintzak onuraduna nor izan den kontuan hartu gabe konputatuko dira. Dohaintzei emandako trataera berbera izango dute *de cuius* delakoak doako tituluz egindako gainerako egintzek ere; esate baterako, oinordetza-itun bidez eta uneko eskualdatze bidez egindakoek, fundazio bati egindako hornidurak, zor bat barkatzeak, eta abar. Seniparteari egotz dakizkiokeen doako esleipenei buruzko salbuespenak ere badu azalpena; izan ere, haien balioa kontuan hartzen ez bada ondarea kalkulatzeko, nahitaezko oinordekoek duten itxaropena neurritz gain urrituko litzateke.

Balioa zehazteko irizpideari dagokionez, berriz, hautatu da bat balio duena, kausatzaileak berak oinordetza ordenatu duen kasuetarako bakarrik ez, baizik eta baita oinordetza ordenatzeko zeregina hirugarren edo fiduziario baten esku utzi duen kasuetarako ere. Azken kasu horietan *de cuius* delakoa hiltzearen eta seniparte zatia asetzearen artean denboraldi luzea iragan daitekeen heinean, eta, hil ostean utzitako ondasunen balioaren gorabeheretan nahitaezko oinordekoek parte hartzea egokia bada ere, balio hori zehazteko momentu gisa jarri da ordainketa egin behar den unera gehien hurbiltzen dena (kitatze-eguna). *Donatum* delakoari dagokionez, FZZLko 62. artikulua Bizkairako aurreikusitako irizpidea aldatu da, eta, ondorioz, ondasuna emateko garaian *donatumak* zuen balioa konputatuko da; ez, ordea, kausatzailea hiltzeko garaian ondasunak izan zezakeena. Aldaketa horren arrazoia da lehen balio hark zehaztasunez neurtzen zuela dohaintza-hartzaileak lortutako aberastea eta dohaintza-emaileak jasantako pobretzea; aldiz, bigarren balioa hartuta lortu nahi dena da, itxuraz bederen, *de cuius* delakoaren ondarea berrosatzea hortik akaso aspaldian atera ziren ondasun batzuekin; noski, legitimoki orain hirugarren batenak direnekin. Hori bai, diruaren balioak izandako aldaketak kontuan izango dira, hau da, *antzinako* balio hura beti egokituko da *gaur egungo* moneta-unitateetako baliora edo, zehatzago esanez, seniparte kitatzen den momentuko moneta-unitateetara.

53. Oinarria. **Seniparte osoa eta esleitze-titulua**

Xedatzaileak seniparte askatasunez banatu dezake ondorengoan edo, halakorik badago, aurre-ahaideen taldean daudenen artean, edo haietatik bat bakarra aukeratu de-

zake, eta, nahi badu, gradu urrunagoko norbait ere aukeratu dezake, gertuagoko beste norbaiten ordez.

Edozein irabazizko tituluz esleia daiteke senipartea, eta, ondorioz, jaraunse izendatzeko tituluz, legatuz, esleitze partikularrez edo dohaintzaz, edo beste edozein modutara.

Nahitaezko oinordekoak egon arren, xedatzaileak arrotz bat izenda dezake jaraunse.

Bat datoz: FZZL 54. art.; ArOL 171. eta 172. art.; EZAA 48. eta 51. art.

Oharrak: izaeraz kolektiboa edo osoa den senipartea — Bizkaian bezala, kausatzaileak askatasunez banatu dezake — nahitaezko oinordeko bakoitzari zati indibidual eta ukiezinak ematen dizkion sistemak — Kodekoak, esaterako — azaleratutako eragozpenak saihesten ditu. Seniparteari buruzko eskemak Kode Zibilean jartzen dituen oztopoak (euskal autonomia-erkidegoan agerian gelditu izan direnak, aspalditik) oso zorrotzak eta latzak dira; bereziki, enpresa txikiak eta ertainak (nagusiki, familiari oso lotuta daudenak) zatitu gabe eskuz aldatzeko garaian. Izan ere, titularrak, hobekuntzaren herena eta askatasunez xedatzeko zatia erabil baditzake ere enpresa oso-osorik hartzeko gaitasun handien erakusten duen seme-alabetako baten alde, gainerako senideek ezinbestean jaso behar duten seniparte hertsiaeren zatia eman beharrak negozioa zatitu (edo zamatu) behar izatea ekar dezake, jaraunspenean bestelako ondasunik egon ezean. Arazo horretaz jabetua da estatuko legegilea ere, eta erreforma partzialen bidez konpontzen saiatu da, baina eskas geratu da beti; hala egin zuen, esate baterako, 7/2003 Legean, apirilaren 1ekoan, Enpresa Berri sozietate mugatuari buruzkoan, zeinak KZko 1056.2 artikulua aldatu zuen. Une hau egokia da gogorarazteko, hain zuzen, eragozpen hori izan zela aspalditik Gipuzkoako nekazaritza-ustiategiak jota utzi eta euskal 3/1999 Legea, azaroaren 26koa, FZZLa Gipuzkoako Foru Zibilarri dagokionez aldatu zuena, aldarrikatzeko arrazoi nagusia, zuzen-zuzenean. Ohartarazi behar da, hala ere, gainerako gipuzkoarrak, beste sektore ekonomiko batzuetan ari diren enpresen titular gisa, eta auzokotasun zibil komuna duten arabarrak eta bizkaitar forugabeak — Kodearen barnean baitira, seniparteei dagokienez — eragozpen horiek jasaten ari direla oraindik ere. Hala eta guztiz ere, gainera, eta, hipotesi horretatik kanpo, seniparte hertsia den herena ere bada oztopo larria erabat desiragarriak eta lizitoak diren beste helburu batzuk lortzeko

bidean, hala nola kausatzaileak, judizialki ezgaitua dagoen edo beste urritasunen bat daukan seme-alaba bat izanda, hari bizitzeko baliabideak emateko asmoari eman nahi badio lehentasuna. Estatuko legegilea oztopo hori arintzen saiatu da, baina, berriro ere, Kode Zibileko zenbait arauri ukitu leun bat eman ez, besterik gabe —ikus, bereziki, 808. artikulua idazkera berria, 41/2003 Legeak, azaroaren 18koak, urritasunak dituzten pertsonen ondarea babesteari buruzkoak ezarria—. Hala eta guztiz ere, ukitu leun hori, oraingo honetan ere, ez da behar bestekoa izan.

54. Oinarria. **Baztertzea eta nahita egindako preterizioa**

Xedatzaileak onurarik gabe utzi dituen lehentasunezko nahitaezko oinordekoak itunetik, testamentutik edo fiduzia exekutatzeko egintzatik baztertu behar dira, bakarka edo taldeka. Dena den, berehalako nahitaezko oinordeko bat apropos preteritza hura baztertzea da. Zalantzarik balego, preteriziorik izanez gero preterizio aproposa dela ulertuko da.

Lehentasunezko nahitaezko oinordeko den ondorengo bat baztertzeak, xedatzaileak besterik esaten ez badu, haren leinu guztia ere baztertzea eragingo du, hura xedatzailea baino lehen hiltzen bada ere.

Xedatzaileak norbait zergatik baztertzen duen aipatze bidez adierazi eta arrazoi hori okerra bada, nahi gabeko preterizioak dituen ondorioak aplikatuko dira baztertu den berehalako senipartedunaren alde; betiere, oinordetza-titulutik ondorioztatzen ez bada xedatzaileak gezurra zela jakin izan balu ere berdin-berdin baztertuko zukeela.

Bat datoz: FZZL 54. eta 135. art.; ArOL 190. eta 199. art.; EZAA 48. art.

Oharrak: senipartea osatzen duten ondasunak banatzeko garaian onurarik jaso ez duten nahitaezko oinordekoak baztertzeak, berez, hau bermatzen du: kausatzaileak bere borondatea osatu duenean, badaki bere zein diren ondorengo edo aurreko guztiak; zehatzago, badaki zein diren berehalako ahaideak diren horiek. Baina ez dirudi egokiena denik kausatzailea obligatzea ahaideak banan-banan izenez baztertzerantz —ahaideak taldeka baztertzeko aukera eman behar zaio, beraz—, ez eta, noski, formula erritual edo tinkoak erabiltzerantz, erabat zentzu-

gabea bailitzateke. Berehalakoak diren nahitaezko oinordekoak apropos preteritzea ere bazterketatzat jo behar da, konponbide hori, zehazki, guztiz koherentea baita proposatzen den senipartearen izaerarekin: hain zuzen, mota horretako sistema batean, ez zaio hainbeste begiratu behar senipartedun bakoitzari, banan-banan, baizik eta, bereziki, xedatzaileak izan behar duen mugen errespetuari begiratu behar zaio, nahitaezko oinordekoen taldearen gain ezarri zaiona; alegia, behin seniparte kolektiboa ase eta gura duenen artean banatu ostean, gehiegizkoa dirudi, horretaz gainera, baztertu nahi duen seniparteduna oinordetza ordenatzeko egintzan esanbidez aipatu behar izatea, edukiz eta esanahiaren aldetik hutsa delako. Beste modu batera esanda, baztertzeko askatasuna ezartzen duen oinordetza-sistema hone-tan, erabat zentzuzkoa da nahita egindako preterizioak eraginik ez izatea eta, alderantziz, xedatzailearen borondatez kanpoko arrazoiengatik gertatu direnak kontuan hartzea. Hartara, preterizioak badu *berezko funtzio* bat, baina bakarra: nahitaezko oinordeko bat, *kausatzaileak hala nahi izan gabe, jaraunspenetik kanpo geratzeko parada* ez suertatzeko baliabidea jartzea. Hori bera gertatzen da, esaterako, Aragoi, 1/1999 Legeak, otsailaren 24koak, heriotzagatik oinordetzari buruzkoak (zioen azalpenetik jaso dira kaxotx arteko esaldiak), seniparte osoa duen sistema jasotzen baitu. Hain zuzen ere, lege horren 192. artikulua dioenez, ez da inolako eskubide edo akziorik sortuko nahita preteritu denaren alde, «hirugarrenei seniparte kolektiboa erreklamatzeko izan ezik, seniparte hori urratu bada».

55. Oinarria. **Baztertzearen eta nahita egindako preterizioaren ondorioak**

Baztertzeak edo, hala badagokio, nahita egindako preterizioak ez diote bere kondizioa kenduko lehenasunezko nahitaezko oinordekoari. Kausatzailearen legezko oinordetzan izan ditzakeen eskubideak ere ez zaizkio kenduko; betiere, xedatzaileak bestelakorik adierazten ez badu.

Lehenasunezko nahitaezko oinordeko guztiak baztertzen baditu xedatzaileak, edo, nahita preteritzen baditu, eta, gero, oinordeko hurbilen aldeko inolako ondare-esleipenik egiten ez badu xedatzaileak berak, haiek seniparte osoa erreklamatu dezakete, eta hura urratzen duten xedapen guztiak murrizteko eskatu.

Bat datoz: ArOL 191. eta 197. art.

Oharrak: oinordetzatik baztertzea ez da zehapen zibila —are gutxiago, nahita egindako preterizioa— kanporatu den nahitaezko oinordearentzat: banatzeko askatasuna edo «baztertzeko» aukera ematen zaio kausatzaileari, baliabide erabilgarri bat duelako, zertarako eta beraren ondarea *post mortem* banatzeko bere interesen eta bere inguruko familiakoen interesen arabera, baina ez baztertua arrotz bihurtzeko. Jaraunsgabetze bidez bakarrik kanporatu daiteke nahitaezko oinordekoa talde horretatik, modu horretan kondizio hori galtzen baitu; testamenturik gabeko oinordetzan parte hartzeko aukera ere galtzen du, nahitaezko oinordetzatik zuzen kanporatu denak aukera hori ere galtzen duelako, legeak modu subsidiarioan bakarrik ezartzen duelako testamenturik gabeko oinordetza, eta, gainera, kausatzaileak inolako arrazoirik gabe kanporatu dezakeelako oinordetza horretatik. Hala eta guztiz ere, lehen esandakoarekin bat, ez da halakorik gertatzen, kausatzaileak kontrakorik xedatu ezean, baztertu denarekin: hala, esaterako, legezko oinordetzan parte har dezake, testamentuaren arabera onuradun gertatu diren guztiek huts egi ten badute. Gainera, bidezko jaraunsgabetzeak aurrerago aipatuko den mantenu-eskubideaz ere gabetzen du; zehazki, baztertu direnak izan ditzaketen beharrak asetzeko pentsatua dagoen baliabide bat da eskubide hori.

56. Oinarria. **Nahi gabeko preterizioaren ondorioak**

Lehentasunezko nahitaezko oinordekoak, nahi gabepreteritu bada eta xedatzaileak bestelakorik esan ezean, eskubidea izango du haren aginduen arabera onurarik gutxiena jaso duen senipartedunak adina erreklamatzeko, bizi direnen arteko esleipenak kontuan hartuta. Puska hori osatzeko, gainerako nahitaezko oinordekoen parteak proportzionalki gutxituko dira, preteritu denari bere zatia dirutan ordain badiezaiokete ere.

Dena den, lehentasunezko nahitaezko oinordekoak ondorengoak izan eta oinordetza-tituluan onuradun gertatu arren kausatzailea baino lehen hil den beste ondorengo baten ordezkari gisa ari baldin badira, berentzat erreklamatu ditzakete ordezkatuaren alde egindako ondare-esleipenak; berriz, nahi gabe ahaztu badira.

Lehentasunezko nahitaezko oinordeko guztiak edo bakarra nahi gabe preteritu bada, eta, xedatzaileak ez badu inolako ondare-esleipenik egin ez ein oinordeko hurbilen alde, haiek erreklamatu dezakete seniparte osoa, eta hura urratzen duten xedapen guztiak murrizteko eskatu. Salbuespen gisa, okerbidez preteritu direnak ondorengoak badira, eskatu egin dezakete —betiere, kausatzaileak bere ezkontidea jaraunsle bakar izendatzen ez badu— edukiz ondarezkoak diren oinordetzako xedapen guztiak efikaziarik gabekotzat jotzea eta, horren ondorioz, legezko oinordetza irekitzea.

Bat datoz: FZZL 54. eta 137. art.; KZ 814. art.; ArOL 193. art.; KatKZ 451-16 art.; GZZL 25. art.; EZAA 51. art.

Oharrak: eman diren irtenbide horiek bat datoz Bizkaian indarrean den zuzenbideak ematen dituenarekin, eta, gainera, Bizkaikoan aurreikusten ez den hipotesi bat aipatze bidez arautzea proposatu da: lehentasunezko nahitaezko oinordeko guztiak okerbidez preteritzea, eta xedatzaileak onurarik ez ematea oinordeko hurbilei; izan ere, azken horiei onurarik emanez gero (bizi direnen arteko egintzaz besterik ez bada), haiek erabat eta nahi gabe ahaztea konponduko da, lehen paragrafoan ezarritako erregelaren arabera.

Ondorengo guztiak nahi gabe preteritzen direnean legezko oinordetza irekitzea bat dator, beharbada, *de cuius* delakoak us-tez izan duen borondatearekin; betiere, alde batera utzita alargu-naren alde egindako izendapen unibertsala.

Oinarri honetako bigarren paragrafoan adierazitako erregelak FZZLko 54. artikuluko hirugarren paragrafoko azken tartekian jasotakoa berridazten du. Haren helburua da irizpide bat ezartzea xedatzaileak izendatu eta hura baino lehenago hil den berehalako ondorengoaren ordezkari gisa geratzen diren nahitaezko oinordekoak eta lehentasunezko ondorengoak nahi gabe preteritu diren kasuetarako. Are zehatzago, kausatzaileak bere ondarea bantatzeko orduan kontuan hartu ez dituen kasu guztietan ebatziko da okerraren ondorioz ez direla aipatu, hark zehaztu ez badu aipatze bidezko xedapenik haien alde edo, alderantziz, adierazi ez badu esanbidez oinordetzatik kanpo uzten dituela behin betiko. Ildo horretan, ahazte hori izaeraz nahi gabekoa izan dela ulertu behar da berehalako aurre-ahaideari *de cuius* delakoak utzitakoa kontuan hartuz baztertu bazuen hura; hain zuzen ere, kale egin duelako edo, testamentua egitean, haren berri ez zuelako. Tarteko

ondorengoaren ordezeko arrunt izendatu bazituen, berriz, edo jaraunspeneko ondasunen bat edo zatiren bat utzi bazien, ezin da esan, hitz lauz, bazterketa nahi gabekoa izan denik, eta, horregatik, ez litzateke arau hori aplikatuko. Preterizioa ez da nahi gabekoa izango kausatzaileak ordezpena arrotz baten alde ezarri badu, hori egiteko garaian izendatuaren edo legatitudunaren leinua kontuan izanda; izan ere, hortik ondoriozta daiteke baztertzeko borondatea. Kasu horretan bertan, haien berririk ez baldin bazuen, aldiz, okerrak sortutako preterizioa egongo da.

57. Oinarria. **Jaraungabetzea**

Jaraungabetzeko legezko kausa zehatzak ezarriko dira nahitaezko oinordekoen talde bakoitzarentzat.

Jaraungabetzea adierazi bada legezko kausa ziur baten arabera, itunean edo testamentuan, edo fiduzia betetzeko egintzan, jaraungabetuari nahitaezko oinordekoaren izaera kenduko zaio, bai eta beste edozein tituluz dagozkiokkeen oinordetza-esleipenak ere. Horretaz gainera, kausatzailearen ondorengo oro edo bakarra ukitzen badu jaraungabetzeak, seniparteak iraungiko dira, eta aurre-ahaideak ez dira nahitaezko oinordeko bihurtuko. Gerora xedatzailea eta jaraungabetua berradiskidetzen badira, edo, hark barkatzen badio, jaraungabetzeko eskubidea galduko du xedatzaileak, eta jadanik egina den jaraungabetzea eraginik gabe geratuko da.

Xedatzaileak jaraungabetzeko aipatu duen legezko kausa ziurra dela frogatzen ez bada, kausa hori ezeztatze eskatu ostean, xedatzaileak onura gutxien eman dionari dagokion kopuruaren parekoa izango da jaraungabetuak erreklamatu dezakeen kopuru zatia, bizi direnen artean egindako esleipenak barnean hartuta. Gainerako nahitaezko oinordekoen zatiak proportzionalki murriztuz osatuko da zati hori, baina haiek dirutan ordain diezaiokete bere zatia preterituari. Ostera, bidegabeki jaraungabetu dena lehentasunezko nahitaezko oinordekoa bada, eta, xedatzaileak oinordeko hurbilen alde inolako ondare-esleipenik egiten ez badu, hark seniparte osoa erreklamatu dezake, eta hura urratzen duten xedapenak murrizteko eskatu. Inolako kausarik adierazi gabe jaraungabetu den kasuetan, baztertzeari buruz ezarritako erregimena aplikatuko da, eta horri berez

lotutako eraginak sortuko dira. Konponbide berbera ezarriko da baldin eta legean adierazitako kausaren bat oinarritzat hartuz jaraungabetu bada, kasu horiek mugatuak eta hertsiki hartu beharrekoak baitira.

Bat datoz: KZ 851. art.; ArOL 194. eta 196. art.

Oharrak: lehen azaldu denez, jaraungabetzeak bakarrik kentzen dio senipartedunari bere kondizioa, bai eta legezko oinordetzan edo testamenturik gabeko oinordetzan beharbada legezkiokkeen eskubideak ere; ez, ordea, baztertzeak. Baina, den zehapen zibil hain larria ezartzeko, ezinbestekoa da betekizun jakin batzuk betetzea eta legegileak aurreikusitako kausaren bat oinarritzat hartzea. Horregatik, betekizunak betetzen ez badira edo arauak aurreikusi gabeko kausaren bat aipatzen bada, jaraungabetzea «bidegabea» da: oinarri honek euskal autonomia-erkidegoko seniparte-sistemara egokitu nahi du Kode Zibileko 851. artikuluan hipotesi horientzat ezarritako erregimena, Aragoiko araudiari jarraituz. Dena den, egokitzat jo da legegilearen esku uztea hain zehapen larria jasotzea merezi duten portaera zehatzak zehazteko ardura, bidezkoenak jotzen dituen irizpideen aplikazioan.

58. Oinarria. **Seniparte osoari uko egitea**

Seniparte osoari uko egin dakiok, hala oinordetza ireki aurretik, nola hura ireki ostean. Hala eta guztiz ere, etorkizuneko seniparteari modu eraginkorrean uko egiteko, oinordetza-itun bat egin behar da, zor duenaren eta nahitaezko oinordekoen artean.

Seniparteari uko eginez gero, oinordetza ireki aurretik zein ondoren, kasu hauetan bakarrik irauzgarriak da erabat: nahitaezko oinordekoen taldean dauden ondorengo guztiek egiten badute, edo, bestela, aurre-ahaideen taldeko guztiek. Ondorengo guztiek beren seniparteari uko egiten badiote, aurre-ahaideak ez dira senipartedun bihurtuko egitate horregatik, oinordetza ireki aurretik zein ondoren uko eginda ere.

Seniparte guztiari uko egiten ez bazaio, senipartedunek uko egin ostean, arrotzen eskuetan geratzen diren ondare-lesleipenak —ordezpen arruntaz, gehiagotzeko eskubidez

edo beste edozein moduz— zati askeari egotziko zaizkio, eta, gehiegizkoak badira, murritztu ahal izango dira.

Bat datoz: KZ 816. art.; ArOL 177. art.

Oharrak: oinordetza ireki aurretik seniparteari uko egiteko aukera emateak, zalantzarik gabe, senipartearen nahitaezkotasuna bera ahultzeko bidea zabaltzen eta errazten du; are gehiago, funtsezko ezaugarri horrekin kontraesan garbian dagoela ere esan daiteke. Gainera, seniparte osoa jasotzen duen sistema batean horrelako aukera bat emateak sor dezakeen arriskua ere azpimarratu behar da, nahitaezko oinordekoek banan-banan uko egitea lor baitezake kausatzaileak, hertsapenez —esaterako, banatzeko askatasuna aipatuz—. Hau da, senipartedun bakoitzak uko egitea lor dezake, banaka, beldurra eraginez eta zera esanez: momentu horretan eskaintzen dionarekin konforme ez bada, jaraunspenetik behin betiko baztertuko duela. Hala eta guztiz ere, seniparteari aurrez uko egiteko aukerari esker, kasu patologiko eta maltzur hori alde batera utzita, heriotzagatik egin nahi diren xedapenak askatasun gehiagoz emateko bidea zabaltzen da, eta, ildo horretan, mesedegarrizat hartu behar da. Uko egitean, oinordetza ireki aurretik zein ondoren, seniparte osoa iraungiarazten da, baina nahitaezko ondorengo guztiek egin behar diote uko nahitaez, lehentasunezkoak ez direnak barne, azken batean senipartedunak baitira haiek ere, hau da, senipartedun kondizioari eusten diote, lehentasunezko nahitaezko oinordekoen aurretik jarri eta onura osoa eman baitieziaieke xedatzaileak. Ondorioz, seniparteari uko egiteak egileari soilik egin behar dio kalte, eta ez, halakorik badago, leinuko gainerako ahaideei.

Era berean, nahitaezko oinordeko baten edo batzuen alde jaraunse edo legatadun izendatua izateari uko egitean, xedatzailea ez da gainerako obligazioetatik salbuetsita geratzen, gainerako seniparteari ere estali behar baititu, eta, beraz, ez da onuradunaren edo onuradunen esku geratzen erabakitzea ea talde osoari dagokion itxaropen kolektiboa iraungiaraziko den ala ez, edo, beste kasu batean, esleitutako zatia, besterik gabe. Horrenbestez, baztertzen diren nahitaezko oinordekoak ez dira behin betiko baztertuta geratuko testamentuzko edo kontratuzko oinordetzatik eta taldeari dagokion itxaropenetik; gauza bera gertatzen da beren zatiari uko egin ez dioten onuradunekin. Azken batean, kausatzailearen seme-alaba bakarrak, kausatzaileak baztertzen badu ere, oinordetza zatia gehiagotu (KZ 982 art.) duen arrotzari erre-

klamatu diezaioke, baldin eta harekin batera ondarearen erdira solidarioki deitzen badu *de cuius* delakoak bere biloba (seme-alaba haren ondorengoa) eta hark jaraunspen-eskubideari uko egiten badio; gauza bera gertatuko da alderantzizko hipotesian ere. Berriz azpimarratu behar da ezen, taldean oinordekoak izateko gai diren subjektuak dauden bitartean, itxaropen kolektiboak iraun egingo duela, guztiak baitira senipartedun. Gainera, aukeratzeko askatasuna *de cuius* delakoari ematen zaio, bere ondarea eta bere interesak ahalik eta egokien administratzeko asmoz, baina ez baztertutako seme-alabak arrotz bihurtzeko. Horregatik, baztertzek ez dio kentzen nahitaezko oinordekoaren kondizioa baztertuari.

59. Oinarria. **Egoztea**

Seniparte osoari egotziko zaio ondare-esleipen oro, inter vivos edo mortis causa, nahitaezko oinordekoak —lehentasunezkoa izan edo ez— doako tituluz jaso badu kausatzai-learengandik.

Seniparteari egotziko zaizkio, halaber, bizirik direnen artean eskuzabaltasunez egindako esleipenak, nahiz gero onuradunak uko egin, aurrez hil direnen alde egindakoak eta legezko kausaz jaraungabetu direnen edo oinorde izateko duinak ez direla jotakoen alde egindakoak, bai eta, halaber, senipartedunak uko egitearen truke jasotakoa ere, baldin eta uko egite hori oinordetza-itun bidez hitzartu bada.

Seniparteari egotzi beharreko dohaintzak eta gainerako esleipenak, berriz, hura kalkulatzeko ezarritako arauen arabera zenbatetsiko dira.

Xedatzaileak agin dezake, aipatze bidez, askatasunez xedatzeko zatiari egoztea nahitaezko oinordekoaren alde eskuzabaltasunez egindako esleipena, baina, ez-ofiziosoa bada, besteek eska dezakete hura murrizteko. Esleipena bizirik direnen artekoa bada, egoztea ez da baliozkoa izango eskuzabaltasunezko egintzan bertan egiten ez bada.

Bat datoz: ArOL 175. eta 176. art.; KatKZ 451-8 art.

Oharrak: akaso nahitaezko oinordeko izatea merezi ez badute ere, bizirik direnen artean eskuzabaltasunez uko egiten due-

naren, jaraungabetuaren eta duina ez denaren alde egindako esleipenak seniparteari egotzi behar zaizkio, zergatik eta kausatzaileak arrotzen alde duen askatasun-tartea ez gutxitzeko. Konturatu, bestalde, jaraungabetzea eta duintzat ez hartzea ez direla gainerako nahitaezko oinordekoen alde ezartzen; alegia, zati askean parte hartzen dutenen kaltetan, jaraungabetua edo duina ez dena zehatzeko baino ez; eta uko egitearen ondorioak arrotzen gain uzteko arrazoirik dagoenik ere ez da uste. Zalantza gehiago sortzen da kausatzailea hil baino lehen hil denak jaso dituen dohaintzen inguruan, izatez ez baita inor haren oinordetza irekitzean. Baina, argudio dogmatikoan gainetik, ekitatean oinarritzen den irtenbideak nagusitu behar du; hain zuzen ere, aurreko kasuetan aipatu den bera: ekidin egin behar da zati askearen kontura esleipenak jaso dituzten arrotzentzat zati horri egozteak sortuko lukeen kaltea. Ez dago esan beharrik (baina, dena den, ohartarazten da) senipartearen zatiari egozten zaizkiola, berehalakoak diren nahitaezko oinordekoen alde doan egindako esleipenak eta, haiekin batera, baita oinordeko hurbilek jasotako guztiak ere, nahitaezko oinordetza osatzen duten ondasunak askatasunez banatzeko ahalmena baitu kausatzaileak. Eta, era berean, esan beharrik ere ez dago ondorengo edo, hala badagokio, aurre-ahaide ez direnen alde *inter vivos* edo *mortis causa* eskuzabaltasunez egindako esleipenak askatasun osoz xedatzeko zatiari egotzi behar zaizkiola.

Kausatzaileak agin dezake ondorengoan edo aurre-ahaideen alde egindako eskuzabaltasunen balioa kuota askera birbideratzeko. Agindu horren azpian dagoen asmoa da, gehienetan, doan esleitutakoaren neurri gisa erabiltzea; modu horretara, helburutzat duen zatian sartzen ez bada (berez edo arrotzek eskuzabaltasunez jasotako esleipenekin batera gainditzen duelako), suntsiarazi edo murriztu egin daiteke, gainerako nahitaezko oinordekoek hala eskatzen badute. Edonola ere, berez eraginkorra gerta dadin, kausatzaileak, agindu hori emateko orduan, bi betekizun izan behar ditu kontuan: lehena, agindua aipatze bidez ematea, argi eta zalantzarik gabe, senipartedunarentzat kaltegarria baita. Eta bigarrena, *inter vivos* egindako esleipena denez, agindua emateko momentuan adieraztea eta ematea; izan ere, bestela, kausatzaileak erabil dezake tresna juridiko hori ordenamenduak nahi ez duen emaitza lortzeko: jadanik irmoa den dohaintza bat suntsiaraztea, Kodeko 644. artikuluan eta hurrengoetan legez aurreikusitako bidetik kanpo. Hala eta guztiz ere, eman duen agindu hori (ez, ordea, dohaintza) atzera bota dezake gero; esate baterako, testamentuan.

60. Oinarria. **Ukiezintasun kuantitatiboa**

Nahitaezko oinordekoen taldeak jasotako onurek seniparte osoa estaltzen ez badute, arrotzen alde eskuzabaltasunez egindako esleipenak murrizteko eskatu ahal izango dute, kaltegarri zaizkien heinean, xedatzailearen aldetik onuradun gertatu direnek —inter vivos izan edo mortis causa izan—, nahi gabe preteritu direnek, eta ziurra ez den legezko kausa baten arabera jaraunsgabetu direnek, haietako bakoitzari dagokion parte-hartzearen proportzioan. Bestela, murrizketa eskatzeko legitimazioa izango dute lehentasunezko nahitaezko oinordekoak.

Eskuzabaltasun ez-ofiziosoak ordena honetan murriztuko dira: lehenik, heriotzagatik egindako esleipenak proportzioan, esleitzeko titulua zein izan den kontuan hartu gabe; bigarrenik, bizirik direnen arteko esleipenak, antzinatasunaren irizpidea alderantziz hartuta eta data bereko esleipenak proportzionalki murriztuta. Hala eta guztiz ere, xedatzaileak agintzen badu legatu jakin bat beste batzuk baino lehen ordaintzeko edo ahal den heinean jaraunspeneko izendapen bat errespetatzeko, ez legatu hura, ez izendapen hori ez dira murriztuko, heriotzagatik egindako gainerako esleipen guztiak oso-osorik seniparte ordaintzera bideratu bitartean. Aldiz, xedatzaileak ezingo du aldatu bizirik direnen arteko esleipenentzat aurreikusitako lehentasun-ordena, ez eta xedatu ere mortis causa egindakoak baino lehenago murriztu beharra.

Murrizketa in natura egingo da, salbuespen hauetan izan ezik:

- 1. Erreklamazioa ezkontide alargunaren aurkakoa bada, hark dirutan ordain dezake gehiegizko ez-ofiziosoa.*
- 2. Murrizketa jasaten duenak zenbait ondasun jasotzen baditu kausatzailearengandik, erreklamatzaileri zein emango dion zehaztu ahal izango du.*
- 3. Murriztu beharreko esleipenak nekez zatitu daitekeen zerbait baldin badu objektutzat, onuradunarentzat geratuko da zerbait hori, baldin eta murrizketak haren balioaren erdia hartzen ez badu, nahitaezko oinordekoentzat geratuko baita bestela; baina onuradunak eta nahitaezko oinordekoek dirutan ordainduko dute dagokien ondarea.*

Bat datoz: KZ 656., 820. eta 821. art.; ArOL 179.-181. art.

Oharrak: nahitaezko oinordekoei dagokien itxaropena izaeraz osoa dela kontuan izanik, logikoa da ondorioztatzea haietako edonori dagokiola edo, hobeto esanda, senipartearen gain berehalako eskubideren bat duen edonori dagokiola edozein xedapen ez-ofizioso murrizteko akzioa baliatzeko legitimizazioa. Hala ere, halako antolabide batek ondarea gehiegi zatitzea eragingo luke, segur aski, askotan, eta, hain zuzen ere, sistema alderantzizko bidean doa, hau da, ondarea esku gutxitan (edo bakarrean) irauaraztea ahalbidetzen du, eta berezko joera du horretarako. Horregatik uste da egokiagoa dela nahitaezko oinordeko bakoitzak senipartearentzat gordetako *quantum* delakotik jasotakoaren proportzioan banatzea akzio hori baliatuz lortutako balioa, *de cuius* delakoak guztiz baztertu dituenak erabat kanpoan gera daitezten. Baina, seniparteari buruz proposatutako eskemarekin hobekien datorren irtenbidea dela jotzen bada, aitortu behar da edozein parte-hartzetik kanpo utzi diren nahitaezko oinordekoek ez dutela murrizketa eskatzeko legitimaziorik; izan ere, legitimazio baliatuko balute ere, ez lukete ezer jasoko, eta argi dago ez dutela inolako interes zuzenik eskuzabaltasun urratzaileak gutxitzeko akzioak baliatzeko. Horregatik, nahitaezko oinordekoa izan eta aldi berean izanez gero dohaintza-hartzailea (baztertuak izan arren, hemen ez baita kontuan hartzen kausatzailearen borondatea), legatuduna edo jaraunselea, murrizketa eskatzeko legitimazioa izango du, deuseztatu beharreko emaria banatuko da (hau da, esleitutako eta zenbatu beharreko ondarearen erdiaren edo herenaren arteko alde), kausatzailearengandik legez edo borondatez jasotakoaren proportzioan, eta kontuan izan gabe izaeraz «hurbilekoa» ala «urrunkoa» den; gainera, okerbidez preteritu dena eta ziurra ez dela frogatu den legezko kausaz jaraunsgabetu dena ere sar litezke. Aldiz, guztiak baztertzen badira (jaraunsgabetze osoa —eta bidegabeba— eginez, edo ahaztu izanagatik —apropos izan zein okerrez izan—, bizirik direnen arteko eskuzabaltasunezko esleipenik gabe), xedapen ez-ofiziosoak aurkaratzeko aukera lehen mailakoan gain uzten, kontuan hartuta, hain zuzen ere, berehalako eskubidea dutela senipartearen gain.

Murrizketa zer ordenatan egin behar den erabakitzeko, berriz, bizirik direnen arteko eskuzabaltasun-egintzak izaeraz errebokaezinak direla kontuan hartuta, ezartzen da, hain zuzen, dohaintzen edo presenteko eskualdatzea ezartzen duen oinordetza-itunean

egindako esleipenen aurretik murriztu behar direla arrotzen alde egindako azken borondateko xedapenak, gordetako *quantum* delakoan izandako kaltea osatzeko.

Hitz batez, seniparte osoa, geroago adieraziko denez, jaraunspeneko ondasunekin ordaindu behar da, eta, beraz, xedapen ez-ofiziosoak *in natura* murriztu beharko dira, bai eta *inter vivos* egindakoak ere. Alegia, erreklamatzailerak lerro zuzeneko ahai-deak badira, objektuaren titulartasuna suntsiaraziko da murrizketaren ondorioz, nahitaezko oinordekoen alde, baina, hala, erki-dego-egoera deserosoa sor daiteke, murrizketaren irismena soilik partziala delako eta gauza zatitu ezin delako edo, zatituz gero, balioa larriki galtzen duelako. Zehazki, eragozpen hori saihesteko, arau orokorrari salbuespen bat gehitu zaio; gainera, beste bi salbuespen ere jaso dira, Aragoiko legegileak aurreikusi zituenak eta, era berean, ustez zuzenak direnak.

61. Oinarria. **Ukiezintasun kualitatiboa**

Oinordetza irekitzeko momentuan oraindik ordaintzeke badago seniparte osoa edo esleitzeko geratzen den zatia, utzitako ondasunekin ordaindu beharko da.

Xedatzaileak ezingo du inolako karga motarik ezarri seniparte osoaren gain. Horretarako, kargatzat hartuko da edozein zama, ordezpen, baldintza, epe, modu, debeku edo mugapen, esleitutako ondasunen balioa gutxitzen badu edo esleitutakoa osorik gozatzeko edo nolabait erabiltzeko aukera murrizten edo txikitzen badu.

Debeku horretatik salbu geratuko dira honako hauek:

- 1. Nahitaezko beste oinordekoen alde xedatutako kargak.*
- 2. Kautela honen ondorioz sortutako kargak: xedatzaileak ahalmena ematen dio nahitaezko oinordekoari: aukeratu, zamarik gabeko seniparte-eskubidea jaso, ala zati zabalagoa jaso, baina karga horiek onartuz gero bakarrik. Kautela hori nahitaezko oinordeko bati baino gehiagori eskaintzen bazaie aldi berean eta haietako norbaitek karga errefusatzen badu aukeratzeko ahalmena baliatzean, horrek ez du ekarriko seniparte osoaren kontura esleitutako ondasunak galtzea, baina bai, behintzat, zati askearen kontura esleituta koakgaltzea.*

3. *Ezkontide alargunaren alde ondarearen gaineko usu-fruktu unibertsala xedatzea.*
4. *Legez aurreikusitako kargak.*

Bat dato: FZZL 60. eta 61. art.; KZ 813. art.; ArOL 182., 183. eta 186. art.; EZAA 56. eta 57. art.

Oharrak: gaur egun euskal autonomia-erkidegoan indarrean diren seniparte-sistemekin bat (hala Kode Zibila, nola Bizkaiko Forua), hemen proposatzen den nahitazko itxaropena *pars bonorum* gisa egituratzen da izaeraz, bat baitator, bestalde, izaeraz osoa izatearekin eta hedadura nahiko zabala izatearekin. Areago, seniparte kredituzko eskubide soil (edo *pars valoris*) gisa antolatu eta, beraz, dirutan kitatzeko moduan ezartzen bada, zentzu osoa hartzen du, baldin eta nahitazko oinordeko bakoitzari ematen bazaio zati indibidual ukiezin ez oso handia. Izan ere, orduan, zenbateko bihurtzea erraza denez, ez da oztopo gaindiezin bat familiako ondarea zatitu gabe transmititu nahi denean (bereziki, familia-entresen kasuan), titulu unibertsalez oinordeko izendatu denari ez baitzaio karga larririk ezartzen.

Kargak debekatzeari buruzko erregelari dagokienez, haiek objektutzat dute, noski, seniparte osoari zeharka uko egiteko aukera ekiditea, horixe gertatuko bailitzateke hau onartuz gero: xedatzaileak aukera izatea arrotzen alde edozein karga ezartzeko (esaterako, usufruktoa) nahitazko oinordekoei esleitutako ondasunen gain. Arau orokor hori, hala eta guztiz ere, berehala ñabartzen da *de cuius* delakoak seniparte osoa askatasunez banatzeko duen aukeraren arabera; izan ere, seniparte osoa nahi bezala banatu badezake, erabat onargarria da xedatzaileak ere zamapean edo ordezenekin esleitzeko aukera izatea, zuzenean saridun suertatu ez diren aldeko xedapenak egiteko garaian, saridun horiek hurbilekoak izan edo urrunekoak izan. Baina, gainera, baliozkoak dira, halaber, hala izan behar duenez, legez aurreikusitako kargak eta *sociniar kautela* edo *konpensazio-aukerazko kautela* izenez ezagutzen denetik sortutako kargak; azken kautela horren arabera, kausatzaileak aukeratzeko parada ematen die nahitazko oinordekoei: dagokien eskubidea zamarik gabe jaso, edo legez dagokien baino *quantum* handiagoa edo ondasun gehiago jaso, baldin eta bere seniparte zatiaren gain zamarik onartzen badu. Azken batean, *de cuius* delakoak lehen aukeraz oinordetza-bebeharra estaltzen dituzenez, xedapen horri ez zaio inolako gaitzespenik egin. Baina, aukerari hori dudarik gabe baliozkoa dela

jotzeko, beharrezko da zati askea kontuan hartzea; bestela, aukera hori ezarriaz gero, nahitaezko oinordekoak nahitaezkontasun-egoeran jartzen dira, ematen den ondarea banatzeko ahalmena modu bihurrian baliatzen baita. Hala gertatzen da, esate baterako, ume guztiak ondare osoan parte hartzeko izendatu, eta guztiaren gainean ezarritako karga ez onartzearen ondorioz zati askearen kontura utzitakoa galtzen bada, bai eta erreklamatzailari esleitutako seniparte zatia galtzen bada ere, azken hori *baztertua* geratzen baita, eta gainerakoek, berriz, ondare osoaren onura jasotzen dute. Hipotesi horietan, banatzeko askatasuna modu okerrean erabiliko litzateke, zertarako eta, nahitaezko oinordeko guztiek, arrotza den norbaitengana seniparte joan dadin ameto eman dezaten. Kontuan izan behar da eskualdatze hori ezin duela bakoitzak bere aldetik ekidin; izan ere, seniparte-eskubidea izaez kolektiboa da, eta ez indibiduala, eta, orduan, hura mugitzeko eta aldatzeko itxaropena besterik ez dute. Azkenik, senipartearen ukiezintasun kualitatiboaren salbuespen gisa jaso da beste hau ere: alargunaren alde ezarritako usufuktu unibertsalaren legatua. Esleipen hori oso maiz agertzen da pertsona ezkonduak beren azken borondatea ematen dutenean, eta, hala ere, printzipio orokor-rrak eragiten duen oztopoa gaingitu izan behar du beti (Bizkaian izan ezik), nola eta aipatutako konpentsazio-aukerazko kautela erabiliz.

62. Oinarria. **Mantenua**

Izaeraz lehentasunezko senipartedun diren ondorengoek eta aurre-ahaideek, oinordetzan utzitako ondarea banatzearen ondorioz legezko mantenua eskatu beharrean suertatzen badira, mantenua erreklama diezaiekete kausatzailearen oinordekoei, harengandik jaso dutenaren proportzioan, lege-ria zibil orokorraren arabera halakorik emateko obligazioa duen pertsonarik egon ezean.

Obligazio hori betetzeko galda diezaiekete, halaber, dohaintzak edo bizirik diren artean egindako doako esleipenak jaso dituztenei, behar-egoera hori esleipen-emaitza hiltzen den momentuan badagoela egiaztatzen baldin bada, betiere.

Jarautsuenaren usufuktu unibertsala edo partziala hirugarren bati legatuz eman eta oinordekoek ondarearen gaineko jabetza soila besterik ez badute, mantenua eskatzeko

demanda usufruktudunaren aurka jarri behar da, eta mantenu-emailea izango da, haientzat ezarritako baldintza beretan.

Kausatzaileak mantenu-eskubidea ken diezaioke nahitazko oinordekoari, jaraungabetzeko legezko kausaren bat baldin badago. Ondorengoak edo aurre-ahaideak izaeraz lehentasunezko nahitazko oinordeko badira eta urritasunen bat badute, eta xedatzailearengandik nahikoa ondasun jaso ez badute beren behar bereziei aurre egiteko, aurreko paragrafoetan aipatutako subjektuei erreklama diezaiekete mantenu-pentsio bat, behar berezi horiek estaltzeko adinakoa.

Bat datoz: FZZL 66. eta 158. art.; ArOL 200. art.

Oharrak: oinarri honek, kausatzaileak senipartea askatasunez banatu dezakeen sistemetan ohikoa denez (Bizkaian eta Aragoian), izaeraz nahitazkoa den mantenu-eskubide bat aurreikusten du jaraunspena banatzearen ondorioz mantenua eskatzeko legezko egoeran geratzen diren berehalako nahitazko oinordekoen alde. Azken batean, xedapen horrek zehaztu nahi du *de cuius* delakoak baduela obligazio bat aurrez (ahaide taldeari dagokion obligazioarekiko subsidiarioa bada ere; ikusi KZko 143. artikulua): bere senipartedunen beharrak estaltzen laguntzea. Horregatik, banatzeko ahalmena eta xedatzeko askatasuna arrotzen alde baliatzen badu, horrek ezin du eragin, esaterako, bere seme-alabak babesik gabe geratzea. Beraz, eskubidea izaeraz balizkoa da, baita beharrezkoa ere: kausatzaileak ezingo du ukatu, jaraungabetzeko bidezko kausarik ez badago behintzat. Mantenuaren zenbatekoa guztiek xedatzailearengandik jaso dutenarekiko proportzioan zehaztuko da, obligazio hori betetzea galdatu ahal izango baitzaie hurbilenekoei eta arrotzei, baita dohaintzak edo bizirik direnen artean eskuzabaltasunezko esleipenak jaso dituztenei ere, emailea hil zenean behar-egoera bazegoela egiaztatzen bada. Baina ez litzateke inolaz ere zuzena izango jabe soila besterik ez den norbaiti ezartzea ondarea usufruktuarekin zamatua dagoenean: kasu horretan, obligazio hori betetzeko zama jaraunspenaren fruituak bereganatzen dituenaren gain utzi behar da.

Gainera, oinarriak bereziki sendotutako balizko mantenu-eskubide bat aurreikusten du ondorengoak edo aurre-ahaideak urritasunen bat baldin badute. Kasu horretan, eskubidea izatea ala ez ez da uzten subjektu horien txirotasunaren arabera, baizik eta

kontuan hartzen den egitate bakarra izango da ea ondasun nahikoa jaso duten bizi duten egoera bereziaren ondoriozko behar ekidinezinak estaltzeko. Urritasun-egoeran dauden pertsonak nor diren jakiteko, lege honek jasotako kontzeptura joko da: 41/2003 Legea, azaroaren 18koa, urritasunak dituzten pertsonen ondarea babesteari buruzkoa eta, helburu horrekin, Kode Zibila, Judiziamendu Zibilari buruzko Legea eta Tributuei buruzko Araudia aldatzeari buruzkoa.

63. Oinarria. **Alargunaren senipartea**

Kausatzaileak borondatez bere ezkontide alargunaren alde egin dituen doako esleipenak, inter vivos izan edo mortis causa izan, haren objektua edozein delarik ere, haren legezko usufriktu zatia ordaintzeko direla ulertuko da, eta zati horri egotziko zaizkio.

Kausatzaileak besterik ezartzen ez badu behintzat, alarguntzako usufriktua azken lekuan kenduko da askatasunez xedatzeko zatiari egotzi zaizkion esleipenen objektu izan diren ondarearen zatitik edo utzitako ondasun jakinetatik.

Karga beren gain duten subjektuek diru-kapital bat edo jaraunspeneko ondasun multzo bat esleituz ordain diezaiokete ezkontideari usufriktuaren zatia; betiere, batera aritzen badira. Hala ere, kausatzaileak ondarearen usufriktu unibertsala legatu badio ezkontide alargunari, ezin izango da konmutatzeko ahalmen hori baliatu.

Bat datoz: FZZL 58. art.; KZ 834.-840. art.; EZAA 53. art.

Oharrak: alargunaren senipartea hedadura jakin bateko usufriktu aldakorrak osatzen du, eta, ikuspegi horretatik, haren izae-rak ez du zerikusirik lerro zuzeneko ahaideen alde gordetzen den *quantum* delakoarekin; baina ezaugarri horrek ez du kentzen, azken horien kasuan bezala, tresna bat izatea bizirik den alargunak hildako ezkontidearen ondaretik zer gutxieneko jaso behar duen neurtzeko. Horregatik, ondorioztatu behar da «egozte» deritzon eragiketa egin behar dela usufriktuzko zatiari dagokionez ere, hau da, *de cuius* delakoak emandako doako eskuzabaltasun guztiak, *inter vivos* izan edo *mortis causa* izan, zati horretara bideratu behar dira kontuak egiteko (behin kapitalizatu ostean); hartara, ea seni-parte-eskubide gutxiengoa ase den ala ez ondorioztatuko da.

Oinarriaren bigarren paragrafoan aurreikusitako kenketaren ordenaren helburua da, besterik gabe, erabat errespetatzea *de cuius* delakoak duen askatasuna ondorengoan edo aurre-ahaideen senipartea ez den ondarearen zatia nahi bezala banatzeko. Hau da, zati askea ukitu gabe uztea du helburu, eta kausatzaileak haren gaineko jabetza osorik erabakitzeke moduan uzten da.

Azkenik, alargunaren usufruktua kommutatzearen bidez, zenbait eragozpen saihesten dira: jaraunspena banatzeko garaian azaltzen direnak, ondasunaren kargak sor ditzaketanak (abusuzko ustiaketa egiten bada), jabetza-eskubidearen ahalmenak zatitzeak sortutako eragozpenak, eta abar.

64. Oinarria. **Akzioak preskribitzea**

Aurreko oinarrietan aurreikusitako akzioak bost urteko epean iraingiko dira, kausatzailea hiltzen den unetik edo fiduzia azkentzen edo agortzen den momentutik kontatzen hasita, eta erreszinditzeko ahalmena besterik ez dute izango.

Bat datoz: ArOL 178. art.; KatKZ 451-16, 451-20 eta 451-24 art.

Oharrak: segurtasunaren aldeko grina juridikoak galdatzen duenez, senipartearen babesean akzioak baliatzeko epea aipatze bidez ezarri behar da, eta babes-akzio horietan bildu behar dira bai ez-ofiziosoak diren xedapenak murrizteko akazioak, bai nahi gabe egindako preterizio batetik edo ziurra ez den legezko kausa baten arabera egindako jaraunsgabetzetik eratorritako akzioak. Ideia horrek berak aditzera ematen du, bestalde, komeni dela aipatze bidez zehaztea zer izaera eta zer irismen duen; batik bat, proposatzen den senipartearen mamiak (*pars bonorum*) zalan-tzak sor ditzakeelako ezaugarri horiei buruz. Horrenbestez, iris-men erreszinditzaile hutsa emateko aukera egin da, nola eta, nahitaezko oinordekoek ondare beraren gaineko eskubideak badituzte ere, jaraunspeneko ondasunak erreserbatutako *quantum* delakoa ordaintzera lotuta daudela ulertzeko aukerari zirrikiturik ez uzteko, senipartearen osagai gisa denean. Akzio horiek, beraz, ondasunen atzetik joateko aukera oso mugatua emango dute, eta ezin da haien mende jarri utzitako edo dohaintzan emandako ondasunen onuradun izan ez den oro, baldin eta «fede gaiztoz aritu ez diren hirugarren pertsonen esku badaude ondasunak legez» (KZko

1295.2 art.), kanpoan utzita, akaso, doako tituluz jaso izan diren kasuak. Hala badagokio, hirugarrena fede gaiztokotzat jo daiteke nahitaezko oinordekoen erreklamazioaren (edo lesioaren) berri badu, edo eskubideak ez errespetatzeko besterendu zela badaki, baina ez baliatze posiblearen jakitun izateagatik.

II. kapitulua
**Nahitaezko oinordetza Bizkaiko Lur Lauan, Laudion
eta Aramaion**

**65. Oinarria. 3/1992 Legean, uztailaren 1ekoan, euskal
foru-zuzenbide zibilari buruzkoan, jasotako
erregimenari eustea**

Batetik, 3/1992 Legeak, uztailaren 1ekoak, euskal foru-zuzenbide zibilari buruzkoak, I. liburuko III. tituluko II. kapituluan nahitaezko oinordetzari buruz ezarritako erregimena, eta, bestetik, liburu bereko II. tituluan tronkalekotasun-printzipioari buruz jasotako araua, indarrean egongo dira, aldaketa hauek kontuan hartuta I. liburuko I. titulua 5.-7. artikuluetan eta II. liburuko II. titulua 146.1 artikuluan zehaztutako lurralde-eremuan:

- 1. Berariaz indargabetuko dira 25., 64. eta 65. artikulua, 58. artikulua bostgarren paragrafoan jasotako xedapenak eta 62. artikulua lehen ataleko hirugarren paragrafoan jasotakoak. Era berean, 61. artikuluan aurreikusitako igorpena ere kenduko da.*
- 2. Tronkalekotasunari dagokionez, onibartzat joko da Bizkaiko Lur Lauan eta Laudio zein Aramaio udalerrietan kokatutako baserrien gaineko jabetza bakarrik. Ondorioz, 19. artikulua honela idatziko da: «1. Tronkalekotasunak eragina izan dezan, baserriaren gaineko jabetza bakarrik hartuko da onibar gisa. Baserria etxebizitzak berak eta hari lotutako gainerako eraikin, areto eta lur-sailek osatzen dute, bai eta baserriaren ustiaketari —ustiatzen bada— lotutako ondasun higigarriak, azientek eta makinek ere. 2. Tronkalekotasun-printzipiotik kanpo geratuko dira baserriari erantsitako higiezinak eta haren zerbitzura edo hari lotutako higigarriak, baldin eta aparte eskualdatzen badira».*

3. *Euskal autonomia-erkidegorako oro har aurreikusi den erregimenera egokituko da umeen eta gainerako ondorengoen —eta, halakorik egon ezean, gurasoen eta gainerako aurre-ahaideen— alde ezarritako seniparte zatia. Beraz, 55. eta 56. artikulua aldatuko dira, eta, hurrenez hurren, idazkera hau izango dute:*

55. artikulua: «Ondorengoen seniparte testamentugilearen ondasun guztien erdia izango da; betiere, ondorengo bakarra ez bada, laurden bat izango baita orduan.

Gainerako zatia askatasunez xedatuko da, baldin eta tronkalak ez diren nahikoa ondasun badago».

56. artikulua: «Aurre-ahaideen seniparte testamentugilearen ondasun guztien herena izango da; betiere, aurre-ahaide bakarra ez bada, laurden bat izango baita orduan. Gainerako ondasunak askatasunez xeda daitezke; betiere, tronkalak ez badira».

Bat datoz: EZAA 61.-87. art.

Oharrak: Bizkaian indarrean den Foru Zibilak bi modutara mugatzen du *de cuius* delakoak *mortis causa* xedatzeko duen askatasuna: lehenik, senipartearen eremuan, ondorearen zati nagusia ondorengoei edo, halakorik egon ezean, aurre-ahaideei bideratzeko obligazioa ezartzen du. Bigarrenik, tronkalekotasunaren eremuan ere mugatzen du; izan ere, kausatzailea infantzoia bada, mota horretako ondasunak tronkaleko ahaideei utzi behar dizkie beti (FZZLko 24. art.), eta multzo berean sartzen dira laugarren graduako ahaide odolkideak. Oinarri honen helburua da, hain zuzen ere, sistema horren funtsezko elementuei irauraraztea, kontuan izanda, mendetako eraketak izanik, sistemaren lerro nagusiak jada 1452ko Foru Zaharrear eta 1526ko Foru Berrian biltzen zirela eta gaurdaino iraun dutela. Hala eta guztiz ere, aldi berean neurri berrietan sartzen saiatu da, eta sortu zen eremura birbideratzen da: Bizkaiko baserrietara.

Ohartarazi behar da, hain zuzen, lurralde historiko horretan inguruabar ekonomiko eta sozial oso bitxi batean sortu zirela ondorengoen eta aurre-ahaideen alde xedatutako seniparte zabalak eta, batik bat, tronkaleko higiezinak titularraren familiaren aldeko loturaz eusteko erregela. Are zehatzago, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak (mendiak eta basoak ustiatzea ezinbestekoa izanik) —eta, neurri apalagoan, artisautza— eko-

nomiaren oinarri nagusi eta ia bakar ziren garaian ezarri ziren. Ekonomia, beraz, autohornikuntzan oinarritzen zenez, familia-egitura sendotu beharra sortu zen, ahaideen taldea enpresa moduan antolatzen baitzen. Modu horretara, familiak eta enpresak bat egiten zuten praktikan, eta, ondorioz, ondasunen eta odoleko familiaren identitate juridikoa errazten zen: norbaitek, doako edo kostuzko tituluz, ahaide jakin batzuegandik higiezi-
nak eskuratzen zituenean, eginahal komunaren bidez areagotu-
tako balioa ere eskuratzen zuen haiekin batera. Ondasun horiek
ahaideen taldetik atera eta arrotzen eskura joateak, beraz, haien
jabearen leinuko kideek urte askoan egindako lanaren aberas-
tasuna eta gainbalioa ere ematea zekarren. Familiarentzat lur-
raren titulartasuna aldatzeak sortzen zuen eragin adierazgarria
eta bizitzeko baliabideei haren barruan eusteko beharra kon-
tuan izanda, haren babeserako tresna juridiko egokiak egitu-
ratu ziren, nagusiki honako premisa hau ardatz hartuta: higiezi-
nen titularraren ahaideak maila pribilegiatu eta lehentasunezko
batean jartzen dira, ondasunen jabetza-eskubidea eskuz aldatu
nahi badu beren titularrak. Aldi berean, jabeari dagokion bote-
rearen irismena ere ñabartzen zen. Horrela sortu zen tronkale-
kotasuna, eta, osagarri moduan, seniparte zabal baino zabalagoa
(ondarearen bostetik laukoa).

Esan beharrik ere ez da, gaur egun, eredu ekonomiko hori
gainditu eta desagertu dela. Aspalditik, jada, etxeko taldearen bi-
ziraupena ez dago lurraren eta haren fruituen mende, eta lur ho-
rren gaineko jabetza-eskubideak ez du baldintzatzen familia egi-
turatzeko modua. Hala eta guztiz ere, 1992ko legeak, batetik,
foru zaharrek zehaztutako modu zabal hartan jasotzen du orain-
dik tronkalekotasun-printzipioaren arabera onuradun diren ahai-
deen eremu subjektiboa, eta, bestetik, haren mugapenak aplika-
tzeko orduan, higiezinaren artean ere ez du inolako bereizketarik
egiten berez duten helburuaren edo izaeraren arabera. Horren
ondorioz, tronkalekotasun-printzipioa sorrarazi eta osarazi zuen
helburuarekin zerikusirik ez duten higiezinak ere —esate bate-
rako, hiriko edo industriako higiezinak— haren mende daude
gaur egun, harritzekoa bada ere. Azken batean, 1992an marraz-
tutako erregimenak ez zituen batere kontuan izan tronkalekotasu-
nak jatorrian zuen esanahia, eta, horren kariaz, Bizkaiko zuzen-
bidea benetan eguneratzeko asmoa zuten zenbait adituk eskatu
zuten tronkalekotasuna baserrira mugatzeko, azal dutako argu-
dioak erabiliz. Diagnostiko hori zuzena dela egiaztatzeko, in-
darrean den legea bera begiratu beharrik ez dago, aipatze bidez

bazterten baititu, tronkaleko ahaideen alde ezarritako lehentasunezko familia-eskubidearen eremutik (tronkalekotasuna agerian jartzen duen eraketa nagusitik), *hiri-lurretan kokatutako fin-kak* (114. art.); hain zuzen ere, kanporatze horretatik ondoriozta daitekeenez, ez baita batere egokia finka horien gain foru-sakaren eraketa aplikatzea. Orduan, zergatik ez askatu finka horiek tronkalekotasunaren gainerako loturetatik ere? Edo, beste modu batera esanda, zergatik ez mugatu tronkalekotasuna, aldaera guztiak kontuan hartuta, nekazaritzako lurretan kokatutako finketara eta, haien barruan, baserriari bakarrik?

Oinarri honen helburua da nahitaezko oinordetzari buruz Bizkaiko sistemak ezarritakoa eta, bereziki, tronkalekotasuna ere birbideratzea eta berregokitzea, azaldutako analisian esandakoaren arabera. Horregatik, tronkalekotasun-printzipioaren eremu objektiboa baserrira mugatzen da. Dena den, aitortu behar da berez aspaldian abiarazi behar zuen zeregin bati ekin zaiola modu horretan, berandu bada ere; hain zuzen ere, Bizkaiko tronkalekotasun-printzipio zaharrak gaur egungo gizartean zer helburu lortu nahi dituen eta zer behar berezi betetzen dituen zehaztea. Baina, zalantza hori argitu bitartean, tronkalekotasuna bere habitat naturalera itzularazi behar da. Beste alde batetik, kontuz begiratu da eta komeni den ala ez aztertu da ea umeen eta gainerako ondorengoen, eta gurasoen eta gainerako aurre-ahaideen alde ezarritako seniparte txit zabala murriztu behar den, senipartearen zenbatekoa euskal autonomia-erkidegorako oro har aurreikusitakora egokitzeko asmotan. Erabaki hori ez da nolana hikoia, kontuz hartu beharrekoa baizik, begi-bistan izan behar delako ezkontzako erregimen ekonomikoa, hau da, foru-komunikazioa, erregimen horren bidez komun bihurtzen baita ezkontideen titulartasunean dagoen ondasun oro; betiere, hori bai, bietako norbait hiltzearen ondorioz ezkontza desegin ostean, bien ondorengo komunak baldin badaude. Ohartarazi behar da, beraz, ondorengoen alde Bizkaiko zuzenbideak aurreikusten duen seniparte txit zabalak eta tronkalekotasunaren printzipioak bermatzen dutela, momentu oro, alargunak umeei utziko dizkiela komunikazioaren ondorioz jaso zituen ondasun gehienak; haien artean, aurrez hildakoak bere ahaideengandik doako tituluz jaso zituenak (hala nola aita edo amarengandik jasotakoak, eta abar). Horrenbestez, testamentuzko askatasuna zabaltzen bada, ezkontzako erkidegoa aldi berean murriztu beharko da, zeren eta, bestela, inolako zentzurik gabe, familia batetik datorren aberastasuna beste familia batera legez eta mekanikoki pasatzeko aukera irekitzen baita, za-

lantzarik gabe. Ostera, oinarri hauen helburua oinordetzako eremura mugatzen den heinean, tarteko bidetik joatea aukeratu da, eta FZZLko 86. artikulua bigarren paragrafoan araututako erreserbaren egitatezko kasua zabaldu da (ikus 75. oinarria): foru-komunikazioa desegitean ezkontide alargunak bere jatorritik datozen ondasunen eta irabazitako erdien balioa baino gehiago balio duten ondasunak jasotzen baditu, alde hori desegindako ezkontzako seme-alabentzat eta ondorengoentzat uzteko obligazioa izango du, beti (ez bakarrik, oraindano gertatu ohi den bezala, berriz ezkontzen bada edo beste norbaitekin seme-alabarik badu bakarrik). Horrenbestez, dagokien seniparteaz gainera, alde hori estaltzeko nahiko ondasun utzi beharko dizkie. Seme-alabarik ez badago, aurrez hil den ezkontidearen ahaideak izango dira erreserba-hartzaileak, eta, hura hiltzean, legezko oinordetzara joateko deia egin dakieke.

III. kapitulua Xedatzeko askatasuna Aiaran

66. Oinarria. **3/1992 Legean, uztailaren 1ekoan, euskal foru-zuzenbide zibilar buruzkoan, jasotako xedatzeko askatasunak irautea**

Erabateko askatasunez xedatzeko erregimena, euskal zuzenbide zibilar buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legeak, II. liburuko I. tituluaren II. kapituluan aurreikusitakoa, indarrean egonga da II. liburuko I. tituluko 131. artikuluan zehaztutako lurralde-eremuan, aldaketa hauek kontuan hartuta:

1. 134. artikulua lehen paragrafoan, «handiaz edo txikiak» dioen zatia kendu eta honela idatziko da: «1. Foru-auzokotasuna dutenek askatasunez xedatzeko ahalmena dute, inter vivos egintzen bidez edo euskal autonomia-erkidegoarentzat oro har aurreikusitako edozein bideri jarraituz, titulu unibertsalez edo partikularrez, eta nahitaezko oinordekoak baztertuko dira, haien nahiaren edo ongiaren arabera».
2. Era berean, 134. artikulua bigarren paragrafoa aldatuko da, eta idazkera hau emango zaio: «2. Bazterketak eragina izan dezan bakarrik eta, bazterketarik ezean,

horrek dakartzan ondorioak bete daitezken, nahitaezko oinordekotzat joko dira kausatzailearen ondorengoak, aurre-ahaideak eta ezkontidea, euskal autonomia-erki-degoko erregimen orokorrean zehaztutako kasuetan».

3. *«Derrigorrezko jaraunsle»* dioen zatiaren orde^z —hots, 135. artikulua^{ren} hirugarren paragrafoan jasota dagoenaren orde^z—, «nahitaezko oinordeko» jarriko da.
4. *Eduki eta idazkera berria emango zaio 137. artikuluari: «Lehtasunezko nahitaezko oinordekoak, nahi gabe preteritu bada eta kausatzaileak besterik adierazten ez badu behintzat, eskubidea izango du onura gutxien izan duen senipartedunak jasotako zenbatekoa adina erreklamatzeko, bizirik direnen arteko esleipenak barne. Zati hori osatzeko, gainerako nahitaezko oinordekoen parte-hartzeak proportzioan murriztuko dira, baina oinordeko horiek preterituaren zatia dirutan ordain dezakete. Hala eta guztiz ere, oinordetzatik baztertutako senipartedunik badago, nahi gabe preteritu dena ere baztertuta gertuko da».*
5. *Eduki eta idazkera berria emango zaio 138. artikuluari: «Lehtasunezko nahitaezko oinordeko guztiak edo bakarra nahi gabe preteritu badira eta xedatzaileak ez badu inolako ondarezko esleipenik egin oinordeko hurbilen alde, haiek beren senipartea erreklama dezakete, eta hura urratzen duten xedapenak murrizteko eskatu».*

Bat datoz: EZAA 88.-90. art.

Oharrak: oinarri honek gaur egun indarrean den Aiarako Foruko araudian aldaketa batzuk egitea du helburu, eta foru horretako erregimen bereziak autonomia-erkidegoarentzat proposatutako estatutuarekiko harremana bideratzea. Horregatik, Kode Zibilera egiten den igorpenaren orde^z, euskal ordenamendua sartuko da; batetik, *nahitaezko oinordekotzat* nor joko diren zehazteko, eta, bestetik, haiek oker preteritzean sortutako ondorioak neurtzeko eta zehazteko. Hain zuzen ere, bigarren alderdi horri erantzutea da 137. eta 138. artikuluentzat proposatzen den idazkera berriaren xedea, artikuluen horien gaur egungo edukia erdugarri baita ikusteko ezinezkoa dela uztartzea herenen arabera senipartea eta Aiarako sistema, askatasun osoz xedatzeko dena.

67. Oinarria. **3/1992 Legean, uztailaren 1ekoan, euskal foru-zuzenbide zibilar buruzkoan, jasotako usufuktu ahaltsuak irautea**

Usufuktu ahaltsuaren edo oinordetza-fiduziaren eraketa, euskal foru-zuzenbide zibilar buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legearen II. liburuko I. tituluaren II. kapituluako 2. sekzioan aurreikusia, indarrean egongo da II. liburuko I. tituluako 131. artikuluan zehaztutako lurralde-eremuan, aldaketa hauek kontuan hartuta:

- 1. Zati bat txertatuko da 140. artikuluan, lehen paragrafoa osatze aldera, eduki hau idatzita: «1. Aiarako auzokotasun zibila dutenek beren oinordetza ordenatu ahal izango dute, emantzipatzen direnez geroztik, komisario bat edo gehiago izendatuta, eta, nahi izanez gero, enkarguarekin lotutako ondasunen gaineko usufuktu ahaltsua emanda».*
- 2. 140. artikulua gaur egungo edukia bigarren paragrafoa eramango da, honela idatzita: «2. Aipatutako usufuktua esleitu bada, izendatuari edo izendatuei dagokie, ondasunak erabiltzeaz eta gozatzeaz aparte, ondasun guztiak edo batzuk doako tituluz xedatzeko ahalmena, inter vivos izan edo mortis causa izan, usufuktua eratu duenaren seme-alaben edo ondorengo guztien edo batzuen alde».*
- 3. 143. artikulua indargabetu, eta idazkera berria emango zaio, komisario-lanetan bazterketa zehazteko dagokion ahalmen-maila xedatzea helburu: «Usufuktudun ahaltsuak, enkargatu zaion fiduzia baliatzeko ahalmena egikaritzen duenean, erabaki dezake kausatzaileak baztertu ez dituen senipartedunetatik nor edo nortzuk baztertu».*
- 4. Aipatze bidez xedatutakoa eta komisio-emaile eta -eratzailleak duen xedatzeko askatasunarekin bat ez datorrena alde batera utziz, Aiaran fiduzia eratzea, baliatzea eta iraungitzea arautuko du oinarri hauetan oinordetza-fiduziarentzat eta komisario bidez ordenatzearentzat ezarritako erregimen orokorrak.*

Bat datoz: EZAA 91.-95. art.

Oharrak: jakina denez, euskal foru-zuzenbide zibilar buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legeak, usufuktu ahaltsuaren lehen lodiak bakarrik marrazten ditu; izan ere, Aiarako Foruak bermatzen duen xedatzeko askatasuna bere osotasunera erama-

teko ardatza izan arren, 140. artikulua ez du inolaz ere alden du nahi Aiarako antzinako tradizioetik, zeinean usufuktua eta fiduzia —ordena horretan— bizirik den ezkontideari ematen baitzaizkio. Horren aurrean, pentsa daiteke ezinezkoa edo zaila dela bi alderdi horiek banatzea, baita gaur egun ere, eraketa familiako egituratik harantz joan den honetan.

Oinarri honetan proposatzen diren aldaketa xumeek helburu dute, ezeren aurretik, hau zehaztea: ondasunak erabiltzea eta xedatzea, eta usufuktua eta fiduzia izatea Aiarako oinordetza-eraketa berebanean naturalki elkartuta agertzen badira ere, Aiarako *de cuius* delakoak —honetan ere burujabe baita— bereizi egin ditzake zenbait subjekturi emateko orduan, edo gozatzeko ahalmena kentzea erabaki dezake, edo ondasunak bere buruari esleitzeko ahalmena gehitu, edo xedatzeko botere ia erabatekoa zehaztu; era horretan, kasik hondakinezko fideikomisoaren eremura hurbiltzen da. Aukera horiek guztiak biltzen dira, aipatze bidez adierazita, Aiarako Foruan, eta horren adierazle da 140. artikulua leheneko paragrafoan jasotzea proposatzen den edukia ahalbidetzen duen bereizketa, fiduzia eratzeko behar den gaitasuna ere zehazten baita, usufuktu ahaltsuan sartua egon ala ez.

Bigarren paragrafoan, indarrean den 140. artikuluan jasotako edukia eusten dio oinarri honek, baina honako hau azpimarratuta: oinordetza-fiduzia antolatzeko aukera bat besterik ez da fiduzia eta gozamina batera joatea eta agertzea («aipatutako usufuktua esleitzen bada»). Gainerakoan, proposatzen den zehaztasunak ez du Aiarako tradizioa estaltzen, baizik eta aitortu, usufuktu ahaltsua esleitzea nahikoa izango baita, besterik gabe, onuradunari helarazteko hark tradizio gordinenean duen edukia, gozamina eta fiduzia barne.

Hirugarrenik, beharrezkotzat jo da kezka handia sorrarazten duen 143. artikulua indargabetzea; hartara, sortzen den hutsunean txertatutako zatiak, ulergaitz gertatzen diren atalak alboratzeaz gainera, elkarrekin lotzen ditu komisario-fiduzarioaren ahalmen naturalak eta, hala badagokio, zehaztu beharreko oinordetza, baztertzearen ikuspegitik.

Bukatzeo, oinarriko azken paragrafoak lortu nahi duena da uzartzea, batetik, aiararrek mugarik gabe askatasunez xedatzeko duten ahalmenari zor zaion errespetua eta, bestetik, enkargu fiduzarioa baliatzeko garaian behar den segurtasun juridikoa. Bion arteko oreka lor daiteke komisario bidezko ordenarioari buruz ezarritako erregimen orokorra *mutatis mutandis* usufuktu ahaltsuari aplikatuta.

Legezko oinordetza

I. kapitulua Erregimen orokorra

68. Oinarria. **Jatorria**

Legezko oinordetza irekiko da oinordetza ordenatu ez bada oinarri hauetan oinordekoa izendatzeko onartutako edozein tituluren bidez, osorik edo haren zati bat, modu baliuzko eta eraginkor batean.

69. Oinarria. **Oinordetzarako deien ordena**

Legezko oinordetza ordena honetan emango da: 1. Ondorengoak. 2. Ezkontide alarguna; betiere, oinordetza irekitzeko momentuan ezkontidearengandik judizio bidez edo egitatez banandu gabe baldin badago. 3. Aurre-ahaideak. 4. Alboko ahaideak, laugarren gradura artekoak. 5. Euskal autonomia-erkidegoa.

Aipatutako ahaide-lerro bakoitzaren barruan, legeria zibil orokorrean ezarritako irizpideen arabera arautu eta emango da legezko oinordetza, baina, edonola ere, hurrengo erregela hauek ere kontuan hartu eta aplikatu beharko dira, bereziki:

- 1. Lerro zuzeneko ondorengoentzat eta, senideen seme-alabak badira, alboko ahaideentzat aurreikusitako orde-*

katze-eskubideak eraginak sortuko ditu hala aurrez hila denean nola ordezkaturako ahaidea oinordeko izateko duina ez denean.

2. *Seme-alabak beren eskubidez dira oinordeko, eta jaraunspen zati berdinetan banatuko da. Bilobak eta gainerako ondorengoak ordezkatzeko eskubidez dira oinordeko.*
3. *Legez edo egitatez banandu gabeko ezkontide alargunak, seme-alabekin eta ondorengoekin bada, bere seniparte-eskubideei eutsiko die. Seme-alabarik edo ondorengorik egon ezean, jaraunspen osoaren oinordetza jasoko du, aurre-ahaideen senipartea kaltetu gabe.*
4. *Ezkontide alargunaren seniparteari dagokionez, eduki hau duen xedapena ezarriko da: «Legezko jaraunse alarguna hiltzen bada ezkontidearengandik jasotako ondasun guztiei buruz inolako xedapenik egin gabe, edozein tituluz, inter vivos izan edo mortis causa izan, geratzen diren ondasunak emango zaizkie aurrez hildakoaren ahaideei, hura hil zenean bere legezko oinordetza deituak zirenei, haren jaraunse edo ordezko gisa. Halakorik ez bada, alargunak utzitako ondarean sartuko dira ondasunak».*
5. *Ondorengorik eta ezkontide alargunik egon ezean, gurasoak izango dira oinordeko, eta zati verdina jasoko dute. Bakarria bada, jaraunspen osoaren oinordeko izango da. Gurasorik ez bada, gradu hurbileneko aurre-ahaideak izango dira oinordeko: lerro bereko gradu hurbilenean hainbat badaude, buru bakoitza oinordeko izango da; hainbat badaude, baina lerro desberdinekoak badira, lerro bakoitzeko aurre-ahaideek jaraunspenaren erdia jasoko dute oinordetzan, eta lerroan buruz buru.*
6. *Ondorengorik, ezkontiderik eta aurre-ahaidetik ez badago, jaraunspen osoaren oinordeko izango dira alboko ahaideak, baina laugarren gradura bitartekoak, arau hauen arabera: a) senideek eta senideen seme-alabek gainerako albo-ahaideak baztertuko dituzte; b) lotura bikoitzeko senideek oinordetza zati berdina jasoko dute; c) lotura bikoitzeko eta soileko senideak batera badaoz, lehenengoak bigarrenak halako bi izango dira oinordeko; d) haurriderdiak bakarrik badira, oinordetza zati berdina jasoko dute; e) senideak eta senideen seme-alabak badiren kasuetan, lehenengoak buruz buru eta biga-*

rrenak leinuz leinu izango dira oinordeko; eta f) senide-rik eta senideen seme-alabarik egon ezean, albo-lerroko ahaideak izango dira oinordeko, baina laugarren gra-dura bitartekoak bakarrik, lerroak bereizi gabe eta lo-tura bikoitzaren arabera lehentasunik egon gabe.

Bat datoz: KZ 912.-958. art.; ArOL 201. eta 216.2 art.; KatKZ 441-1 eta 441-2 art.; EZAA 110.-117. art.

Oharrak: legezko oinordetzari buruz proposatzen den arau-dian erantsi den ezaugarriarik deigarriena da ezkontide alargunaren egoera hobetu egiten dela; izan ere, Kode Zibilean eta Bizkaiko Foruan ezarritakoarekin alderatuz, aurre-ahaideekiko lehentasuna izango du. Joera hori bera ikus daiteke azkenaldian gure inguruan egin diren lege-erreformatan ere (esaterako, Ka-talunian, 10/2008 Legea, uztailaren 10ekoa, Kataluniako Kode Zibilaren laugarren liburukoa, oinordetzari buruzkoa), eta, arra-zoi moduan, kontuan izan behar da familia zabaletan bizitzetik familia hertsietan bizitzera igaro dela gaur egun, eta eredu den kausatzaileak dituen nahiei hobekien egokitzen zaien irtenbidea dela (familiako krisi-egoerak kenduta, noski). Berriki eman den lehentasun hori samurtzen dute, edonola ere, honako bi faktore hauek: batetik, edozein kasutan eta nahitaezko oinordetza-es-kubide gisa, aurre-ahaideei dagokie herenaren gaineko senipar-tea, zeina berentzat erreklama baitezakete legezko oinordetza alargunaren alde ematen denean ere; bigarrenik, eskuzabaltasu-nezko esleipenak atzera eskuratzeko aukera ematen zaie oinor-detza motei buruzko arau orokorren arabera, eta, hala, hil den ondorengoari bizi zen bitartean dohaintza bidez emandako gau-zak berreskura ditzakete; beti ere, hildakoak ondorengorik utzi ez badu eta gauza horiek ondarean badaude. Gainera, egia bada ere ezkontide alargunari lehentasuna ematean ondasunek familia-rekin duten lotura alda daitekeela (noizean behin izan arren, nor-berak egindako lanaren ondorioz hazten baitira gaur egun ondare gehienak), arazo hori leunduta geratzen da, nolabait ere, oinarri honetako laugarren erregelari jasotako aurreikuspenen bidetik, zeina zuzenean hartu baita Aragoiko ordenamendutik. Inportazio horren arrazoiei dagokienez, berriz, alargunari erreserba bat ema-tea baino egokiagoa dela ulertuz, 71. oinarriko oharretan azaldu dira.

II. kapitulua
**Ab intestato oinordetza Bizkaiko Lur Lauan, Laudion
eta Aramaion**

70. Oinarria. **3/1992 Legean, uztailaren 1ekoan, euskal
foru-zuzenbide zibilari buruzkoan, jasotako
erregimena aldatzea**

Ab intestato oinordetza delakoaren ordena, euskal foru-zuzenbide zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legeak I. liburu III. tituluko III. kapituluan ezarria, oinarri hauetan aurreikusitakora egokituko da, tronkaleko ondasunei dagokiena salbu. Beraz, 67., 68., 69., 70. eta 73. artikulua berariaz indargabetu dira, eta honako eduki eta idazkera hau eman zaio 67. artikuluari: «1. Testamenturik gabeko oinordetza seme-alaben alde emango da, beren eskubidez, eta gainerako ondorengoen alde, ordezkatzeko eskubidez. 2. Ondorengorik ez baldin badago: a) Aitaren edo amaren lerroan jatorria duten tronkaleko ondasunak lerro horretako tronkal bereko aurre-ahaiideei dagozkie, baina ezkontzaldian erositako edo irabazitako ondasunei buruz 20. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoa kendu gabe. Lerroetakoren batean tronkaleko aurre-ahaidetik ez badago, lerro horretako tronkaleko albo-ahaiideei dagozkie ondasunak. b) Tronkalekoak ez diren ondasunak, batetik, eta, tronkaleko ahaidetik ez badago edo oinordeko izatera iritsi ez badira, tronkaleko ondasunak, bestetik, euskal autonomia-erkidegorako oro har aurreikusitako ordenan emango dira».

Bat datoz: EZAA 66. eta 111. art.

Oharrak: nahitaezko oinordetzari buruz aurreikusitakoarekin bat, Bizkaiaren kasuan, era berean, tronkalekotasun-printzipioaren eraginkortasuna babesten da testamenturik gabeko delazioan ere. Baina, berezitasun hori gordeta, bizkaitar infantzoia den kausatzaileraren testamenturik gabeko oinordetza, gainerakoan, euskal autonomia-erkidegorako oro har ezarritakora egokituko da, ez baitago inolako eragozpenik erregimenak bateratze horren alde egiteko, hala tronkalekoak ez diren ondasunei buruz, nola tronkaleko ondasunei buruz tronkaleko ahaidetik ez dagoenean edo edozein kausaz oinordeko izatera iritsi ez direnean. FZZLko 19. artikuluari emandako idazkera berria kontuan izanda, noski, onibarraren kontzeptu berri eta hertsia aplikatuko da: baserria bakarrik.

Oinordetza moduei buruzko xedapen komunak

71. Oinarria. **Erreserbarik eza**

*Aurreko oinarrietan ezarritakoaren arabera oinordetza-
edo dohaintza-tituluz eskuratu badira ondasunak, ondasun
horiek ez dira egongo inolako jaraunspenezko erreserbatara
lotuta.*

Bat datoz: FZZL 84. eta 88. art.; KatKZ 411-8 art.; EZAA
118. eta 120. art.

Oharrak: honekin lortu nahi dena da doako tituluz, *inter vi-
vos* izan edo *mortis causa* izan, eskuratutako ondasunak erreser-
ba-eraketaren mende ez uztea, ezta zeharkako bidetik ere, KZko
811. eta 968.-980. artikulua ordezko gisa aplikatzea onartuz
gero. Hain zuzen ere, bi erreserba horietatik bat ere ez da ongi
egokitzen aurreko oinarrietan zehaztutako oinordetza-sisteman.
Tronkaleko erreserbari dagokionez, zehazki, ezkontide alargu-
nari dei egiten zaionez aurre-ahaideei baino lehenago, hura inda-
rrean uzteak koherentziarik ez nabarmena ekarriko luke. Pentsa
ezen, aurre-ahaideengandik datozen ondasunak ezkontidearen es-
kuetara badoaz *zuzenean* legearen aginduz, ez duela inolako zen-
tzurik ondasun horiek berak familia batetik bestera *zeharkako* bi-
detik ez igarotzea helburu duen erreserba bat indarrean uztea; are
zehatzago, hori gertatuko litzateke alargunak *recta via* heredatu
ordez beraren eta jatorriko aurre-ahaidearen seme-alaba komun

batek testamenturik gabeko oinordetzatik jasotzean. Kontraesan hori konpontzeko modu bat da erreserba aplikatzeko egitatezko kasua zabaltzea. Hala ere, ez dirudi aholkugarri denik alargunaren askatasun ekonomikoari eta trafikiko juridikoari traba larriak jartzen dizkion figura bat zabaltzea, ertz lausoak baititu, gainera. Aitzitik, eta hau da lehen defendatu den proposamena, uste da hobe dela, Aragoiko legelariak egin duen moduan (ArOL 216.2 art.), ezkontideak aurre-ahaideen aurrean lehentasunez eta legearen aginduz heredatu duen kasuetan, arau bat ezartzea zeinaren arabera, aurrez hil denarengandik datozen ondasunak haren ahaideek hereda ditzaten, hura hiltzen den unean.

Antzeko argudioengatik —hots, izaeraz antiekonomikoa izanda ondasunak trafikikoan mugitzeko sortzen dituen arazo larriengatik—, euskal autonomia-erkidegorako ez da egokitzat jotzen KZko 968. artikuluan eta hurrengoetan araututako alargunaren erreserba. Kontuan izan behar da, gainera, figura horren jatorrizko helburuek —aspaldikoak, gainera— gaur egungo gizartean erabat arrotzak diren printzipio eta balioekin dutela lotura, kristau-garaiko Erromako zuzenbidean sortu baitzen; bigarren aldiz ezkontzeko joera zehatzeko modu bat zen, , hainbat teologo eta moralistak gaizki ikusten baitzuten bigarren aldiz ezkontze hori. Gaur egun, ordea, eraketa horri eusteko argudioak oso ahulak dira; esate baterako, ustezko dohaintza-emailean borondatea zaintzea edo lehen ezkontzaren barruan jaiotako seme-alaben itxaropenak hobeto babestea bigarren ezkontideak bereak dituen seme-alaben alde egin ditzakeen eskaeren ondoan. Azpimarratu behar da, bestalde, era berean, ildo horretan dauden argudioei tiraka, azkenean eraketa desegoki bat bat aplikatzean datzala; izan ere hemeretzigarren mendean Kodea egin zuen legegileak ezin izan zituen kontuan hartu gaur egun elkarrekin bizitzeko ohikoak diren moduak, hala nola izatezko bikoteak.

72. Oinarria. **Eskuzabaltasunak berreskuratzea**

Aurre-ahaideek beren ume edo ondorengoei ondasunak dohaintzan eman eta haiek ondorengorik izan gabe hilez gero, emandako gauza hori ondorean baldin badago, aurre-ahaideek hartuko dute oinordetzan, eta gainerako guztiak baztertuta geratuko dira.

Berreskuratze hori bidezkoa da legezko oinordetzan eta borondatezkoan, ezkontide alargunari dagokion senipartea,

usufruktuan zertua, kendu gabe, eta kausatzaileak askatasunez xeda dezakeen ondare zatia inolaz ere gutxiagotu gabe. Oinordetzaren kausatzailea kondizioz bizkaitar infantzoia bada edo auzokotasun zibilez aiararra bada, ez dago esku-biderik aurre-ahaideen aldeko eskuabaltasunak berreskuratzeke.

Bat datoz: FZZL 91. art.; KZ 812. art.; NF 279. legea; ArOL 209. art.; EZAA 123. art.

Oharrak: behar bezala berridatzi ostean, oinarri honek dohaintzak itzultzeko eskubidea jasotzen du, KZko 812. artikuluan eta FZZLko 91. artikuluan arautua. Figura horrek, eraginak izango ditu borondatezko nahiz legezko oinordetzan, baina helburua da, beste ezeren aurretik, nolabait leuntzea legezko oinordetzan ezkontide alargunari kausatzailearen aurre-ahaideen gaintetik ematen zaion lehentasuna: aurre-ahaideek, herenaren senipartea izateaz gainera, seme-alabarik izan gabe hil den ondorengoaren alde bizi zen bitartean egindako dohaintzak berreskuratuko dituzte; betiere, oraindik ere ondarean baldin badaude. Baina hori ez da senipartetik kanpo eskuratzen den zerbait izango, ezta seniparteaz aparteko plus bat ere. Emandako ondasunak senipartea kalkulatzeko oinarrian kontatuko dira, eta haien balioa aurre-ahaideek duten itxaropenean egotziko da, *de cuius* delakoari dagokion xedatze-askatasuna eta alargunaren usufruktua ez kaltetzeko; izan ere, kasu batzuetan, dohaintzan emandako ondasuna izango da ondareko balio nagusia — beharbada, bakarra —, eta, halako konponbiderik eman ezean, oinarri hauetan marraztutako oinordetza-sistemak lortu nahi dituen bi xede urratuko lirateke, hots, *mortis causa* xedatzeko askatasuna areagotzea eta ezkontide alargunak oinordetzan duen posizioa indartzea.

Kontuan izan behar da, ordea, berreskuratzeke eskubidea ondasun jakinen gain geratzen bada ere, eskubide horrek ez diola inolako loturarik sortzen, bizi bitartean, dohaintza-hartzaileari: onuradunak askatasunez kontsumitu eta xeda ditzake, kostuzko tituluz izan, doako tituluz izan, berreskuratzeke eskubidea jaraunspenerako geratu direnetara bakarrik mugatzen baita. Bestalde, berreskuratzea baliatzeko garaian, ez da arriskuan jarriko subrogazio errealaaren printzipioa, dohaintzan emandako *gauza berak* berreskuratzea baita kontua. Gainera, dohaintza-hartzailea ondorengorik izan gabe hiltzen den kasurako bakarrik ezartzen da, eta, hartara, ondorengoren bat badago, ez da aplikatuko,

ondorengoak ez-duinak, jaraungabetuak, ondorengorik utzi gabe dohaintza-hartzailearen ondotik hil direnak edo jaraunspenari uko egin diotenak badira ere. Ondorengoren bat utzi badu, dohaintza-hartzaileak borondatezko dohaintzaz eskuratutako gauzez xeda dezake, bai eta arrotzen alde ere.

Figura hori bazterrean uzten da kausatzailea bizkaitar foruduna bada edo Aiarako auzokotasun zibila badu; lehen kasuan, Lur Lauan jada indarrean den beste muga batekin topo ez egi-teko —hain zuzen ere, tronkalekotasunetik sortua—, zeina oinarrri hauetan indarrean uzten den. Bigarrenean, bazterrean uzten da, Aiarako Foruan *mortis causa* askatasunez xedatzeko ezartzen den ahalmen zabala errespetatzeko.

Aurreikuspen osagarriak

73. Oinarria. **Eremu pertsonala**

Oinarri hauek indarrean jartzen direnean, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurralde historikoetako edonongo auzokotasun zibila irabazia duen oro egongo da arau hauetan ezarritako oinordetza-erregimenaren mende, eta, ondorioz, kondizio zibilez euskal herritarra izango da.

Horregatik guztiagatik, 3/1992 Legean, uztailaren lekoan, euskal foru-zuzenbide zibilar buruzkoan arautua egon eta pertsona jakin bati dagokion foruak jasotako berezitasunak baztertu gabe, oinordetza-erregimen komunaren mende geratuko dira bizkaitar forudunak eta auzokotasun zibilez aiarrak direnak ere.

Bat datoz: EZAA, zazpigarren xedapen iragankorra.

Oharrak: oinarri hauek Euskal Autonomia Erkidego osorako oinordetza-sistema bakar bat ezartzen dutenez, auzokotasun zibil *berri* bat sortzen da haietatik, halabeharrez; euskal herritarrena, hain zuzen. Ez da administrazio-auzokotasun bat, baizik eta KZko 14. eta 15. artikuluko auzokotasun mota bat. Auzokotasun zibil hori, beraz, artikuluko horietan aurreikusitako kausa orokorren arabera eskuratuko da. Pentsa, hain zuzen, EAEko herritarrei bereziki aplikagarri zaizkien arau zibilak baldin badaude, auzokotasun zibil bat ere egon behar du, arau horiek nor lotzen duten zehazteko, eta Kodean araututakoa besterik ezin da izan auzokotasun hori; esan nahi dena da ezin dela egon zu-

zenbide pribatu autonomikorik, hura aplikatzeko irizpiderik ere egon gabe, eta irizpide hori auzokotasun zibila da, inolako dudarik gabe.

Oinarri honen helburua da, hortaz, eremu subjektibo bat ezarztea zehazteko ea nor joko den euskal herritartzat eragin zibiletarako. Eremu horretan sartzen dira, noski, bizkaitar forudunak eta aiarrar auzokoak ere; izan ere, oraindik ere nahitaezko oinordetzari buruz beren foruak agindutako berezitasunak indarrean badituzte ere, gainerako oinordetza-zuzenbideari dagokionez (edo, zehatzago, *mortis causa* instrumentuei eta fiduziari dagokienez), hemen proposatutako diziplina orokorraren mende geratuko dira.

74. Oinarria. **Euskal foru-zuzenbide zibilar buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legearen zati bat indargabetzea**

Lehen jasotako 65. eta 70. oinarrietan ezarritakoaz gainera, oinarri hauetan garatzen den oinordetza-erregimena indarrean sartzearen ondorioz, euskal foru-zuzenbide zibilar buruzko uztailaren 1eko 3/1993 Legearen zati bat indargabetuko da; zehazki, haien kontrakoa den guztia indargabetuko da, eta, bereziki, arau hauek: 9. artikuluko bigarren paragrafoan jasotako xedapenak, eta 10. eta 11., 13., 27., 29., 30., 31., 32.-48., 49.-52., 74.-83., 84., 85., 87.-89., 91., 92., 105., 106., 132. eta 147.-188. artikuluetan jasotakoak.

Bat datoz: ezer ez.

Oharrak: oinarri honen helburua da euskal oinordetzari buruzko araudi berriak izan beharko lukeen eragin derogatzailea zehaztea. Haren eraginpean geratu behar dute, zalantzarik gabe, *mortis causa* ordenazio-instrumentuak arautzen dituzten forumanamendu guztiek, oinarri hauek erregimen komun bat ezartzen baitute gaur egungo araudi sakabanatua ordezteko asmotan. Baina, aldi berean, beste arau batzuk ere txertatu dira, gaiarekin zerikusia badutelako edo, zuzenean, orain euskal oinordetza-zuzenbideak bizi duen zatiketa larriari amaiera ematen hasteko.

Lehenengoaren adibide gisa, FZZLko 105. eta 106. artikulua aipatze bidez indargabetu dira, artikulua horietako erregelak nekez datozelako bat proposatutako oinordetza-fiduzia berriaren erregimenarekin. Aurrenekoari dagokionez, oinarri honetatik

abiatzen delako: ezkontideak erkidego-egoera kitatzeari kontra egin diezaioke, foru-komunikazioa zertu ondoren, harik eta fiduzia-enkargua betetzen den arte. Bestalde, komisario bidezko ordenazioa arautu da; hala, kitatze hori betekizun *sine qua non* da ondareko ondasun jakinak esleitu izana baliozkotzat jotzeko. Eta, komisarioa ezkontidea bada, eta bere oinordetza ordenatzeko garaian testamentuz betetzen badu enkargua ondorengo komunen aldeko xedapenak bakarrik emanda, aldakizun hori alboratu badaiteke ere, jokabide horrek ez du esan nahi, inondik inora, kitatzeari kontra egin diezaiokeenik. Betiere, kontuan hartu gabe oinarri hauetan jasotakoarekin erabat kontraesanean dagoela ondarea administratzeari buruzko foru-araua, indarrean dena. Bestalde, FZZLko 106. artikulua aukera ematen du komisario izendatu den alargunak erkidegoa alde bakarreko egintzaz kitatzeko. Baina, komisario bidezko ordenazioaren araudi orokorrean, galdakizun logiko eta zentzuzko hau jasotzen da: erkidegoa kitatuko da balizko oinordekoekin edo, hala badagokio, kontulari-banantzaiaren parte hartzearekin. Beraz, kontua ez da ondasun ooren eta bakoitzaren gaineko zatia alargunari esleitzuz kitatzeko aukera ukatzea; aitzitik, eragotzi nahi da eragiketa hori alde bakarreko egintzaz egitea. Horrenbestez, gaur egun gaunditua den ezkontide alargunaren estatusa, familia- eta ondare-eskemekin bat datorrena, egituratzen duten arauak kendu dira; izan ere, are zalantzarriagoa da eredu hori aplikatzea modu ordeztaillean, eta, gainera, beste partikularren borondatearen parte hartzerik gabe.

Nolanahi ere, FZZLko 9. (bigarren paragrafoa), 10. eta 11. artikulua indargabetzeko arrazoia, hain zuzen, aipatu berri den bigarren hori da: arau horiek, jakina denez, legeria zibil orokorraren mende diren Bizkaiko udalei aukera ematen die erabakitzeko Bizkaiko foru zibila lurralde osoan aplikatuko dela, 1630. urtean izenpetutako Konkordiaren eta Konstituzioko lehen xedapen gehigarrian nahiz Euskadiko Autonomia Estatuaren 10.5 artikuluan aurreikusitako xedapenen arabera. Kasu horretan, esan beharrik ere ez dago aukera horri indarrean eustek topa egiten duela —bortizki, gainera— oinarri hauen gidabide diren helburuekin, hau da, euskal autonomia-erkidego osorako oinordetza-erregimen bateratu bat antolatzeke eta lortzeko asmoarekin; horretaz gainera, azken hori indarrean sartuz gero, aukera horrek bere izateko arrazoia galduko luke, ez bailitzaiteke Kode Zibila abandonatuko, baizik eta euskal jatorria duena. Arrazoi bera aplika daiteke FZZLko 132. artikuluan ere. Azkenik, indarrean den Gipuzkoako forua osorik alde batera uztea eta

indargabetzea proposatu da. Bistan denez, komisario bidezko ordnazioari, testamentu mankomunatuari edo oinordetza-itunei buruzko xedapen bereziak (Eusko Legebiltzarraren azaroaren 26ko 3/1999 Legea) indarrean uzteak ez luke inolako zentzurik izango. Horretaz gainera, Gipuzkoako baserria zatitu gabe eskualdatzea bideratzen duten arauak indarrean uzteak ere ez luke zentzurik izango; izan ere, lurralde historiko horretan Kodeko seniparte-sistema malgutuz lortu bada ere helburu hori, gaur egun, xede hori bera betetzen du izaeraz osoa den euskal seniparte berriak —eta, gainera, ez bakarrik nekazaritzako ustiategientzat, baita beste edozein enpresarentzat ere—.

75. Oinarria. **Euskal foru zuzenbide-zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legea aldatzea**

Aipatutako 65., 66., 67. eta 70. oinarrietan aurreikusitakoaz gainera, aldaketa hauek egingo zaizkio euskal foru zuzenbide zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legeari,:

1. 12. artikuluari idazkera hau emango zaio: «Foru zibil honen eraginetarako, beren auzokotasun zibila Lur Lauan irabazi dutenak bizkaitar forudunak izango dira».
2. 14. artikuluko lehen paragrafoko zati hau kenduko da: «forudun ala forugabe diren».
3. 20. artikuluko 3. paragrafotik kenduko da zati hau: «Foru honetako 85. atalean ezartzen den gordekizunaren eragozpenik gabe».
4. Tronkalekotasunaren eremu objektiboari buruz 65. oinarriko bigarren paragrafoan jasotako muga izango du oinarri hauen gai den oinordetza-erregimena sortuz geroztik oraindik ere indarrean diren Bizkaiko Foru Zibileko xedapen orok ere. Horregatik, xedapen horietan «onibarra» edo «tronkaleko ondasuna» kontzeptuak aipatzen direnean, ulertuko da tronkaleko baserriaz ari direla.
5. Idazkera hau emango zaio 86. artikuluko bigarren paragrafoari: «Gainera, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuak bete ala ez, ezkontide batek foru-komunikazioa desegitean jaso dituen ondasunen balioak jatorriz bereak direnen eta irabazitakoaren erdiaren batura gaitzen badu, gehiegizko zati hori desegin den ezkontzako seme-alaben alde erreserbatzeko obligazioa izango du.

Ondorengorik ezean, erreserba-hartzaitzat joko dira aurrez hil den ezkontidearen ahaideak, eta legezko oinordetzarako deia jasoko dute hura hiltzeko momentuan».

Bat datoz: ezer ez.

Oharrak: oinarri honen alderdi azpimarragarrienak, zehazki, hiru hauek dira:

Lehena. Euskal oinordetza-zuzenbide berria indarrean jartzen denean euskal auzokotasun zibil berri bat sortuko denez, gaur egungo legerian jasota dagoen bizkaitar forudunen eta forugabeen arteko bereizketak zentzu guztia galtzen du, zalantzarik gabe; hau da, oinarri hauek indarrean sartuz geroztik bereiziko dira, Bizkaiko lurralde historikoan, oinordetza komuneko eremenaren mendeko pertsonak eta, bestalde, Bizkaiko Foruaren mendekoak (haiek izango dira bizkaitar forudunak). Hori dela eta, FZZLko 12. artikulua berridaztea proposatzen da, bai eta 14. artikuluko lehen paragrafoa aldatzea ere.

Bigarrena. Begi-bistakoa denez, tronkalekotasuna baserriari nahitaezko oinordetzaren eremuan aplikatu behar zaiola ezin da hor bakarrik utzi, baizik eta, koherentziaz jokatuz, azaldutako arazoien gainetik, gainerako eraketetara ere zabaldu behar da; betiere, onibarrak familiara lotzeko printzipioak eragindako eraketak badira (hala nola foru-saka, lehenasunez eskuratzen diren familia-eskubideak eta foru-komunikazioko ezkontza-erregimen ekonomikoa).

Hirugarrena. Dagokion lekuan (65. oinarrian) ohartarazi denez, FZZLko 86. artikulua bigarren paragrafoan egindako aldaketaren helburua da foru-komunikazioko ezkontza-erregimen ekonomikoa indarrean den bitartean Bizkaiko senipartea murriztean sor daitezkeen arazoak gutxitzea; zehazki, familia batean landu eta osatu den aberastasuna beste familia batera automatikoki igarotzeko aukerari aurre egitea. Ildo horretan, ezkontide alargunak foru-komunikazioa desegitean jaso dituen ondasunek berari dagokion jatorrizko ondare guztia eta irabazitakoen erdia baino gehiago balio badute, beti izango du obligazioa gehiegizko zati hori desegin den ezkontzako seme-alaben eta ondorengoen alde erreserbatzeko (eta ez berriz ezkontzen bada edo aurrez hil denarena ez den seme-alabaren bat badu bakarrik). Horrenbestez, dagokien senipartez gainera, zenbateko hori estaltzeko ondasunak esleitu beharko dizkie. Ondorengoak aurrez hiltzen badira,

erreserba-hartzaitzat joko dira aurrez hil den ezkontidearen ahaideak, baldin eta hura hiltzeko momentuan legezko oinordetzarako deia jaso badute.

76. Oinarria. **Zuzenbide iragankorra**

Oinarri hauetan landu den oinordetza-erregimena indarrean jartzean sor daitezkeen arazo iragankorrak konpontzeko, Kode Zibileko xedapen iragankorrak argitzen dituzten irizpideak aplikatuko dira, eta baita honako aurreikuspen zehatz hauek ere:

1. Alarguntzako erreserba. Goian aipatutako oinordetza-erregimena indarrean sartu aurretik ireki diren oinordetzetan, erreserba abiarazteko egitaterik egon ez bada, ondasun bat bera ere ez da izaeraz erreserbagarri bihurtuko, eta bizi den ezkontidea haien jabe askea izango da.

Arau bera aplikatuko zaie, halaber, euskal foru-zuzenbide zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legearen 85. eta 88. artikuluetan aurreikusitako erreserbei ere.

2. Oinarri hauek baino lehenagokoak diren eta eman diren oinordetza-ordenazioen baliozkotasuna:

a) Aurreko legeriaren arabera hitzartutako edo emandako itunak, testamentuak eta fiduziak baliozkoak izango dira. Hala eta guztiz ere, egintza horiek edo haietan jasotako edozein klausula errebokatzeko edo aldatzeko, oinarri hauek indarrean jarritz geroztik, beharrezkoa izango da oinarri hauetan aurreikusitako galdakizunak betetzea.

Erregimen berriaren arabera baliatu behar dira fiduziak, baita komisario bidezko ordenazioak egin ere.

b) Oinarri hauek indarrean jartzean hitzartutako edo emandako itunak, testamentuak eta fiduziak ere baliozkoak izango dira, baldin eta haietan agindutakoaren arabera badira eta indarrean dauden bitartean irekitzen bada lotzen duten oinordetza.

Bat dato: FZZLko 1., 2. eta 3. xedapen iragankorrak; NFko 1. xedapen iragankorra; ArOLko 2., 7., 8. eta 9. xedapen iragankorrak; Kat KZko 2. eta 7. xedapen iragankorrak; GZZLko 2. eta 3. xedapen iragankorrak; EZAako 1. eta 3. xedapen iragankorrak.

Oharrak: Kode Zibileko legegileak bere garaian ezarritako zuzenbide iragankorrari buruzko printzipioek —euskal zuzenbide zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legeko, lehen xedapen iragankorrek argi erakusten duenez— praktikotasunari eta erabilgarritasunari eusten diote oraindik ere; bereziki, aipatze bidez ezarri zitzaien izaera analogikoari esker, funtsean (13. xedapen iragankorra). Eta hala aitortu du Auzitegi Gorenak, 1991eko apirilaren 16ko epai bidez, honela mintzatuz: «Gure ordenamendu juridikoan zuzenbide iragankorrari buruz izaeraz orokorrek diren inolako araurik ezarri ez denez», onartu beharra dago, inolako zalantzarik gabe, «lege-xedapen bakoitzean arau jakinik ezarri ezean, eta, betiere, Konstituzioak aurreikusten dituen mugen barruan, zehazki legeei dagokien atzeraeraginkortasunari eta atzeraeraginik ezari buruz, Kode Zibileko zuzenbide iragankorrari buruzko arauak betetzen dute funtzio hori, eta haietara jo behar da halako arazorik konpondu behar bada».

Baina horrek ez du kentzen, noski, zenbait aurreikuspen zehatz sartu behar izatea. Izan ere, Kodeko xedapen iragankorretan aurreikusi gabeko arazo batzuk konpondu beharra dago; esaterako, alarguntzako erreserba: proposatzen den lehen xedapenaren arabera (Kataluniako ordenamendukoa), legezko erreserbak ez du indarrrik izango ondasunek jatorria duten ezkontidea euskal oinordetza-erregimena indarrean sartu aurretik hil eta hura abiarazteko egitateak (berriz ezkontzea edo seme-alaba bat adoptatzea) heriotza suertatu bitartean egin ez badira. Egitate horiek egin badira, ordea, erreserbak eragina izango du, nahiz eta bigarren aldiz ezkonduetako pertsona araudi berria indarrean sartuz geroztik hil.

Bestalde, bigarren aurreikuspen berezian bildutako atalen bidez, printzipioen mailan behinik behin euskal herritartasunak oinordetza-prozesuetan sortzen dituen lege-aldaketen ondorioak zehaztu eta adierazi nahi dira, prozesu horiek bideratu egin baitaitezke, hain zuzen, gaur egungo arauak indarra izan aurretik emandako instrumentuen ildotik, besterik gabe. Oroz gain, iraganean egin ziren oinordetza-ordenazio guztien eraginkortasuna babestu nahi da, ordenazioak emateko momentuan indarrean dauden arauaren arabera zuzen sortuak direlako, nahiz eta, gero, erabat bat ez etorri berriki ezarritako galdakizunekin; horixe eskatzen du *tempus regit actum* printzipioak. Baina, berehala agerian jartzen denez, denborari buruzko arau horren koherentzia gordetzeko, ordenazio-negozioak errebokatzeko edo aldatzeko egintzak araudi berria indarrean egonik gauzatzen badira, balioz-

koak izango dira, baldin eta, noski, indarrean diren formaltasunak errespetatzen badituzte.

Aurreko legeriaren babesean prestatu eta garatu diren egoera horiek nahitaez egokitu beharra bereziki garrantzitsua da oinordetza-fiduzietan; izan ere, orain ezarritako baliozkotasun-betekizunekin bat etorri ez arren, eraginkorrak izango dira, baldin eta eman ziren garaiko arauekin bat badatoz. Hala eta guztiz ere, fiduzia horiei dagokienez, arrazoizkotzat jo da beren berezko dinamika eta oinarri hauek marraztutako funtzionamendua lotzea, ahal den heinean bederen. Ondorioz, aurrez jadanik izendatu diren usufuktudun ahaltsuek edo komisarioek kontuan izan beharko dute orain epeari buruz ezarritakoa ere; alegia, kausatzaileak edo, subsidiarioki, legeak ezarritako epea nola kontatu, luzatu —hala badagokio— edo judizialki murriztu. Halaber, kontuan izan beharko dute jadanik baden ezkontza-sozietate bat kitatzeari buruz edo egin beharreko inbentarioa formalizatzeari buruz xedatutakoa.

Oinarriaren bigarren atala ezinbestekoa da kasu honetan gertatzen diren zalantzak argitzeko: egintza formalizatzeko momentuan aplikagarri den legearen arabera deusezak suertatzen direnekin zer egin; bada, efikazia lortzeko duten bide bakarra izango da berriz ere egitea, gerora indarrean sartu diren betekizunak hertsiki aintzatetsita. Zalantza areagotzen da norbaitek onartzen ez badu lege onuragarriago baten eremura igarotzea (oinarri hauek egiten dutenez), aurrez egindako oinordetza-jarduerak arau berrien argitan berreskuratuzeko, uler baitaiteke aurreko erregimenak agindutako deuseztea zehapen zibila dela izaeraz, Kode Zibileko aurreikuspenei sarrera emanez (3. xedapen iragankorra). Beraz, eta, edozein mesfidantza-zantzu alboratzeko, erreserba edo amaitzea berradierazi beharra aukeratu da konponbide gisa eragozpen horiek ezerezteko, eta horrek egintza horiei berriro ere bizia ematen die, aipatze bidezko xedapenarekin.

Herri oren nortasuna zehazteko eta haren egitura eratzeko, elementu ezinbestekoa da Zuzenbide Zibila, hizkuntzaren eta kulturaren parean jartzen baita. Horregatik jotzen da gaur egun nahitaezkoa dela Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztientzat Zuzenbide Zibil bateratu bat osatzea; Gernikako Estatutuak bere gain hartutako eskumena baliatuz, azken batean Zuzenbide pribatua herri-nortasunaren eta euskal lurraldeen arteko kohesioaren elementu gisa erabiltzeko.

Bide horretan, Euskal Zuzenbide Zibila zuhurtziaz eta lasaitasunez garatzeko, zatika ekitea da modurik egokiena, eta hortik dator, hasteko, oinordetzari buruzko estatutua lantzeko proposamena. Horrez gainera, badira beste arrazoi batzuk ere erabaki horren alde. Lehen, euskal biztanleek arlo honetan pairatzen duten gehiegizko zatiketa: autonomia erkidego honetan lau oinordetza-estatutu baititugu, forurik gabeko bizkaitarrei dagokiena kontuan hartu gabe. Bigarrena, arabar eta gipuzkoar gehienei zein bizkaitarren erdiei oraindik ere aplikagarri zaien Kode Zibileko oinordetza-sistemak duen desfase esanguratsua. Azkenik, Zuzenbide Zibila garatzeko eskumena baliatu duten beste legegile autonomikoen eredia, bereziki Katalunian egin duten bideak erakusten duen norabidea eta han izandako esperientzia.

Liburu honetan, azken finean, Euskal Autonomia Erkidegorako oinordetza-erregimen berri bat sortzea proposatzen da, eta eredu gisa oinarri batzuen bidez egituratutako testu bat eskaintzen.

